

**Salvatore Mitxelena**

**UNAMUNO TA ABENDATS**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Idazlan guztiak (I)*, Salvatore Mitxelena  
(Karmelo Iturria eta Jose A. Gandariasen edizioa).  
EFA, 1977.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=227>

# UNAMUNO TA ABENDATS

**Bilbotar filosofuaren  
eta Euskal-Animaren  
jokerei  
antzemate batzuk**

**Iñurritzak**

*Ez naiz ni. Abendatsek  
diardu nibaitan.  
Artxek jartzen dit Miña  
biotz ezpañetan.*

*ezin izan dutena  
il millaka urtetan  
nola gaixo onek ito  
kolko gudu ontan?*

**-UNAMUNOK DON KIJOTE-RI:**

*«Ene abendari zor diot naizen eta balio dudan oro, ta berarixe zor zure bizitza ta ekin-tza senti al izatea.»*

**INURRITZAK UNAMUNO-RI:**

*Nik ere bai, don Migel, ene abendari zor diot zure bizitza ta ekintza senti ta barka ta maita al izatea.*

# SUSMOZ LETOZKENEI

Susmo txarrez letozkidake bearbada zenbait irakurle. Eztugu arritzeko; gutxiago, izutzeko. Ezpaidute uste Unamuno euskotasun aldetik ezertan onetsi ditekunik. Euskaldunon artean argaiztoz sogin izan diogua ia beti bilbotarrari, zearka, aierrez, bai abertzaleek eta bai karlistek; erlijiu aldetik naiz euskerarenetik arkitun akatsak galantak diralako. Naiko galantak izan ere baitira.

Katolikutasunari buruzko akats edo urrun-urbillak ez noa emen arakatzera. Eztut ori asmo. Asmo arazo ori zeazki ta bereziki burutua digute beste idazle naiko frankok, nagusiki: Pildain gotzai jaunak, Aita Oromi prantziskotarrak, Aita González Caminero jesuitak, Laín Entralgo-k, Julian Marias-ek, José Luis L. Arangu-ren-ek...

Akats oiek jakiñekotzat uzten dizkizut. Iñoiz edo beste bidenabar ukitzen ditudanean, gaitzesteko izango da ta irakurleari erne oi u bialtzeko: Kontu!

Katolikuok ez gaitezke tinka Unamunoren siniste motibu baezpakotan. Guk Kristori diogun fedea ez da, Unamuno-rena legez, gerebaitak eskatzen digulako

bakarrik; ez, barne muñak nai ta bear digulako baka-  
rrik; baizik Jainko-Gizonak eta Eliza Amak ala erabaki-  
tzen eta agintzen digutelako sinisten dugu batezere;  
ta berez egia, Egi Aundia, Egi Osoa, oien esku ta ao  
dagolako, norgere adimentxoak ulertu edo ez.

Unamunoren sinismen sustraia aitzitik da erabat.  
Subjetibu utsa da; gogoak damaion aña ta damaion  
bezelakoxea; bere nortasunaren «barne bizitzak» gal-  
degiña, eragiña ta an-emendiko ornitzez egosi irakiña;  
ez, Jainkoarengandik eta gatik arrerazten zaiona.  
Orratx berberak: «Itxaropena dugu fedearen ama; ta  
fedea, Jainkoarena.»

Agirian dago beraz zenbat eta nolako siñauste  
aleak sor daitezken eta sortu ere bide-zaizkion bilbo-  
tarrari erro ortatik. Giño ortan *San Manuel Bueno Már-  
tir* dalako orrek ezin ba buruan leku eman Kristoren  
gorpuzki bataioz geranon «goi bizi» jainkozkoari ta  
abar.

Jokeraz, jakitez naiz ekitez erlijiozale ta erlijiolari  
purrukatua dala ezin uka. «Ez nolanaiko *erreformatza-  
lle*, baizik sekula izan diran dozenerdi aundienen arte-  
ko ta añako gallentzen zaigu Unamuno» José Luis L.  
Aranguren-ek bere liburuon: *Catolicismo y Protestan-  
tismo como formas de existencia*. 30 urte zituneko ari

zan ziñematen: «Jadanik etzait ajola beste ezertxo: erlijio prolema ta neure etorkizunarena.»

Ateo-materialisten gandik katolikuena bezin urrun-aierti sentitzen da, sentitzen, eta idazten ere du noiznai; oiek ezin deio teke irakur, zernaitan aurka egoteko edo beren sinisgabekeriari bizkar emateko baizik. Marañon-ek orainki (1954) idatzia: «yo no sé, porque no soy teólogo, si se ajustó siempre o no al rigor de la ortodoxia, pero sí sé, y lo digo, que no he conocido a ningún otro hombre en el que esa presencia de Dios haya tenido tan permanente y terrible realidad.»

Kristozale ta kristaulari are sukartuago dugu, gañera. Unamunoren erlijia, bere betiko luterotar kutsuz ezik, Kristoganakoa da dena den. Jesukristo du bere teolojiaren ardatz, jomuga, egi iturri ta maita elburu; elburu mami eragikor ezilkorgille. Oroi, besteren artean, «El Cristo de Velázquez» liburu poema. Erruz, zinki, muinki maite ditu Jesus eta Jesusen irakaskizunak. Paris-ko euskaldun ateo bati eskutiz bat eta bestean diñotsa: «erriaurki oraingoentzat eztago salbatzerik, ez osabiderik, kristautasunez landara.»

Oeburuko irakurgai kuttunenak ere: Biblia, Kenpis, Agustin-Teresa deunak, Gurutzeko Jondone... ta beste

aukera-aukerako gutxi batzuk. España-Euskalerrak eurak beren kristautasunaren idealismuagatik gorenesten ditu baitipat. Bañan, kontu: berbere betiko hereje tajuz eta vitaliste voluntariste arioz.

Aristotel-en naiz eskolastikuen ezagumenari «razón teórica» deritzaio ta orrekin ez omen dago eltzerik geien-geienez Jainkoarekiko *idea utsera* baizik. Geien-geienez, alegia; ezpaitu uste adimena ortaraxe re el daitekenik, Jainko baieztera baño ukatzera geio baizik. Jainko *berbera* ren izateratze edo jainkoitze ori «razón práctica» rekin lor omen daikegu baka-riek: ots, sentimenaren eta borondatearen ezaguera-rekin. Antonio Machado-rena legokioke ezin juntuago:

Yo he de hacerte, Señor, cual tú me hiciste, y para darte el alma que me diste, en mí te he de crear.

«Ez jakintsu ta ez pentsalari; ni sentilari bat naiz.» Ta aitor bear: sentilari bezela, nolako bikaña! zeñen angusti-duna! nolako Jainko gose duna! Ortan bai, ortik bai, benetan erraldoi. Ara, giza-anima batek berez, Jainko grazirik gabe, zenbaterañoiko Jainko gosea daramaken proba nai litzakenean, nekez auke-



ra daiteke. gure odoleko auxe baño erakusburu jatorragorik, tantai ederragorik, aspaldiko pentsalarietan.

Jainko min ori larriren larri sentitze ortan eta sentitze ori gizatasunez naiz nolanaiko jakitez jazte ortan, arrigarri dugu, ala niñoke; irakurriago ta arrigarriago; liburuetan bertan bañore bere eskutiz kontaeziñetan areago, gañera.

Bere teoloji ta mistika, gaztetzarotik erromar fedea erabat galdu zun gizaki uts agnostiku batenak izateko, zangar giartsu dira iñolaz; akatoliku batenak izateko, gure etikaren urbillenetik dijoaz maizenik eta onen goitasunak pranko trebeki arrotzen ditu. Aita Benítez-eta alegiña saiatu dira gizaki urduri au katolikutzen, guretzakotzen. Asmoa aurreratxogi txirristatu ez ote zaien gaude, sinpatiz sogiten diegularik ere. Orregatik jesulagun onen *El drama religioso de Unamuno* txasta oi dute zearoko fiakizun ez omen diranen artean.

Ezin gaitezke geiegi txunditu, oraingo beintzat, ez itxutzeraño lilluratu. Geiegi lilluratzeak baluke galpiderik. Agoni gizonari noiznai nabari zaio sasi jatorria edo len salaturiko susterrondo heretikua; ta, baitare, aske pentzalariaren menpetasunik eza edo, berak lesakenez, «norberatasuna».

Orretxegatik egingo nuke dala bere teologia sentimen aldetik jainkotiarrago ta ortodosi aldetik bildurgarriago; sinisgabekoentzat, lozorroa astintzekoan, onuragarri ziurrenik; katoliku gutxi-ikasientzat ordea naspilkor geienik eta kaltegille.

Pentsa zagun debeku kondenak ere orretxegatik ipiñiko zizkiotela artan edo ortan Españiko zenbait gotzai azken urteotakuok: gure Antonio Pildain, Canarias-koak; Jesús Mérida y Pérez, Astorga-ko zanak; orainki León Villuendas, Teruel-ekoak; baita Pla y Daniel berak ere, Salamanca-ko zanean (1942)...

Jainkotiarrago ta bildurgarriago, epaitu dizut. Orratx, ain zuzen, bere biziko paradojalari izandakoaren il ondorengo paradoja ikaragarriena, ta trajedi itzala. Jainkotiarrago ta ordun bildurgarriago!

Izan ere, Jainkoak daki bakarrik zenbat kalte dagoiken Españi-Euskalerrietako katolikutasun eskas zailduari, batez ere gaztedi ikasleari, baldin ezpadugu beintzat irakurleen baitaratzen zer dun katolikuaren eta zer siñauslearen, zindoki zedarrirituz eta jakiñaziz bat eta bestearen mugak.

Bere liburuak guziz debekatu? Alare irakurle anitz ukanen lituzkela niñoke ta erakar indar geiegi dukela Unamunok etsaien ikurrintzat uzteko, beren-berena

bailuten. Bat edo beste liburu soilki debekatu, erlijiu zaña geienik ortzokatzen duten aietxek? Itxurazkoenik onetxek dama; baña edozein enseiu, drama, nobela, artikulu naiz poemetan agiri zaio edonoizko menderakaitza, edonongo «bera». Batasun geioko idazlerik nekez. Erabat geuretzakotu? Ai al balitz! Oguztua dugu ordea zearo geuretzakotzerik eztagola ainbat siñauste dituna. Erdipoerdiko zerbait billa ta eragin?

Korapillo estutxoa dago galdera oietan, partikulariki guretako iñork aisa ta gogara askatzeko. Orra nik beñipin lurgañeratu, irakurlearentzat, auziaren txongoa; ta... «bakartia» ren iñorekin eza.

Oiek ola, asieratik beinbetikoz oar bearra derizkiot nire onako azterketak eztirala iñolare Unamuno teologuarekin baizik soil-soilki filosofuarekin eta, oraindik zeatzago esateko, «gizaki filosofu olerkari» irukoitzaren euskaltasunarekin. Ots, Euskal Animaren arnari diran aldetik ikustatu «berezko» gizandi orren iru saiets oiek eta, aitzaki ortan, geure abenda barruko kontakizunak ere konta. Orra nire arlo barrutia.

Euskaldun baten billa natorkizu beraz Unamunogana. Galdera onekintxe natorkio beste gabe: ea ba nondik eta nolako euskotarra zaitugun.

«Filosofiak baño geio balio du filosofuak», ziñon berak. Ta ni emen, bere gizatasun eta euskotasun ondo ekurugaitz orren gorabera bapo ugariak billatzen, galbaitzen eta, zuzen danean, goersten ariko natzaizu, egiak aña odolak artaratuz, gero besteren batek mardulagoki goretsi ta oñarritu ditzakelakoan. Besteren batek oñarritu bai. Oraingoz nik dagidana ikuspegi bat litzake, batezere; edota, obe baderizkiozu, idaroki bat.

Nik dakidala etzaio beste iñortxo urbildu xede ortan. Deitu bai «el gran vasco» ta olakoak, atzerritan, erruz eta merke. Bañan bere euskaltasunaren barrunpe ernaragarri oiek azaltzera etzaio libururik oraindano opaldu. Ontan lenbiziko izate onek puxkat alaitzen eta arrotzen ere nau. Asmoa beintzat zuzena baitut, naiztare aski berandua.

Susmoz letorkidaken irakurleari eztiot esango xedea iritxi dudarik, pixkat baietz neurekaxa uste arren. Unamunok, kristautasunean bezela, euskaltasunean ere bere ajeak ditu, ta nork ez? Kristautasunean erroa topa diogu koloka, topa nolabaiteko; euskaltasunean erroa du zindoen, jatorren, aberatsen. Kristautasunean adaburuak dama ikusgarri, agiz ikus-

garriegi; euskaltasunean adaburuak ez ainbeste, agaki bat edo bik gutxiago...

Orain, agaki bat edo bi oierixe soilki beiratzuz zugaitz osoa usteltzat jotzen dunak eztu zuzen jokatzeko, bidegabekeria dagi ta gañera kalte itzala dagioke jokera etsai askotara «gogape» bakarrak daragion Euskalerraren batasunari. Ontan ere balio bear digu Kristoren aginduak: «Etzazutela aloa (zizaña) ateratzean garla ere susterkatu.»

Ea zergatik auta dudan Unamuno eta ez beste edozein? galdetu dit bilbotarrari bere euskera gorrotoa (?) barkatu ezin dion «euzkel-euzkeltzale» integriste uts oietako, oietako! batek; Unamuno gure etsai gogorrena omen dugula-ta.

Ba, orretxegatik, gizona; orretxegatik ain zuzen, integriste jauna. Unamuno, euskeraren etsai gogorrena dugularik ere, Euskal Animaren abogadu gogor ere badalako, zenbait «euzkeltzalek» ori ezin irentsi arren.

Ea zergatik! Euskal Anima onen gaurko edo menderdi ontako ezinegona, kontentagaitza, marmarra ta maxia, negarjotzea, asalda aserrea, menderakaitza, bizi naia, agoni burruka, kontragite edo antagonia, etsipena ta etsieziña ta itxaropena, askatu leia,

euskal miña ta arrandia, «ni ta ni» a, bakartasuna, azibearra, jaundu gogoia, ezilkor gosea, norberatasuna, langilletasuna, laztasuna, zintzotasuna, erlijiutasuna... ta beste tasun kontaeziñalen ispillu ta aitzindari berdiñik gabe eskubidez Unamuno deritzaidalako, mundua beteko ospean eta ditziran.

Ez gutxiogatik, gizona. Etsai gogorrenek ere, euskotar «borondate oneko» diranean, andik-emendik arrazoi damaigutela probatzeko. Ontan edo artan zurekintxe ez pentsatzeak barru-barruko euskaltasuna ukatzen ez dula beingoz jakiñarazteko, jakiñarazi ta, bearrik, ondo gogoan josiarazi; bestela neu ere, zurekin integrismu ortan bat ez natorren ezkerro, ezpainintzake billakatuko euskaldun. Euskaltasun Osoa, ez zuk eta ez nik, baizik guziok osotzen duguna dalako, guziok balinbaite, norgere egi ta on apurñoz.

Berebat Euskalerrigatik ere. Euskalerria abertzaleontxo ori bakarrik eztalako, gutxiago euskaltzaleontxo bakarrik, eztare eliz gizonen ori bakarrik. Euskalerrri Egiazkoa, egunotako ezur eta mamizkoa, ez da zure edo nire utopiak nai lukena baizik ezurmamizko jendeek, diran bezela dirala, osotzen dutena, guzion artean kopurutzen duguna.

Ona berriro. Gaurko Euskalerra Osoa eztugu zuk eta nik soilki ezurmamitzen, ez, integriste jauna; baik abertzaleek eta karlistek, liberalek naiz komunistek, España zale naiz Prantzizaleek, katolikuek naiz bestelakoek, ondrauek naiz lapur likiskume eta beste barrabasek, baita oetxek ere zoritxarrez, baita gure artean ain gutxi eztiran pellokirtenek ere, euskera zaleek eta erderaz jarduleek, zuk bezela pentsatzen dutenek eta eztugunok, guziok; ta beraz, guzion artean, baita Unamunok ere noski, Unamuno gizajoak ere, bere aldez.

Baita euskera beragatik ere, gizona, ta ez anka zgora erori. Unamunok «Euzkera» ri, gu ausartu ez bezelako aserrez eta egiz, salatu zizkion akatsak eta suizidakeriak beingoz garaitu nai ditugulako.

Ez uste, ez, aren iragarpen eta akarrak oro gezurts billakatu zaizkigunik, eztare guk purrustaka ukatzearekin indargabe gelditzen diranik, bein ta betiko zerraldo. Purrustek xaguxarrak uxa ditzateke, ez arrazoiak.

Sei dialektu ta ogeitik gora subdialektu ba omen dira euskeran: gure aberastasuna! «350txo» irakurie besterik ez omen gera, baña... baña baitare ordea beste ainbeste maixu, nolako maixu! nolako jauntxo

ta jabe! «350txo» oietako bakoitza gaituzu norgereka-  
xa euskera berri-berri bat asmatzeko lain, beste iñork  
ez ulertzeko alakoa: gure aberastasuna!

Ta, zer nai duzu? Unamunoren akarrak suntsituko  
baditugu, guk aberastasun gutxiago bear, eta... zen-  
tzun geiago!

Ez noski euskera bat (bat?) «350txo» na; ta bes-  
tea, «egutegi» etako 25 edo 30.000 aiena; ta bestea,  
«garbiren garbi zale» oiena, gure ilzori gaixoa beti  
operazio maiean nondik zer geiago kenduko daukaten  
arakin ez bestelako oiena; ta bestea, zarkeri edo  
arkaisu billa aguretu bear dutenena; ta bestea, ez-  
ulertuak izatekotan ixillik egon naiago genuken  
«jende xume» edo «erri-erri» deituona... Bakoitza sor-  
gin belar bana eskeinka ilzoriari! onek bear dun sen-  
dagai bakarra emateko gauza ez geranean.

Zer sendagai? Batasuna, gizona; grazi pixka, bizi-  
tasuna, argitasuna, atsegiña. Etimilojiste naiz grama-  
tikalari gutxiago, gure errepublikan. Iztun eta irakurle  
geiago. Ots, lege gutxiago ta bizitza geiago. Beingoz  
bukatu, arren, ur ta lur azpiko buzoketa-satorketak.  
Maixukeriak utzi. Neke gutxienez ulertu ta maita dite-  
ken izketa txairoa erabilli. Nekea eztu sekula maite  
jende arruntak. Ez nekeak eman irakurleari baizik



idazleak norberetzat artu. Orobat izlari ta entzuleen artean. Ez uxa irakurleak baizik erakarri, gosetu. Ez kalean txirrista erderara baizik euskeraz jarritzeari eutsi, naizta mordollokiro. Labur esan: zentzun geiago bai, nire integriste jauna, zentzun geiago bear euskerak baldin biziko bada, ots, baldin alegia Unamunok jo zion illetari igesiko badio.

Guzi on ta geiogatik, gizona, datorkit egokienik, naspilkeri oien nazkak eta ondorenak eta ondakiñak aurrez gaztigatu zizkigun igarle sakerra.

Alajaña, Unamuno eztala euskaldun, akatsik badi-tula-ta! ala sinistarazi nai didazu beraz? Beira nire aldetik, arrazoi analoji berez, zer gomutarazi ta aitorrarazi bearko dizudan: ez batere gutxiago, arranea: kontu ortan Euskalerrria bera re eztala euskaldun! Unamunori agiri zaizkion minbiziak eta bost are nabarmenago ta ugariago nabari baitzaizkie zazpi probintzietako biztanle agitz geienei (erderaz jardute, euskerari ajolarik eza, maketokeria...), ta beraz Euskalerrria eztugula Euskalerrri! ta beraz gaurgeroz eztagola munduan Euskalerririk! ez Euskal Animarik! zure ta nire moduko ero batzuen kaskotzarrean baizik!... (Zure integristuari darion sekuentzi derriorra duzu, gizona; ondorio bearra, nai baduzu; ez al da bitxi?)

Ez. Ez naiz lotsa, Unamunok ditun bizpairu akats oien ezker-eskubiak auziratuz beste euskal saietsalde zindoak emen jasoaz edo jasotzen saiatuaz.

Bada ordu munduak jakin dezan, guretar ospatsuen au eztugula gure kontrako, baizik guretasunaren emaitz dugula; ta ordu dugu baitare gu gerez, integrismukeriak utziz, bakoitzari dun ona ezagutuz, euskaltasun zabalenera abia gaitezen, zabalenera! guziok bat.

Guziok bat! (ala otsegiten zaigu aspaldion): orratx gaurko euskaldunon elburu ta bearkizun gorriena. Ortarako ordea anaiarteko tikimikiei amor eman bear lendanik eta tolerantzi geiena ukan bear lagunurkoe-kin: onatx, nerantzuke nik, lenbiziko urratsa. Lenbiziko urrats au gabe uts genuke bearkizun ura, «guziok bat» ura.

Eztedilla beraz mintza gure baitan setakeria, ez ainbeste kalte dagigun politika sakabanatzallea. Mintza dedilla Abendats, euskotar guziok nolerebait barru-barruan daramagun eta bakoitza bakoizki tau-parazten gaitun Abendats. Orrela bai, nik espero, joko dugula Unamuno euskal «Bizi Naia»ren zitu ta mandatari.

Nik niketz ezin ixildu izan dut Abendats. Indartsuegi dut nire erraietan ixillarazteko, are indartsuago neure bakarrez kolkoguduon menderarazteko. Berak usnarazi zizkidan aspalditxo antzemateok eta agindu igaz anaiartze au. Argatik diñotzut liburu onen atari-ataritik:

*Ez naiz ni. Abendatsek  
diardu nibaitan.  
Artxek jartzen dit Miña  
biotz ezpañetan...*

Asiera batean neure buruari «Abendats» ipiñi nion izenorde, ta ortara idatzia dago liburu au, neure abize-nez agertzerik komeni etzitekelakoz. Azkenera, liburuari berari egotsi diot mito izengaia: «Unamuno ta Abendats.» Beñola ezin ba egilleari ere berebat egotsi; eta, milla ez-bai buruan erabilli ondoren, nire ballararenakin gelditu naiz: Iñurritza.

Abendaskiro, bada, au da, maitaro ta gartsuki ta ausartsuki idatzia dituzu onako antzemate, bururakizun, ikuspegi, biozkadak. Batzutan, billobakiro idatzia; egillea Unamunoren billobetako agertzen zai-

tzunez. Bestetan, gurasokiro; arraza osoaren guraso  
Abendats dugunez.

Ez natzaizu beti ordea jardun gaiak eskatzen dun  
eragoz eta sailketaz (distribuzioz). Eztare, iñoiz edo  
beste beintzat, bear litzaken benatasunez, seriotasu-  
nez. Kapituluaren izenburuak eurak, testua errezkan  
etenik gabe asi ta bukatu ondoren, tarteka sartuak  
daude; gaiak, emen banakatzen eta an korapillatzen,  
baitijoaz eta dabiltz, sinfoni batean antzo, barruti  
batetik bestera jauzika, izkuta-agirika.

Barkagarri bekida aitortzea, beste liburu («Abe-  
rriak min dit») aundiago baten itzaurre bezela ekin  
nula enseiu edo nik al dakit ze demontre liteken zera  
au. Argatik, esan bearko, utsegite oiek.

Utsik aundixkona alare auxe leritzaioke baten  
bati: anekdotarik ia batere emen eza. Berariz utzi  
ditut biografi batean derriorreko liraken anekdotak,  
kronoloji ta beste olako zenbait zertzelada. Liburu au  
ezta biografi. Eztu izan nai ere. Bilbotarraren sentike-  
rak eta pentsakerak soilki aztertu nai ditu; edota, zea-  
tzago, beren jokerak, oek duteken euskaltasun alde-  
tik. Gai onekintxe badut aski ta geiegi, arlo berrietara  
barreiatzen asi gabe. Iñortxo ontan defrauda eztedin  
bada, eta arloa geio ta geio estutzearren, mugatzea-

rrren, ipiñi dizut subtítulo: «Bilbotar filosofuaren eta Euskal Aminaren jokerei antzemate batzuk.» Batzuk. Ez beraz danak.

Aatik ere, etzagozkidala sinistun Unamunoren euskaltasunari buruz? Zer egingo zaio, ba. Ez gaitze-la aserre, gizona. Gizalegeak oroitzen digu, alkarrekin anaiki eraman bearrak oroitzen: zenbat buru ainbat aburu. Ta kristau legeak, aldiz: eztugula jo bear etsaia etsai, ala agintzen digu, baizik anai; eztiogula arerioa-ri bere etsaitasuna edo aierkera edoski ta eragin bear, baizik bere anaitasuna, anaitasunik dugun artan.

Iñor guzien aburuak irabazi zai bagaude, jarrai zagun ezer idazteke, jarrai gure betidaniko gaitzean, J. M. Barandiaran-ek zorrotz salaturiko gaitz artan alegia: euskaldunok ez omen dugu argitara nai izaten idazlanik arik-eta au ajegabeko deritzaigun arte, ta orregatik gelditzen omen gera gutxi edo batere idazteke, ta orregatik ostera ez omen diogu alkarri lagun-tzen jakingai bat danon artean auzolanez erdiesteko orduan.

Bestalde, gañera: norgerez pentsatzen dugun pitintxo ez al dugu euskeraz ematen asi bear, ia beti kanpotarren oldozkunak itzultzen baizik ibilli gabe? Edota, pitintxo ori azaltzekotan, zer dala-ta egin bear

dugu erderaz, Orixe-k diñon «kaikukeriak» askatzeko bakarrik euskera autetsiz eta erabilliz?

Dana dala, gutxinaz ere, len baño geixago ezagutuko duzu balinbaite «Del Sentimiento trágico» ren egillea, ta baitare sentimendu ori egilleari senti arazion Abendats. Ta ezta gutxi. Bi-biak baititugu, senitasun ortan, gutxi ta gaizki ezagunak.

Iñurritzak, 1956

## **OARRA:**

Itzaurre au idatzita bi illabeteratsu, Erroma-n Sto. Ofizioko Kongregazioak «Index»ean ipiñi ditu Unamunoren liburu nagusienetako bi: «Del sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos» eta «La agonía del cristianismo». Itzaurre ontantxe aurreratu dugunez, erabaki au ez da batere arritzeko ta bai beinberriz Eliza Amari gure menpetasuna azaltzeko.

Ni nirez etsi ere naiz, 1955an idatziriko liburu au baezpadan ez azaltzera. Irakurri didaten apaizek ordea baietz eta baietz Jainkoaren izenean. Nolanai, azalduko balitz, ez da izango elizbaimen gabe.

Iñurritzak, 1957

# 1. BATENBATEN ITZALA BEAR

Gizaseme eldu bati ez omen dagokio negarrez egoterik. Ala esaten zaigu. Itxusi omen da.

Artara, Erri oso baten literatura beti negar leloan jardutea nekez jo daiteke zearoko dotoretzat, batbateko gain begiratuan beintzat. Ta auxe gertatzen zaio Euskalerrinari. Auxe, geio edo gutxio, euskal idazle ia danoi. Elejiz eta plañuz ari gaituzu, euskeraren edo euskaltasunaren etorkizuna gaitzat artzen degun ala bider. Itxusi, beraz?

Nik niketz, baezpadan kezka ori uxatzearen, bearreko nizun batenbaten itzala; ta onatx Unamunorena bekoki-bekokian. Unamuno dakarkizut lauburu. Arroki dakarkizut, gañera; berariz, itxaroz; aitajaun (padrino) aukerakoa dudalakoan.

Zuk arrazoiz ez didazu agian barkatuko liburu ontako negarjotzearen monotoni garratza, gogaikarria, goibela. Aitajaun zorotzar maitagarriak, ordea, barkatu ez ezik zuzen etsi ta are ederretsi didakelakotan aurkezten natzaizu aren «aur ponteko».

Ta, jakiña, -nola ez pa?- olako, aitajaun andikiak besotan naramaken ezkerro, espero dut bataio txanpo-

nak ere erruz izango dirala gure ingurura makurtzen dakiten euskaltzale guzientzat. Euskaltzale guziona bait da pipi au, negar jotze au.

Euskera ta Euskalerrri: Euskera zarra ta Euskalerrri zarra: onatx banandu eziñezko bi senar-emazte; biak, bat orduko bestea, ilzorian. Ta guk ezin ba burutik ken bizitza atsekatzen digun gertakizun lotsagarri ori. Izu bakar orretzek zerbeltzen eta zorabiatzen gaitu larriz eta aldarriz: Iltzen doazkigula -osabiderik, itxaropenik non?--; ez bekigula gerta olakorik! ez iltzerik! ez iltzerik!... Beti edo ia beti negar asalda bera.

Gogora, bestela, aspalditxoko Arrese Beitia-ren «Ama Euskerari azken agurrak» eta bere «kantu errikoiak»; Kardaberatz, Sabin, Kanpion, Etxegaray-tarren oiur lehenak; Lizardi-ren olerki ta idazlan geientsuak; Orixe-ren poeman bertan Aralar-eko otoitza, naiz sarrera deia; Aitzol, Txomin Agirre, Zaitegi, Andima, Montzon, Jauregi... Nor ez?

Gogora ta azter edozein euskal liburu naiz aldizkari; naiz geron arteko beste zein-nai gizarte solas. Galzori orretxen larrimiña darigu noiznai, etsi eziñik, adi dagozkigun zenbait kanpotar jakintsu ere doluan lagun ditugula. Ez dazagut euskal idazle batñorik, izu



espa ori dardaritzen etzaionik, axalez ezpada beintzat barrenez.

1936 ezkeru mutildutakuok are okerrago ez ote gaituzun nago. Galzoria ere are agiñego billakatu bait da azken urteotan. Guk eztugu ezagun izan eztairik; alarguntza itunena baizik. Ez, errepublika aldiko askatasunik. Ez, euskaltasunaren orduko berpizkunderik; illobi beltzaren zemaia ta otzikara baizik. Idatzi re zer besterik idatzi genezaken arrenkura ta antziña baño?

Akar neigun maiz neure buruari: Tira, tira! geiegi duk orrenbestez. Ez adilla zorabiatu, motell. Itxuraz joka adi. Urte bakoitzaren kurpillak bezela, bizitzak ere bear dik udalenik. Ortaraño aztuko duk ba mundu zabalaren jai ozkarbia? galazi eziñezko ezbearrari lotuta egongo aiz ba gau ta egun emakumekiro intziritiz? Lotsagarri ukek. Setakeri duk. Zentzun geiago, motell...

Ta akarraldi oiek neure buruari negizkion bakoitzeko, ara zer entzun-iduri oi zitzaidan, abotsa norena zanak bat-batez konturatzeke: Zer zentzun eta zentzunondo gero! Akar ori, ori, duk emakumekeri. Ziñez pertsona badanak eztik etsi bear il arte. Ez uka ezerगतिक norgeretasuna. Eutsi betire norgera izateari. Eutsi bizitzari. Bizi Nai! deadar santuagorik etzegok.

Deadar ori izan duk, eta izango ere duk, gizadi osoa-  
ren, eta enderri guzien, eta bizidun bakoitzaren, espa-  
ta arnas ta joran ta elburu ta eragingarri ta lege. Nor-  
bera izan bakoitza! Beti ni izan. Beti nerau. Nerau  
auxe. Nerau gaixo auxe. Gurari ta bearkizun santuen  
ori ukatzea bai, ori bai, litzakela itxukeri, kirtenkeri,  
arruntakeri...

Nor zan, ordea? Nor ziteken, ordea, euskal elerti  
gaixoaren aldezkari ura? Itzik itz Unamunoren itzak  
zirat aiek. Unamuno bera? Euskerari eutsi nai ortan  
ordea etsai gogorrenetako genun Unamuno. Unamu-  
noren filosofia, «gogo barnea» ote, liburuetatik,  
gañezka, zenbait beaztopa gaintituz?

## 2. UNAMUNO, ALDEZKARI?

Itxaropen ortan jo nizun bere idazkietara. Ta egia, ortxe-ortxe, alajaña. Nekez topa ziteken beste filosofo furik, ez geureen artean ez atzerrikoetan, Unamunok bezin zinki giar garratz aldarrikatu ditunik norberean bizi iraun nai dutenen eskubide ta samiñak.

Ederra uraxe! «La cuestión del vascuence» kin otso larruz eta agiñez eraso ziguna, mundu zabalera azaltzean, geuretako bat genun bere filosofiz, izakeraz eta sentieraz. Zearoko euskotar ematen zun eta aitortzen ere zan bere jokera jokaeretan, baita biraoka ta igesika zebilkigunean ere. Bere «yoísmo» edo «ni ta ni» uraxe re ezin gutarrago ziteken. Ta euskal etsikaitza, berriz, danok ain garratz sentitzen dugun etsikaitza bai ausarki agiri zitzaiola! biar edo biarramu lepo eman bear eta iñondik ez etsi nai ortan, ezetz eta ezetz.

Ta beste «eureka», aldi berez: Unamunok gure kontra ditun akar eta aserreak bere filosofiarekin epaitu ta suntsitu zitezken beste iñondiko argumentuekin baño egoki ta bortizkiago.

Lenbiziko zirrara artan beintzat, Unamuno zeritzaidan gure joran-samiñen erdal abots jatorrena, munduz mundu, erderaz erdera, kondairan gora, Euskal Aminaren patroï banderadun... Iduripen ote?

Niri bezela zeritzaion nunbait Unamunorixe re. Baroja, Kanpion, Maeztu tarren euskal jatorria ez baitu (!) ondoren, onatx zer ziñon norberagatik, apaltasun baño egi geiagoz bearbada: «Ta nik, zergatik ez azaldu neure baitako kutixiok? orra ba zer daukadan buruan sartuta: nire arrazak alegia nigan lortu dula bere buruaren kontzentzi ta nik auxe adierazten dudala. » Entzun, jatorrago, maixuari berari erderaz: «Y yo, porqué no he de declararle mis flaquezas? tengo metido en la cabeza que si algo significativo es porque mi raza ha llegado en mí a conciencia de sí misma.»

Eta beste jardurio batean: «Erkideek (paisanoek) niri egotsiriko irañen ordaingarri, auxe sinistra oi dut: beren illobek egunen batez arrazoi emango didatela» (1, 399).

Orra ba nun, etsai gogorrentzat geneukana, nun jeikitzen zaigun bere famaren goretetik euskotarron aldeko albistari; ta nun datorkigun, bere bizar zuri ta guzi, gazteon oniritzi eske. Iduripen ote?

Nik neurez, mutiltzarotixe ukan izan diot sinpati ezingordea bilbotarrari, bere lumaren kirio ta txinpar-ta berdingabea dala bide. Baita susmo txarrik ere, aldi berez, ukan izan diot, bere heterodosi ta euskerafobi badan-eztan ori dala ta.

Orain orratik, orpoz orpo eta liburuz liburu jarraitu diodan ondoren, bere euskal barne sendo zindoa antzeman diodan Ezkero, eztidate berealakoan kendo-ko nik euskaltasun aldetik artu diodan maitasun anpatu arranditsua ta anaiartze pozti eziñixildua ta aldi bereko barkapen zabalena -nola ez ba? barkapen zabalena bai, ez noski bere okerreko irizpideentzat, baña bai irizpide oien jabearentzat. Kristauok kristau diranei ta eztiranei barka bearra diegu, geuretzat Jainko barkapena iritxiko badugu. Okergillei barkapena ta ez okergiteei. Ori dugu lege.

Gure Unamuno! Nai luteke alboerriek beste orrenbesteko gizon bat. «Y qué es lo que es Unamuno esencialmente?», galdetzen du G. de Gandamo'k, bere «Antología epistolar comentada» n (II, 63). Eta bertan darantz, Unamunori berari frasea ostuz: -Pues «nada menos que todo un hombre.»

Euskeraz nolerebait esan: «Ez batere gutxiago, alegia: bera beteko gizona.»

### 3. GERAU, IZENA JATEN

Ez al da beltz? penaz galdetzen nator azken urteotan, bai amaika aldiz, Unamunoren euskotasuna jo uste dudan ezkeror. Ez al da beltz? orrenbesteko gizon ori euskotarra izaki, ta euskalduna, euskera ikasten ogei urte jarduna, gurea izaki jaiotzez, odolez, sentieraz, izakeraz, joranez, ain gurea gero, liburuon dakuskegunez, ta alare guk gerok onen gutxi edo batere ez ezagutzea; ta dazagutenek (au okerrago!) bere izena ixilpean lotsaro gordetzea?

Julian Marias-ek:

«Y si pasamos a su actuación política, encontramos el mismo fenómeno: sus partidarios y sus enemigos no supieron nunca a qué atenerse respecto a él; sus afinidades y hostilidades fueron siempre equívocas, aunque con un núcleo -quién lo duda!- de sentido profundo, que casi nadie se tomó el trabajo de desentrañar». (Filosofía actual y existencialismo en España, pgna. 64).

Aurrerago galdera eramanaz: Ta nondik datorkigu geuretar zenbaitzuk Unamunori dioten argaiztoa? Nondik, ditzazken ajeak besterik ez ikusi nai ori? Frankotarrek dioten argaiztotik bertatik etorritako kutsua ez ote? Ez ote, euskotarregi dalako? Euskotarregi bai, bere españiartasunean bertan ere! Ain iruzurtuak izan ote gera ba ontan ere euskaldun gizajuok? *Voe victis!* Ez ote, lurra juoi damaiguten beste ostikada, ta ez xotillena?...

Gorde gaitezen, are ta are galdetzetik. Obe dugu gaurkoz dollorkeriaren sustrai billa barrunegi ez jo, ta arazo ori geroari utzi.

Oraindik oraintsu, Gipuzko Aldundegiko liburutegitik Unamunoren margo irudia, al dakit noiztandik an zintzilia, kendu arazi egin ziguten, nardagarri batena bailitzan.

Salamanca-ko Unibertsidadearen zazpireun garren eztaiak zetoztela, erabaki zuten Unamunori gorazarre egitea ango irakasleetan garaiena auxe zalakoz; ta or jeiki zan gure Pildain ezetz eta ezetz omenaldia galerazteraño, ortodosiarekin ark zitun akatsak eta bost salatuz.

Arrazoi zun Pildain-ek bere alderditik. Jakiña baietz. Katoliku fededunaren menpetasun itxua ta

«askepentsalari» orrena eztira zain bereko, eztatoz erara.

Bestaldez ordea, ainbat eta ainbat kristau balore latz eta ulertezin, naiz liburutan naiz norberagan, sentimenduz ederretsi ta erein, plazaratu ta defendi, bizi ta biziara zi ziturak; ta aldi berez, askotxon iritzirako Nobel saria Españiko edozein idazlek baño dinkiago itxaron zezakenak; ez ote zun merezi ezertan omenalditxo ori? Ezertan ere ez? Ez merezi iñondiko aldetik?

Aitzol-ek ere, gure Aitzol-ek, «La muerte del euskera» liburuxkan Unamunorentzat ditun orrietan, onen oker utsegiñak baizik ez daragertzi, nunaitik begira ta re onen euskotasunak naiz gizatasunak alde onik ezpailu.

Aor Maritain Lutero-ri berberari laudorioka, onek laudagarririk dun artan. Aor katoliku idazleak zein baño zein berebat egiten onik duteken guziekin: Aristotel, Platon, Ortega y Gasset bera, Freud bera... Agi danez, gure Unamuno eztago ezertan onartzerik; ez euskotar, ez españiar, ez kristau bezela. Alako ustela, nunbait, azal eta mami. Ez al dan beltz!

Beira: guk gere aldetik ortaraboko etsaigoa badiogu, etzagula tiste beste aldeko azalzuriek maitazarre ziñago izango diotenik; ezpaitote aztuko, nekezago



barkatuko, bein aretxek jatorki antzemana ta jatorkia-  
go itzemana:

-«Venceréis pero no convenceréis!»

## 4. ERIOTZ AURREKO GERTARI BAT

72 urtekin il zan, 1936 ko gabonillaren 31 ean. Ain zuzen! 1936 ko azken eguneantxe; mende erdi ontako gure etorkia bi zati ondo berezitan erdibitzen dun gaingune artantxe, il «eusko abendaren kontzientzi» bere burua jotzen zuna.

Gudate sortu berriaren euskal biktima, auxe ere? Andik illabete batzutara Bizkai mendi eta espetxetan jausiko Aran gudari» anai sukartu aietxen aitzindari ta zorikide?

Baietz darantzu bat baño geiagori itzetik ortze jasotako gertaritxo onek. Ta... «se non é vero, é bene trovato».

Salamanca-n gerta omen zan. Eriotz aurreko gabonak omen ziran. Mai batean bazkalkide: Millán Astray begibakar besamotza, gure Unamuno naiko abaildua, ta beste asko. Brindis orduko itzaldian Millán Astray-k izarretaraño jaso omen zun militarrek korapillo guzientzat oi duten erabakipena, erabakitzen bakarra, azkarra alare: tiroka, tiroka txautu bear zirala alegia antiespañiar guziak, erruki gabe.

Millan Astrayk kirtenkerijasa atertzean, maikideek eskatu alkarren leian: mintza zedilla Unamuno. Erretore zarrak, jeiki bear ba ta, jeiki omen zan, alako batez, ondo gogoz kontra badare, ta ekin botatzen bere aletxoa, ez makala auxere; españa ta anti-españa biak bat zirala alegia -aska omen zunta bi-bi oiek gabe etzegola osotzerik España Aundia.

Askatu bazun, askatu. Etzun aurrera jarraitzerik izan, bere pentsakeraren naiz euskal anaien alde ederki zijoaken asi jarduna. Millán Astray erretxiñak, begi bakarretik amorru aña zemai jario, garrazki eten omen zion: Abajo la inteligencia!

«Bera adimena!» Polita kontua. Zuzentasunak, zentzunak, jakintzak... aboa itxita ixillik egon bear zuten nunbait, burua makurtu besterik etzuten egin bear nunbait; militar pistolarien dogma utseziñak itzegin agindu bear zun soilki. Gallego-koteak bere kankarraren gisara nai zun nunbait España: begi bakar. Eta, bere soin zipristinduaren eredura, bala ondo josia nai España, balaz eta ez ideez.

Gure Unamuno total-motel tenkatu omen zan, margul-mintzul gizajoa, txintik jarraitzen ausartzeke. Arrezkero, ez omen zun egun onik izan gizajoak, arik eta beingoz, egun gutxi barru, begi-ezpañak itxi ta

burua makurtu zun arte. Makurtu... ez ordea tiranuen ezpatari kobardeki, eriotzari baizik; gezur oron illobi ta egi oron aterpe izango zitzaion eriotz ezilkorgillari: arixe soilki menpetu bere buru-bekoki zindo zutia.

Zer gaitzek, zer naigabek, atxitu ote zun? Orra amaiek galdetzen duten eta iñork oraindik garbi urratu ezin dun misteriu. Zergatik ordea misteriu? Zertarako? Zeren bildurrez? Medikuak «derrame cerebral» aitor eman zun. Lenagotik sufritzen omen zun «biotzeko neurosi» dalakoa. Bere alaba Felisak oraindik orain Granjel Irakasleari aditzen eman zion:

-Nire aita ikaragarri «aprentsibua» zan. Aragón jaunarekin izketan zegola batbatez gorputz gelditu zan. Bere azken itzak oetxek izan ziran: «Jaungoikoak eztu abandonatuko España.»

Buenaventurados los limpios de corazón, porque ellos verán a Dios! Decid vuestra verdad siempre, y Dios os dirá la suya. Y veréis a Dios y moriréis. Porque dicen también las Escrituras que quien ve a Dios se muere. Y es lo mejor que puede hacerse en un mundo de mentira: morirse de ver la Verdad (I, 800).

Orra zuk esan, Unamuno, «zure egia». Esan eta eman, nobleki, trebeki, iltzeraño. Esan deizula, ordañez, Jainko onak berea. Ta eman bere ezilkorra. Berekin zaitzala, don Migel! Eta gurekin ere bai! Agur.

## 5. BERE ZINTASUN ASERREA

Beñola, orra ixillarazi euskal kontzientziaren lendakaria, ta pake. Pake «santu», gañera. Ordurako, aldi berez, ixillarazia baitzuten euskal kristaudiaren lendakaria ere, Muxika gotzaia; ta ixillarazi erabat, beste amairu apaiz jatorrenetakoen lagun, euskal literatura-  
ren lemazaia: Aitzol.

Arrezkeroko eligizonek, gobernuaren eskumakil, ebanjeli osoa predika bearrez, uzten zitzaien laurdena besterik ez aipatzera uzkurtu bearra izan zuten, sorterrian geldituko baziran. Unamunoren liburuek orratio eztute amor emango, eztira uzkurtuko, or ariko dira, zinki ta zorrotz, ukabilka ta makilka, Jerusalemgo merkatariak astintzen eta dantzatzen. Eztute barkatuko sabelzuri irabaztunik. Ez gezur estalkirik: «itzak eder eta egiñak lander.» Xede arau ortako abo ustelik eztituzte pakean uzten danak banan banan narrugorritu gabe.

*Contra esto y aquello* dizu liburu batek izen. Izen-dun onek aña dizute izana ostantzeko guziek ere, batek aña beste edozeñek.

Unamunori uka leioke ontan edo artan egi edo arrazoirik. Setakeri gabe, lapurkeri gabe, datorkion iñortxok eztio orratio ukatuko zintasunik.

Zintasun gorputz betekoa digu beti. Zintasun gordiña. Maitasunak edo beintzat obetu naiak eragiña, ironi txorrotx eztenkorrenez ari zaigunean ere. Baña alare gordiña. Zintasun ausarta, trebea, noblea, gañera; gure artean beste gutxik, nik uste, añako ausarta eta noblea; iñortxori ezergatik azpilduko etzaiona. Galtzairu zindoaren zindoduna: autsi lenago, bigundu baño.

Orra bere siniskaia, joka-araua: «vale más el error en que se cree que no la realidad en que no se cree; que no es el error, sino la mentira, lo que mata el alma» (I, 786).

Ta, nire gardiz, zintasun aserre orixe du batezere bere liburuen gantzu piper bizkorrena. Orixo baitipat, jakite zabalez eta berezko txairotasunez gañera.

Ezin gogoratu diot enseiu, nobela, poesi edo artikulatu bat bakarrik, siñeskun onetxek barru-barrutik iñutzen eta sukartzan eztionik azal eta mami:

«Estoy persuadido de que si la absoluta veracidad se hiciese dueña de los hombres y rigiese

«sus relaciones todas, si acabase la mentira, los errores desaparecerían y la verdad se nos iría revelando poco a poco» (I, 787).

Artarañoko garrantzia damaio zintasunari. Zintasun onetxen faltak galtzen omen ditu laterri, erliju ta gizadi. Nor bakoitzak, enderri edo notin, esan eta eman dezala bere egia, norbere egi apurñoa, billotzik eta osorik; eta danon artean iritxiko gera Egi Osora, Pakera, Jainkoagana. «Nik dut egi osoa» diñonak gezurra diño. «Nik bakarrik benetako aberria, erlijuia, aurrerapena, zibilizatziua, kultura...» diñotenek, berebat. Asuna alakoei!

Idazlan, irizketa, pentsakun, ateraldi bakoitza zoragarri oi zaigu, aupagarri oi zaigu, norgere etsaien aurka egokitzen danean. Baña kontu, zintasun orrekintxe akullua zorrotzuz gere «gezurtxoen» kontra erasoten dionean, nor egon geldi soseguz?

Geiegizkotzat joko dizkiozu agiz zenbait ateraldi; baña, ziur egon, lelotzat sekula ez. Lozorroa uxatzeko, Ortega y Gasset baten aldean, bestelako zirrara daragigu Unamunoren joale lakarrak: batzutan tilin, tolesbarrenetan atzimurka; bestetan talan, artara edo ontara deika; ezbearretan dulun, illen piztugarri. Min-



kanpai, dei-danpai ala il-kanpai, orren torre zalaparta aserreak eztu iñor nagitan uzten; danok salatzen gaitu merkatari ta gezurti, geiago edo gutxiago; eztu joko lekarora, baizik ezur ta mamizko biztaleengana, gizarteko nor bakoitzaren errai-erraietaraño, azkon eta sakon, guzion ernarazgarri.

«Berari eskerrak arkitu degu askok gure burua», diño ezin jatorrago Txillardegik bere betiko gizatasun unkiarrienean. Ori mintza ziguneko itzaldia («Unamuno eragille») oso-osorik merezi luke emen txastatzea. Alako giar sendo gogoetagarri baitugu, benetan. Osorik ezin ba ta, ale batzuk txastatzen dizkizut emen, irakurle, gañerakoak ere beren jatorrian («Egan» en alegia, 1957, 3-4) bein ta berriz ausnartuko dituzulakoan, ondo merezi dutenez:

«Unamuno ezagutu duenak ez dauka aaztuzterik, eta alde bazera ala bestera jotzen du. Astindu egiten du, gogor, eta ez dago geroztik txatxukeritan ibiltzerik. Arima-gosea ixiotzen du, dirukeria ondatzen du, ta berari eskerrak arkitu degu askok gure burua. »

«Eragin gogorra du Unamunok. Bere alde ala bere aurka jarri gaitezke, bañan ezin geldi iñor

leen bezela: maitatu egin bear da ala gorroto; beste amar liburu geiago irakurtzen dira, ala ezta lerrorik batere. Ez dago erdian geratzerik; aurrera ala atzera jo bear, eta bertatik.»

«Emendik bere arriskua: eragille izugarria Unamuno. Emendik ere bere birtutea: eragille aparta Unamuno.»

«Askotan gertatzen da, irakurle batek Unamunoren liburu bat artu-ta berak sentitzen zituan gauza asko liburuan ipiñiak arkitzea. Zer adierazten du onek? Gaurkotasuna dariola orain ere Unamunoren lanari. Guziok, bai zerok eta bai neronek ere, sarri sentitu ditugu bere larribideak; bearbada ez arek bezin biziro, baña sentitu bai. Oiartzun zaigu bere abotsa, ta erdibitu egiten gaitu. Zergaitik? Gezurrezkoa dalako? Ez orixe. Ondo egiazkoa dalako, guztiz gaurkoa dalako ain zuzen.»

Ernarazi! urduriak ernarazi! digu xede bilbotarrak zernaitan. Ez patxararik beraz iñork. Ez exerita bapo egoterik. Ez, «aski dut onenbestez» esaterik edo pentsatzerik. Asuna alakoei!

Argatik ain atsegin zitzaion Leon Bloy: ark zekin ark aserraten! Ta ain geza, aspergarri, Anatole Fran- ce: ezpaitzekin bere onetik ateratzen! Zintasun saker garratz onek lagun asko galdu araziko dizkio Unamu- nori baña baita, azkenera, galantak irabazi ere. Ala Marañonek:

«Y por eso, a diferencia de a los hombres bri- llantes pero inconsistentes, cuya estimación se enciende en nosotros como un cohete para extinguirse en seguida, a Unamuno, acaso se tardaba en quererle pero, después, el tiempo multiplicaba, indefectiblemente, nuestro amor» (La memoria y la esperanza, p. 183).

«Aserre santu» ori bear-bearreko omen du zinki idazten edo jokutzen dunak, siniskai baten laurdena badare benetan bizi dun bakoitzak; benetan egizale dan nornaik.

Eztaukagu gere bakarrez egi jabe izaterik. Baña egizale jokatzeari nor bakoitzari eska bear zaio barka- tzeke. Orra Unamunok iñortxori estaliko eztigun peka- tua ta aldarri mingotsenez oiukatzen digun bearkizun edo mandamentua. Pekatu: «la mendacidad, la insin-

ceridad», gezurretan jardutea alegia. Ta mandamentu: sinisten duguna esatea, ez geiago ta ez gutxiago; geranak agertzea, osorik eta billotzik: zintasuna.

Zorioneko, zinki jokutzen diranak; Unamunok maite-maite izango ditu! Zoritxarreko, ustez kontrara berariz ari diranak; Unamunok eztitu pakean utziko!

## 6. NORNAIGAN ASERRE BIDE

Ta edozertan, edonorgan, darki aserrerako orpo ta liskarrerako zio. Ikusmira, bestela, bere enseiu ugarie-tako arkibideetan gaiak. Zernaitan idorotzen dizu zeri eraso. Lumari daragion bakoitzean badirudi zartallua-ri daragiola:

Eztigu osorik uzten lagundi, araudi, ertigintza edo dogmarik; laterri, erlijiukera edo ekintzarik; jokabide, elburu, tradizio ala etorkizunik; gutxiago arrandi ta aundi usteko gizontxorik... Ozta asma daikegu eguzki-pean, ark maxia gabeko zirritu bakarrenik.

Bere burua? Eztare. Oiko gordintasunez jalkitzen dizkigu parra-parra, guk gere buruari lotsaz ito gabe egotsiko ez genizkioken amaika ta bost giza auleri. Norberaz kontentagaitza bear du nunbait izan egibilla-ri zuzen bakoitzak, Agustin santuaren arako esanera: Poema sui est omnis ordinatus animus.

Jendea eskandalitzen dala? Anbat obe. Kukildu bearrez, azi egiten da alakotan; dezteratu. Txaloa ta jaramona bai, baña ez erara egoterik eztio eskatzen, eztio desira, jendeari. Eztu iñondik ere nai giza arda-letan izena ta izana galtzerik, ibaiek itxasoratzean

bezela. Ez, subjektua objektu bihurtzerik. Badu bere ixilpea» bere-beretzat, gorde-gorde. Bakartea naiago, populuarekin erabat nastea baño.

Bakarteak, kaiolako leoiari legez, erpe ortzak zorroztu besterik eztio egiten. Kontu, alakotan, zintasunaren kontra obendun giñezkenok; itxura utsaren soñekoz jakiñeko gezurra

estaldu nairik gabiltzakenok. Alakuoi kaiolako leoiak, ortzak erakutsi ezezik, erakutsi ta sar egiten dizkigu gustora, kausk eta mausk, iñoizko griñatsuenik. Esana baitugu: zintasunaren aurkako pekatua, uraxe Unamunoren gardiz, aundiena, burutu eziñena, kaltegi lleena. Pake bai pake agindu zitzaigun Belenen borondate onekoentzat. Eta txarrekoentzat? Oientzat ezta aztarrenik ere. Oientzat... asuna, zango ta ipur.

Kontu, beraz, justizi ta eskubide oro usteko militarrek, oetxek batezere arranea, euraz kanpo abertzale onik ez talako ustekoek. (Ez utzi ez, irakurle maite, oietxei buruz bilbotarraren artikulua mardula: «La patria y el ejército» (1, 769). Kontu jakintsu arroputzek, jokera ta egi zarrentzat diñotenek «beude daudenez» eta berrientzat «alde, nireak etzeratenez». Baitare zenbait katolikuk, mundu guzia belarritik elduta prozeziuan sarrarazi nai omen dugunok. Ez gutxiago, bere-

naz arat beste Españirik, beren molde ta gogarakoa baizik, ikus edo ezagun nai ez dutenek. Orobat politikoek, aberri aipatu-ala arengandik gizentzea besterik kutizi ez dutenek...

Beingoz esan: gezur kukurruku jotzalle ta jozale guziek.

## 7. EUSKALDUNOI BURUZ

Baita guk ere, jakiña, euskaltzaleok ere, kontu San Mameseko leoiaren atzaparkei. Guri itsasten dizkigunak eztira batere legunago, nik uste baietz are minkorrago, naiz baitare milla bider maitetsuago.

Unamunoren euskaltasuna ta euskozale iritziak sakonki aztertu nai badira, eztugu aski arek guri buruz berariz ditun liburu gutxi batzu oiek irakurtzea: *Paz en la guerra*, *De mi País*, *La cuestión del vascuence...* Oetan ez bezin sendo ta jator nabariko dizkiogu beste enseiu nagusienotan: *Vida de Don Quijote y Sancho*, *El sentimiento trágico de la vida*, *La crisis del patriotismo*, *La crisis actual del patriotismo español*, *Más sobre la crisis del patriotismo...* ta beste abarretan.

Euskotarrok aipa bear gaitun bakoitzean, luzaro ezin gorde du bere arrandia: *mis paisanos*, *mis hermanos de raza*, *mi estirpe*, *mi casta*, ta abar. Beti anaiki izendatzen gaitu. Anaiki baño re aitonki.

Billobatxuok oso azkarrak omen gatoz. Gauzak benetan artzen omen ditugu. Erbestearrak gu bezin benak balira, bestelako jatorra omen litzake gizadia. Biarko batean, aitonak nai ta uste «bezela» gizon



egin go geranean, ankapetik eramango omen diegu maketuei: Españiko aginpide geienen jabe izango omen gera, jabe ta lemazai izango omen, guk ditugun gaitasunekin; ta nork daki zer, Españiz aruntz, mundu zabalean ere (1, 811).

Ortarako, ordea, aitonaren aolkuari jarrai bear. «Imponéos!» , otsegiten digu, kontsejatzan jarri ala bider. Nausitu zakizkie! Irten kanpora! Zuen euskotasuna sarrarazi alboerrietan! Etzaitetze giltzapetu euskeraren leizebarru estu itoan (Orra ba, enetxuok, orra, euskaltzaleok barkatzen eztioguna, korapillo guziaren kakomakoa, arrazoi badun eztun geroxeago galbaritu bear ko duguna.) Erderari txertu berria egotsiz, zabaldu! Zabaldu Españira! Zabaldu mundu guzira!

Baña, or dago ba, bai buru gogor billoba demon-treok. Ez etsi nai ezergatik. Aitonaren «arrazoi etara» makurtu bearrez eztira ba gero ta setatsuago itsasten beren sentipenari, beren euskerari?

Kankar gogortxo gerala? Eztigu ezer berririk agertzen orrekin. Burugogor bai, ta Jaungoikoari eskerrak. Emen, nagoneko Montevideon bertan, maiz entzuten da: «es más terco que un vasco»;

ta aboz abo dabil izkirimiri au, bearbada irakurleak entzuna, nolanaire naiko aspaldikoa: euskaldun batek

apostu egin omen zun: bere buruarekin iltze bat sartu baietz ondoraño tabika batean. Jator zulatu ere omen zun orma, alde batetik besteraño, begiraleak aoa zabalik zegozkolarik. Ordun arrigarriena gerta. Zulatu bai baña ezin ordea aurrera pasa. Ze demontre izango-ta, tabikaren alderantzitik, beste euskaldun bat omen zegon eutsi ta eutsi, buruarekin ari talkan uraxe re, iltzeari irteera galazten. Alako burugogorrek gu, nunbait, zein baño zein, alderdi batekoak aña beste-koak.

Entzunberri dut beste onako auxe ere: «vasquito» bat ito omen zan ibaian. Gorputza billatzen asi omen Aran, ta ez agiri. Beñola, batek: «Billa zagun ibaian bera, ugaldeak eramana izango duk eta.» «Ez, motel; -zuurragoki jardetsi beste bigarrenak- bitatik bat: edota ugaldearen kontrara juna bear dik edota beste-la ez uan euskaldun.» Alako martinkontrak.

Euskera auzion zu zaitugu zu, Unamuno, ugaldearen aurka juna ta juna, auskalo noraño, aaririk aarien ori. Eozkor ari zera, buruaz eman eta eman, puntapaxa guri sartu naiez. Zaude pixkat. Tabika atzekuok ere, ordea, zutarrak gaituzu gero, Erretore jaun, ari gaituzu gerau ere, ta ez makalagoak, tenkor asko il edo bizi.

Ez, aitona, ez. Ortantxe eztizugu amor emango. Guretzat ere bear du Ebanjelioko arek, zuk zeuretzakoxe ainbat aldiz aipatuak: «zer balioko liguke mundu guzia irabazteak, buruenik norgere anima galtzekotan?»

Betikotasun goseak «zerau» orri dariokion irrits aldarria, irrits aldarri berbera, baitariokio gure Erri euskeradun «berau» onixe ere: Bizi! Ez il! Bizi! Beti!

Ta ona emen guk berari ta berak guri barkatzen eztioguna. Euskera auzi orixe duzu, ta ozta besterik, Unamunok gurekin dun aserre bide bakarra: euskera utzi ala eutsi? ta aortiko ondorenak.

Gure kasketa au itxukeri omen da, koldarkeri, etxe zulokeri, kaiku izate... ta nik al dakit zer geiago. (Alare! ez omen dugu, orratio, hipokresi edo olakorik. Argatik, alaz guziz, maite-maite omen gaitu.)

Tankera ontan, ark emanda guk artu ditugunak! Agitz ezagutzen gindun. Bere odoleko, bere ezpal-ezpaleko bait gindun. Ark jakin zerk nun minberatuko gure kilika. Eztut uste beste iñork txorrotxkiago min eman digunik, auzi ori dala ta. Ark guri; ta guk berari.

## 8. SENIDE ARTEKO UMEKERIAK

Ta guk berari.

Jugo! Jugo! gogorazten zioten, naiko gaizto miztoz, Bilbo ta Donostiko izparringi ta aldizkari abertzaleek, aipua eman bear zioten bakoitzean, bigarren abizen au maketoarra bailu: Don Miguel de Unamuno y Jugo.

Jostorrazaren zastada gozoago zitzaiokeen erki-deengandiko gogorapen izpiño ori baño. «Amasei saietsaldetatixe nazute euskaldun», amaika bider otsegiña baitzigun, bere jatorria, beste zenbait euskotar idazlarienen aldean, garbitzat joaz. Ta orain mundu guziak jakin bear, ixilpean obeki zegoken abizen ain zoli ez ori; orain Españietako naiz Ameriketako irakurleek antzemango ere nola euskaldunek zearoko euretartzat artu nai etzuten...

«La selección de los Fulánez» idazlanean naiko irri ta jolas egin ondoren Fulanez eta Menganez-tarren bizkarretik, arroki amaitzen du jarduna, ez barkapena aierixe baezpadan eska gabe: «biotzez zuen zerbitzari, Unamunotar Mikel». Ta... tok orain, edan zak orain, maketo jugo ori, arronkak sendatzeko: Jugo! Jugo!

Ori bat. Ona bigarrena. Gizanditzat zeukan oso bere burua, nola ez! Izan ere bazala eztaukagu guk aldarrika bearrik, berberak ziñemana baitigu oi zun apalgiroz: «dicho sea con la modestia que me caracteriza». Ah, bai? Gizandi, beraz? Ta... ire billa zetozen zenbait abertzaleengandik larrua babestuko baun tren bagoi batean kuzkurtuta gorde intzaneko artan, orduntxe re, gizandi? Ala kakalardo?

Bein baño geiagotan, egi dan gezur dan erabaki gabeko uresne ori txurruta bear izan zun goizeko gosari, periodikua irakurtzean. Ta jakiña: zun baño re urdail ohea bear alako gosaria ez gazitzeko.

Alabaña, bazizun oraindik irugarren listorra kolkoan zurrunburrun. «Erlakizten» ori sekula ezin kendu izan zun, gutxinaz zortzi-amar asazkalditan -beste ainbeste idaz saiotan, esan nai da- sendatzen alegiña egin arren.

Bilboko Lore Jokuetan (1901) itzaldi bat eska zitzaion. Pozik artu ere. Orain diat nirea -esan bide zun- sorterritarren aurrean epifani egiteko. Euskerari buruz auta zun gaia. An ustu zigun prasta prasta kolko saski osoa, euskeraren eriotz eske, guri dagokigun kulturarako oztopo genula ta. Ain gordin etzun sekula

itzegin euskal seme batek; ezta entzun ere euskal belarriek.

Epifani ederra! Euskera gaixoaren atarramentua trixtea izan bazan egun artan, bera, gure Epifaniorena, etzan batere gozoago izan.

Don Migelek jaulki ala «arrazoi» ri bilbotar jatorrenek ao batez zaputz egitea etzan aundi, naizta bai mingarri; baña etzioten ba txalo ta txalo jo, nortzuk izango-ta! azken orduz bilboratutako txorrotzalle ta pana galtzadunek? ta nola ordea txalo jo! eskuak lertzeraño, ofizioko txorrotxalle txinparta jarioan alajaña? Nire Euskalerra maitea jaso ta obetu bearrez mintza nik mintza nitunak; eta, ez aberri ta ez lotsa gabeko alproja trakets aiek, landerkume bekaizti aietxek, niri eskuzartaka? «Beren pentsakera ta sentiera Españitiek beingoz suntsitzea besterik nai ez nieken» aietxek niri aupak eta gorak? Ederra atarramentua! Azkenean, uste ezenik, errekekume aien abogadu ta salbatzalle billakatu ni, ni, Unamunotar Mikel?

Artutako masallekoaren gorria nolerebait txuritu bearrez, maiztxo borobildu nai izan digu gertaria: «lagun mamiñen nardak baño re beste orrek eman zidan min: neure etsai amorratuñen txaloak. Ezpaitziran esku lertze aiek nire alde jartzeagatik izan, bai-

zik bilbotar jatorrenen sumiña sumiñagotze arren» (I, 741).

«Erlakiztenak» alare luzetxo iraun zion sudur puntan; illobiraño eraman bear izan zun gizajoak berekin; jeltkideek, iñoizka igurtzi bat edo beste emanek, senda bearrez berritzen baitzioten.

## 9. EUSKALERRIARI BURUZ

Sendibarruko umekeriok utziki -alkar estimatzen diranen arteko umekeriak baitituzu, antzemana duzunez- gatozen jadanik Unamunoren Euskalerriri buruzko gogakunera.

Nolakoxe Euskalerrri nai luke ba Unamunok? Orra, erabat garbi lenengotik ajola bear digun galdera bena, soilla.

Erantzuten asteko, *Vida de Don Quijote y Sancho* ko kapitulu bat, I zatiko IX garrena, aukera ta itzuliko dizut. Or iraultzen, digu, biziro ta giartsu, bere pentsakunaren muña, euskotar dalako maite arroak sortu dion elerti orri ederrenetako batean. Ederrenetako ez-ezik naiko xelebrea ere. Don Kijote-k eta bizkaitar zaldunak izandako alkar artze eguñdoko ura, uraxe, dizu izpide ta iruzkingai.

Ortarako adierazia digu Unamunok beste liburu batean: «Don Kijote-ri artu diodan ezaguera aundiago onek erakutsi dit aren espirituak aldegin zula Gaztele-rritik, aldegin Españiko erdigunetik; eta baldin penintsulako eskualderen batean oraindik bizi bada, nire euskoterrian bizi dala. Argi ta garbi antzemana dut ori



*Don Kijote ta Santxoren bizitza* antolatzean. Liburu ortan erruz jakiñarazia baitut nola fedezaldunaren bizitz auznarketak egi ontaz jabetuarazo nauen: asko itxaron bear dala, alegia, nire eusko abendarengandik.»

«Una mayor familiaridad con Don Quijote me ha enseñado que su espíritu emigró de Castilla, de la España central, y si en alguna parte está en la Península -fuera de ella alienta en buena parte de América-, es en mi país vasco. Así lo he visto al componer mi Vida de Don Quijote y Sancho, en la que se trasparenta cómo la meditación de la vida del Caballero de la Fe me ha dado conciencia de lo que ha de esperarse de mi raza vasca» (I, 742).

«Si queremos hacer valer nuestra personalidad, derramémosla, estampando su sello en cuanto nos rodea. Hagamos como aquel a quien le sobra. Tengamos también los vascos nuestro imperialismo, un imperialismo sin emperador, difusivo y pacífico. Rebasemos de la patria chica, chica siempre, para agrandar la grande y

empujarla a la máxima, a la única, a la Gran patria humana. Las murallas chinescas, materiales o espirituales, totales o parciales, son de pueblos que han perdido la fe en sí mismos» (I, 741).

Don Sancho de Azpeitia deritza gure bizkaitar zaldunak, Don Kijote-rekin liskarrean sartzekoak. «Erdera okerrez eta euskera okerragoz» -diño Cervantes-ek- mintza omen zitzaion Don Kijote-ri. Onek, argatik nunbait, e-tzun ura artu zalduntzat. -«Ni zaldun ezetz?», jardetsi bizkaitarrak, irainduaren sutan. Ta orra, «bi kijote», burrukarako prest, bata besteari aurrez aurre...

Emen, agindu kapitulua asi aurretik, entzun Unamunori: «Egia -diño-, berandutu egin gera Don Kijote-ren izkuntza ikasten. Are geiago berandutuko oraindik gere giñora aisa erabilten. Alabaña, onezkero ontan orratio, orañarte mintzula izandako gure espiritu au erderaz ematen asi geran ezkerro ontan orratio, entzun bearko diguzute!... Tirso de Molina-k zerbaitegatik arako ura: «agintzen dizudan burnia bizkaitar duzu: itzetan labor, egintzetan luze». Gure egitapen luzeen neurrira gure itzak ere luzatuko ditugunean,

bai alafede, entzun bear ko diguzute, entzun, arranoak ezpadu!» (II, 114).

Euskaldunok zaldun bageranentzeko auzi ortan, berriz, eztu Unamunok ixillik igaro nai baietz irmeena eman gabe. Itzetik ortzera darantzuio Don Kijote-ri; liskarra asi aurretik jakiñarazten dio, gañera, baezpa-dan; ez dezala uste Don Kijotek, liskarra -jainko epaia dalata- irabaztearekin, guri leñargia ukatuko digunik; liskar aurretik Azpeitiko Santxo jaun zaldunari arrazio osoa zor eta biur bear zaio: gure leñua besterik ez bezelako ta añako da, ze demontre; albo erritako leñuen sorburu ta jatorri, gañera.

Eta bereala Unamunok euskal nobletasun punte-rengoaren alde zenbait idazkun, Don Kijote-k bere bibliotekan bazeuzkalako ezagunak bear zituzken aie-takoak, oroitarazten dizkio:

«No conocía Don Quijote las palabras de Don Diego López de Haro, tal cual le hace hablar Tirso de Molina en la escena primera del acto segundo de *La prudencia en la mujer*, cuando empieza diciendo:

Cuatro bárbaros tengo por vasallos  
a quien Roma jamás conquistar pudo,

que sin armas, sin muros, sin caballos,  
libres conserva su valor desnudo?

No sabía aquello que había dicho Camoens en  
la estrofa oncena del cuarto canto de sus *Lusias*  
*das* de

A gente biscainha, que carece  
de polidas razóns, e que as injurias  
muito mal dos entranhos compadece?

Por lo menos, ya que *La Araucana* de don Alonso  
de Ercilla, y Zuñiga, caballero vizcaíno, era  
uno de los respetados en el escrutinio, tuvo que  
haber leído aquello de su canto XXVII en que  
habla de

la aspereza  
de la antigua Vizcaya, de do es cierto  
que procede y se extiende la nobleza  
por todo lo que vemos descubierto.

(II, 115)

Beñola bai, euskal odolaren eguzkia ozkarbitan  
ipiñi dugun ezkerro, ta gure Azpeitiar zaldunari zor  
bezela arrazoi eman zaion ezkerro, datorrela orain lis-  
karra, ta IX kapitulu ez aaztekoa.

# 10. DON KIJOTE TA BIZKAITARRARENA

Ta an asi zuten erasoketa. Erasoketa edo, merezi dun garrantzi osoa eman ez Cervantes-ek IX garren kapituluaren izenburuan deitzen dionez: mantxego trebeak eta bizkaitar bulartsuak alkarrekin izandako «combate» egundokoa.

Onakoan, orratik, berdiñak berdiñari eraso dio; eroak eroari. Badirudi, zeru ta lur ta amil jan bear dutela. O, egundoko mireskizuna auxe! iñoizko gizal-ditik iñoizkoren batera baño ikus ez daiteken gudu-ke-ta, onako bi kijoteona: mantxakoa ta bizkaitarra; basamortu arreakoa ta mendi berdeetakoa. Cervantes-ek jaulki digun bezelaxe irakur bear.

Ni zaldun ezetz? Ni zaldun ezetz? Bizkaitar batek entzun bear ori ta Don Kijote-ren abotik entzun! Ezin, ezin eraman diteke olakorik!

Uztadazu, Don Kijote orrek, nire odolatzaz mintza deizudan, nire menduatzaz, nire abendatzaz; berarixe zor baitiot nik ukan eta balio ala, eta berarixe baitare zor zure bizitza ta ekintza senti al izatea.

O ene Bizkai! ene seaska lur nirea, ta nire guraso-ena, ta nire aitonena, ta nire aurreko guziena; ume-tzaroko naiz gaztetzaroko ene bizitokia; nire bizitzako andrea ere aukera nuneko lurra; nire maitetasunetako lur bebeinkatua; zu zera ene animaren biotz! Zure itxas mendiek egin ninduten naizen oro; zure aritz eta pagoz, intxaur eta gaztañondo oratutako lur orrekin-txe, lur orrekintxe bai, dizut oratua nik ere nire biotza, ene Bizkai!

Eztabaidan ari omen zan bein Montmorency-tar bat euskaldun batekin, eta suminki askatu omen zion nire leñutarrari: Montmorency-arrek, alegia, nik al dakit zenbatgarren mendetik zutela etorkia, VIII, X edo XII garrenetik; ta nire euskaldunak jardetsi: «Ta zer? guk euskaldunok, gizona, eztugu noizdanirik.» Ta ez, eztugu euskaldunok noizdanirik. Euskaldunok ausarki dakigu zeintzu geran, zeintzu izan nai dugun.

Jabetu, Don Kijote ori; euskaldun bat duzu, gero, zure billa Mantxa-ra junda, zaldungoa uka diozulako jarki zaitzuna. Ta nola ez beste bein gogoratu, onako euskaldun, eta Azpeitiko, onen aurrean, beste euskal-dun zaldun ibiltari ura, Azpeiti-koa uraxe re, Oñazko Yanez eta Balda-ko Saez-tar Eneko, Loiolako etxagua-rra, Kristoren gudaloztea edo lagundia irazi ziguna?

(zure euskotar mendu osoa ez al da aretxengan gallurtzen? Ez al dugu gure Gizandi? Euskaldunok ez al dugu geuretzakotu bear?

Bai; gure, txit gure, erruz eta erruz gureago jesu-lagunena baño. Loiolako Enekorekin Erromako Ignazio egin digute oiek; euskal gizandiarekin, santutzar jesuitiar bat egin. Ondikoa, gizandiaren azpiko mandoa!

Azpeitiko Santxo jaunaren mandoak ere, bizkarra korkoilduz, lurrera eratxi zun gañeko bizkaitarra; ortik ikasi bear dugu zalkotzeke burrukatzen. Orretxegatik galdu zun bizkaitarrak liskarra; ez noski bere besoaren mengelez, ez kemen gutxiagoz, baiziketa bere mandoaren erru utsez. Ez izaki ba mandoa bizkaitar! Mando madarikatu uragatik izan ezpalitz, larri ibilliko zan bai Don Kijote, zaudete ortan ziur, eta ikasi bear-ko zun bizkai burniaren aurrean, *itzez motz eta egitez luze* dugunez, itzalkiro erabetzen.

Ikasi ortik, nire odoleko anaiok, zalkoa utziki burrukatzen. Jetxi zaitezte mando zarpatzu kaskallu gañetik. Bere gogoko bideetatik baitzaramazte tringili-trangulu, ez zuen eta nire bideetatik, ez gure espi-ituarenetatik; eta bere korkoilketekin atarrapuzka botako zaituzte lurrera, Jainkoari bestela ezpadakio.

Utzi mandotzar ori ezpaita or jaioa, eztare orko lurretan bazkatua, ta goazen danok espirituaren jau-  
rerriaz jabetzera. Oraindio nork daki Jaungoikoaren  
mundu ortan guk dagikeguna.

Ikasi ortik, aldi berez, zuen gogoia kulturazko  
izkuntza batean mamitzen, gure abasoen millaka  
urtetako utzirik; jetxi aguro mando gañetik, eta gure  
espirituak, geure-geure menduaren espirituak, izkun-  
tza ortan, Don Kijoterenean, mundu guziak inguratuko  
ditu, gure Sebasti Elkanok Lurbirarekin lenbizikoz egin  
zuna berrituz: Elkano, Getariko seme sendoa baitugu,  
ta Getari, gure Bizkai itxasoaren alaba.» (II. 115)



# 11. BERE EUSKOZALE IRIZPIDEAK

Lerruok beren esan nai sakonenean aztertzen ditunak, beste liburu ugari bakoitzetara barreia bearririk gabe antzeman dezazke Unamunoren euskotzale irizpideen kimu nagusitxonak. Naizta norgere aburuon mandogañetik jetxi nai eztugunontzat espantagarri iduri, orra eman, estalki aundirik gabe, bere gurari gogakunak: utzi zagula euskera; utzi zagula klerikalismua; izan gaitezela geratu, Loiola-ko euskal lensemearen anai, kideko; ez gaitezela atxilotu gerebaitan; ez ditzagula konkortu etxezulo epelean gure gaitasunak; jo zagula mundura, mundu orrek gurea ere bear dula ta...

Agirian dago nabarmenkeri askotxo dagokela irizpideotan; baña ezin uka, barru-barrutik nolabaiteko euskotasun sendoenak sorrarazi dizkiola. Hereje batenak dira, Españolista batenak dira. Baña baitare euskotzale sutsu ero ameslari batenak, aldi berez.

Etxeparek euskerari zegion aldarriak ausarta bazi-rudin, onako Unamunoren megalomania ez da batere

motelago: Euskadi, yalgi adi kanpora! Euskadi, abil mundu guzira!

Ikusten danez, Unamunoren abertzaletasunak, edo euskotasun goseak, geurona bañore areago dama. Nolabaiteko jomugaz eta arroz, arago dijoa: Españiaz beraz lendanik jabetzeraño, ta gero lurbiraz. Ez du nai «geu» izatea galtzerik; ez orixe, balinbaite; baña ezta-re «geutasuna» kutxan gordetzerik.

Geutasun ori ez omen dago, ta ez omen daukagu, azi ta mardulagotzerik, alboerrietara eramana ezta txertatuz baizik, Seme geiago ditzakegunean, ordun gindezke gurasoago, ordun geruago.

Unamunoren aundinaia, gutxinez, gure antziñako lurbilatzalleena, santu ta itxasgizonena bezain esigabea badala esango litzake: ondo *kijotiarra*, askirik gabea, «zeru ta lur ta, amil jan bearrekoa».

Senide artean anai batek -diño-, besteak gauza eztirala oartzean, ez du esan bear: «ots, ni zuekin ezin nindeke bizi ta banoa etxetik», onela baizik: «tira! zuenak egin du; orain nik aginduko dut emen» (I, 741). «Espiritu kulturazko bizitza sakonerakoan Españían erririk gaiena Euskalerrri dugu; ni ortan nago.» (I, 743).

Argatik guri tai gabe: «Zer ari zerate, jaukitzale (invasores) diralata? Ez al gera gerau ere? Jaukiak edo azpiratuak izan nai ezpaduzute, azpiratu zeok; gallenduak izan nai ezpaduzute, gallendu zeok.» Ukigabeko abenda geralata, ez gaitezela neskuts geldi; erridi bat eta besteen ernalketa naitaezko ontan, guraso bear dugu izan; guraso ar, ez eme. Gogoan jaso, ostera, eztugula oraindik buka, ez osa, Españiko «errekonkista»; oraindio taifak dauzkagu Españian, txautzeko; beduinismua oraindio, suster-susterretik jorratzeko».

«Qué es eso de invasores? No lo somos nosotros? Si no queréis ser invadidos, invadid; si no queréis que os absorban, absorbed; todo menos cerrar las válvulas y permanecer aislados. No guardéis una absurda virginidad de raza que nos prive de la maternidad, de la paternidad más bien. Padres, sí; que en este inevitable y fecundo encuentro de pueblos seamos el varón, no la hembra. Tened, además, en cuenta que hay que acabar y completar la obra de la Reconquista española, desarraigando las taifas que aún nos quedan, extirpando el beduinismo» (I, 742).

«Españiko istoriari orpoa kolokatu egin zaio, kolokatu baño re jun; ateorpo berria erantsi bearra diogu» -zesaigun Bilbo-ko aipa itzaldian.

Berebat geroztik atertzeke: «Ken, Gaztelerriko ardatz ori ken Españiko politika gurdiari; mendetan erdigunetik saietsetara agindu izan zaigun bezela, gaurgeroz periferitik erdigunera bear du nagusitzak» (I, 741).

Gure egunetako Españiak dakarkin krisi gogorren erro-erroa auxe da: gezurrezko oñarri gain gauzak eraiki nai. Ta arau zuzenak kontrara bear du: pentsatzen dana mintza, oldoztu bezela aldarrika; artara, bata besteen jazarkan gabiltzanok ere, alkar ezagun-go genuke, ta alkar maitatuko» (I, 748).

Ta, ondorenez, ezaguera zabal maitasuntsu ori eskatzen die espāñiarrei beretarrentzat: karlismuarentzat eta bizkaitarrismuarentzat. Bi-biak, bata bestearekiko aita- seme ta bakoitza beren egunetan euskal animaren emaitz diranez, maite maite ditu Unamunok; eta zenbait axaleko kimakizun edo agar gaiztousteko epaitu (moztu) ondoren, neurripe batera darakartzi, molde batera txastatzen ditu, bi izeneko bi alderdiak izate bakarrera bilduz, beren euskaltasune-

ra bilduz alegia, ta sendi fisonomi edo arpegiera berbera biei artuz eta joaz.

«Españiar politikoez ez ditzatela ba begi-ezpañak itxi bi partiduon barruntasun onak sogiteko ta aitor-tzeko. Duten leñargia, garbitasuna, zindotasuna ta aundikitasuna billa bear zaie ta argitara jaurti» (I, 749).

## 12. KARLISMUARI BURUZ

Karlismuari buruz onatx Unamunoren ale auznargarri batzuk, auznargarri bai, itxutan irentsi ta sinesteko ezpaderizkiegu ere:

«Joan eunkian euskaldun eta naparrak iparretik, kataluniar eta balentziarrak sorkaldetik, ortxe ortxe egon ziran, bi bider egon, beren gogokera Españi guziari egosteko. Zertxobait irakas bear digu jazokun onetxek: atzoko karlisten lurraldeak ditugula ain zuzen gaurko separatisten sorlekuak. Konturatu beraz: atzoko «rejonalistak» eta gaurko abertzaleak, barne-barnetik datorkien Gurari Bakar ito ezin baten seme ta zitu ditugu; zearoko aita-seme, alkarrekin ezin antzago» (I, 745).

«Karlismuaren anima oraindik aztertze dago. Alako batek, nire *Paz en la guerra* nobela irakur zunean, adierazia dit; sinpati omen diodala karlismuari».

«El alma del carlismo está, creo por estudiar; las pasiones de un bando y del otro impiden que se haga ese estudio serenamente. Cuando en

mi nobela *Paz en la guerra* intenté escudriñar algo del alma del carlismo, no faltó quien me dijo que simpatizaba con éste» (I, 745).

«Gaztelerrian eztute sekula ulertuko karlismua zer izan zan; neoklerikalismu edo dalako ori baizik ezpaitote begizta nai». «Galdu bai, orretzek galdu zun karlismua: klerikoen aldetik jokatzek.» «Aldare ta tronu, gurutze ta ezpata uztartze orrek ondatu zun, ta orretzek ondatuko ditu aren oñordeko euskotar naiz kataluniar nazionalismuak ere.»

«Al tradicionalismo vasco y al catalán los perdió, aparte del íntimo egoísmo, de su timidez defensiva, el haber confundido su causa con la causa de los apostólicos esteparios, de los inquisidores del interior. La vieja fórmula unitaria castellana, la de la alianza del altar y el trono, de la cruz y la espada, fue la que mató todo lo que de hondamente democrático, de radicalmente liberal había en el fondo del carlismo vascongado» (I. 746).

Karlismua baitipat auxe izan zan eta onetxek baitipat eman zion alako kemen eta bizkor guna: Españiko liberalismo absolutistari (agintoroari?) zion argaiztoak eta aierrak.

«El carlismo fue, en lo que le dio honda vitalidad una protesta contra el liberalismo absolutista y huero, contra el estado de cosas que surgió del predominio de la burguesía creada por la desamortización -y no porque los bienes desamortizados lo fueran de la Iglesia, sino porque con ellos se corroboró y fomentó el odioso régimen económico actual,- contra el leguleyismo, contra la manía uniformadora y centralista, contra todo lo que fue hacer una nación categórica y a la francesa» (1, 745).

Eta bereala, jatorki! euskal anima barrunaren batasun ezinautsia, ezin ixildua, darager: «Euskalerrietan ere izan ziran liberalik, naro ta onak alare! ondo begiratzen bazaie ordea, liberal aiek maizenez,



Españiko liberaletatik lekurago, urrunago, zeuden etsai usteko karlista erkideetatik baño» (I, 747).

«Gurregun karlismua, nire Euskalerrian beintzat, ez da izandakoaren itzalik ere. Bere indarra, bere fedea, bere bizia, bizkaitarrismura aldatu da» (I, 746).

## 13. JELKIDEEI BURUZ

Maita galda berean dakio euskal abertzaletasunari, an ta emengo idazjardunetan egokitu ala.

Euskal abertzaleok, zearoko aburukide ez gatzazkiola ta, etzazula uste, irakurle lagun, kondenesten gaitunik; guk bere lekuan ziurrenez egingo genuke-  
nez. Ez uste ez ondamera gura digunik. Ugolde oldar  
gañezkorra opa digu, gero ta geiagoka. Eztago gure-  
kin erara izpiz izpi. Baña bai gurekin gogaikide, asmo  
ta elburu mamienetan; eta guk irabaztea irrika digu.

Geuk sinistu eztare, egikizun, bearkizun, nagusia  
omen daukagu, ta ari ere omen dugu! España berare-  
kiko. Mefistofelerena gertatzen omen zaigu Españiari  
buruz: kalte dagiogula guk uste ta on baño ez omen  
dagiogu.

«Se dirá que en ciertas regiones de España hay personas -muchas más de lo que se cree- que en su fuero interno reniegan de ser españoles. Yo conozco a muchos que se encuentran en este caso; pero sostengo que esos mismos, mientras creen renegar de ser españoles, renie-

gan, en realidad, de muy otra cosa, y añadido que es en tales espíritus en los que están cuajando las más fuertes raíces del futuro patriotismo español, sin que ellos se percaten de semejante cosa» (I, 736).

«Gaztelerrriak aspalditxo betea du bere egitekoa: Españiari naiz beste zenbait Laterri txertatu ta itsatsi baitie bere mintzaira. Ez da lortze makala. Dagoneko ordea, Kataluñak bearkizun auxe digu: alegin guzian España kataluniartu; ta orobat Euskalerrik: España egiñala euskaldundu, euskotartu» (I, 749).

«El deber de Cataluña para con España es tratar de catalanizarla y el deber para con España de parte de Vasconia es el de tratar de Vasconizarla» (Ibid).

Abertzaleoi gure elburuen zintasuna digu ederresten lenengotik, jakiña, ta gure erri sustrai askua. «Egoismua» ordea eztigu barkatzen; etxe-zuloegi omen gaituzu; lagunurkoetara gure nortasun aberatsa barreia ta ujoldu bearrez, ofentsibara jo bearrez, gerebaitara biltzean eriotz agiña billatzen dugu.

Ori eztedin, orrelako ezbearrik gerta eztakigun, baiziketa aitzitik billobatxuok irabaztun eta garaille jeiki gaitezen, onatx emen aitonak oalkua ere, Ebanjeli ta guzi, bere betiko leloan: «Bere bizitza salba nai dunak galdu egin bear du» (I, 747).

«Si el catalanismo y el bizkaitarrismo no se limpian de su conservadurismo y su eclesiasticismo, fracasarán en su inconsciente intento de reconstruir la patria española sobre otras bases, o, mejor dicho, sobre las viejas bases, sobre sus primitivos cimientos históricos: los anteriores a los Reyes Católicos y a las casas de Austria y de Borbón. Y llamo a ese intento inconsciente porque, tanto catalanistas como bizkaitarras, creen -aunque no siempre lo confiesan en público- que no conspiran a reconstruir, sino a destruir la nación española. Mas les sucede lo que a Mefistófeles que queriendo hacer el mal producía el bien. Así ellos» (I, 747).

Don Migel onek ematen dizkigu azak!

## 14. GUGANDIK URBILLEN

Joan mendean eusko liberalak etsai usteko karlistetatik urbillago omen zeuden Españiko liberaletatik baño, -etzaigu noski aaztu Unamunoren baiezepena.

«También en el país vasco hubo liberales, y muchos y buenos; pero, si bien se mira, aquellos liberales estaban, en general, más lejos de los liberales del interior que de los carlistas contra quienes combatían». (I, 745).

Poliki datorkigunez, irauli deiogun baiezepena bera-ri, maita maitaro eskerron ordañez galdetuz: ta berau, don Migel? ta zerau, zere liberalismu ta guzi, euskera-ri naiz eliz aginteari diezun muzin eta guzi, ez ote zaude, gero, etsai usteko abertzaleengandik milla bider bertanago, beste zerako zera lagun burruntzi oiengandik baño, makilka españiar egin nai gaituzten oiengandik baño?

Itzetik ortzera, aoa betean, baietz eta baietz eran-tzungo ligukela nago, baldin gizajoa il zanetik onera bitartean euskotarrokin jazoak ikusita eta bere iragar-

penak ezin zeatzago zerturik ikusita gaur bizi izan balitz.

Orrialde ortan bertan, 1905 garrenez idatzi ortan, iragarpen zorrotzena eman zigun, 50 urte aurrez, gure gaurko atarramentuari buruz eta, aldi berez, gaurko sasi-España arronkalariaren batasun kolokari buruz:

«Sería la ruina más completa de la patria el que continuaran apareciendo como los heraldos del patriotismo los que quieren hacer españoles a palos o los políticos traviesos que han usado del Poder para corroborar el beduismo, cuya fórmula es: «Soy amigo de mis amigos» (I, 749).

Eztakizu aski, aitona: zartako ederrik artuak daude bizkarrok mende erdi ortan.

Ta igarleak urrengo lerrotan are tenkorrago, erki-deontzakoxe aolkua bailu:

«Cuando se ve que nuestros fraguadores de opinión no aprenden; que, fieles a la cuarteta de

Procure siempre acertarla  
el honrado y principal;

pero si la acierta mal,  
defenderla y no enmendarla,  
se disponen acaso a repetir los procedimientos  
que nos llevaron a nuevas mutilaciones de la  
nación; cuando se ve que no se quiere llegar a  
la raíz del mal, entonces, frente a los que, movi-  
dos por resorte automático, obrando, pero no  
sintiendo repiten: «Palo!, palo!, palo!», hay que  
decir la verdad y repetirla siempre, repetirla  
sobre todo ante el palo, antes que nos peguen,  
cuando nos peguen, después que nos hayan  
pegado: «Verdad!, verdad!, verdad!».

Gaitzaren sustrai ori zer ote Unamunoren aburu-  
ra? Politikan, naiz militarismuan, naiz erlijioketan,  
españiar agintariiek auxe omen dagite: gorai patzen  
duten gogakuna, uraxe, ez sinistu; eta sinisten dute-  
na, uraxe, ez aipatu; ots, gezurretan ari.

Bein bear ta, zintasunik eza salatzen ontan ere.  
«Teorema bat, norberak sinetsi gabe, oiukatzen ari  
dana gezurretan dabil» (I, 750). Euskotar abertzaleek,  
aitzitik, -atzoko karlistek eta urteotako sabindarrek,  
alegia- sinistu añakoxe egia zekarten eta zerioten;  
argatik ain maite gindun eta ain adu on opa zigun.

Sinisten dan uraxe bait da egi. «Bere siniskaiaganako fedez beteta ura oiukatzen dunak egi diño, naizta egi ori besterentzat ez izaki» (I, 750).

Ta lentxeago: «Egiak makillak baño geiago deza-ke. Lenago autsiren du egiak makilla makillak egia baño» (I, 750).

Ta «La crisis actual del patriotismo español» idaz-lana -ondo osorik irakurgarria, irakurle!- onelaxe bukatzen du, norbere egiarekin bakarti geldi bear dunaren tristuraz: «Orra nik nire egia eman; eztago nire esku, egi au besterena ere izatera eltzea.»



## 15. «BIZITZEAREKIKO SENTIPEN LARRIA»

«Y bien, en resumen: qué es verdad? Verdad es lo que se cree de todo corazón y con toda el alma. Y qué es creer algo de todo corazón y con toda el alma? Obrar conforme a ello» (I, 800).

Unamunoren norbere egi ori, beraz (ez nuke aipa bearrik), ez da egi metafisikua, ez lojikua, ez dogmatikua; bere nortasunari darion bizitz egia baizik. *In interiore hominis habitat veritas*. Bere-berea du ta ez beste iñortxorena. Eskolastikuen lesikuz mintzatzera, egi morala, geniñoke urbillenik, beste ezer baño. Ots: sinisten duguna esan; sentitzen duguna egin. Ez iñolare beintzat «egi objetibu» deritzagun ori.

«De las tiranías todas, la más odiosa me es, amigo Maeztu, la de las ideas; no. hay tracia que aborrezca más que la ideocracia, que trae consigo, cual obligada secuela, la ideofobia, la persecución, en nombre de unas ideas, de otras tan ideas, es decir, tan respetables o tan irres-

petables como aquellas. Aborrezco toda etiqueta, pero si alguna me habría de ser más llevadera, es la ideoclasta, rompe-ideas» (I, 247).

Gaurko filosofuen lesikura ordea zer goitzen eman leioke? zein salletan koka diteke, Unamunoren egia? «Vitalista? Voluntarista? Creacionista?» Or dabilta irizleak, iruretatik zein egotsiko, au baño ori, ori edo ura baño au. Iru deitzeok alkarrekin baduten kidetasuna jotze ezkeror ordea, zergatik ez irurak, ori ta ura ta au? Ausarkeri litzakela dirudit, eta gañera ez lapurreta txiki, iru oietatik Unamuno zer ez dan afirmatzea, naiz soilki ajerutzea.

Ezin esan vitalista eztanik onelatsuko esakunak noiznai darabiltzina: «Qué ideas profesas? No qué ideas profesas, no, sino: cómo eres? cómo vives? El modo como uno vive da verdad a sus ideas, y no éstas a su vida. Desgraciado del que necesite ideas para fundamentar su vida!» (I, 250) «Interésanme más las personas que sus doctrinas, y éstas tan solo en cuanto me revelan a aquellas» (I, 250).

Ez gutxiago voluntarista: «Crear es querer crear» «Crear en Dios es querer que Dios exista, anhelarlo con toda el alma» (II, 815).

Ta berebat kreaizionista: «Creer lo que no vemos, no! sino crear lo que no vemos» (II, 879) «La esperanza es la madre de la fe; y la fe, la madre de Dios» (II, 1120) «La fe es el poder creador del hombre... La fe crea, en cierto modo, su objeto. Y la fe en Dios consiste en crear a Dios» (II, 830-831).

Alare, ezin kokatuko duzu asetoro filosofu talde ontako edo artakoekin bat. Eztago kokatzerik. Etzun nai ere berak. «Etiketa oro iguin dut», aitor digu. Ta oeste arakoan: «os encargo que no se funde escuela o teoría sobre mí» (II, 825).

Unamuno tar Mikel jaun *ori* ez da bat besterik munduan eta besterik ez da sekula izango re. Bat *orreri* dariokion egia orretxegatik da bat, berdiñekorik gabe, bakarra, singularra. Nortasun bakoitzak du egi bakoitza. Erritasun bakoitzak, berea. Egi bakoitzik ez izatera, an ez da erritasunik, ez nortasunik. Erri ta nor bakoitzek, beraz, bakoitz izan bear dute, norbera izan bear dute, norberarena esan, norberarena egin, bestetzuen egiekin ezertan naastu edo itzulaztu edo gezurtatu gabe.

Bestetzuen egira makurtze ortan dago arrixkua, ondamena, norgeretasunaren eriotza. Ots: gerta daki-guken ezbearrik aundiena. Olakorik gerta eztakigun,

eutsi norgeretasunari. Norgeretasuna kentzera lagunurkoak edo erriurkoak datozkigunoro, eutsi are ta areago, are ta eriosuarrago. Eusten diotenak dira benetan nor, benetan Erri.

Erasoka datorrenari erasoka erantzun, gañera. Eztago eusterik eraso gabe. Jakiñeko gauza bait da baten egiak bestearena menderatu ta zanpatu naiko dula, arrai aundiak txikia antzo. Erasoa, bada. Gallendu gatzazkiola, al bestean, ingurumari arrotz etsaiari. «Imponéos!» Erasoa emango die gizakiei naiz ende- rriei norbere egiaren eustapena, garaipena.

«Si, como se dice en España, los vascos por una u otra razón, mostramos mayor capacidad para administración pública que los demás pueblos de la nación, no debemos contentarnos con el especial régimen administrativo-autonómico, sino que debemos tender a apoderarnos de las riendas administrativas españolas y administrar a los demás, ya que ellos no saben hacerlo, y enseñarles cómo se administra.

«Si, como yo creo, el pueblo vasco es en España el pueblo más capacitado hoy para la íntima vida de la cultura espiritual, no gozará de ésta

mientras no trate de adquirirla, esforzándose por imponérsela a los demás pueblos que con él conviven la vida española» (1, 743).

Izan ere, bizitza osoa da kontragite bat. Etengabe-ko kontragite bat, alafede. Batak bestea jan bear, bizi-ko bada. Gudu izua, bagadiñoako agonia, norgerekin. Gudu munduarekin. Gudu ilbearrarekin.

Orra, sekulako kontragitean, erruki gabe alkar jaten: gerebaita ta ataria, sentimena ta adimena, erlijua ta filosofia, Don Kijote ta Santxo Pantza, erokeria ta zentzuna, itxaropena ta etsipena, desira ta eziña, betiraun gosea ta ilbearra...

Sentipenak baietz eta adimenak ezetz. Itxaroak baietz eta etsipenak ezetz. Alkarren etsai beti ta, aldi berez, alkarren iñude, jaki ta bizigarri. Adimenak ez leukake ezetz ematerik, sentimenak baiezka kontragingo ezpalio. Alderantzira: sentimenak ere ez leukake baietzean irauterik, adimenaren ezetzak auspotu ta galdatuko ezpalu. Alkar jaten bizi bear, biziko badira, biziko bagera. Ankerra bezin ziurra, legea.

Ori bai: desirak garaitu bear eziña, baietzak eza, erlijioak filosofia, -nik lagunurkoa, itxaroak etsipena, erokeriak zentzuna. Artara eskatzen baitigu barne

gurariak eta artara zuzenduarazten ere dizkigu alegin kemenak.

Adimenak eraginda, Unamunok au ta ori ukatzean edo negatzean, ordun ez da Unamuno; ordun eta ortan beste agnostiku edozeñetako bat da Unamuno. Ukatzearen filosofiak ezta karkio norberatasunik. Ukatze utsean gelditzea «barne guraria» menderaraztea litzake, norbera erailtzea. Baña, adimenak ukatu ala sentimenak ber-eregiten dionean, orduntxe da Unamuno norbera! ordun eta ortantxe da iñor singularra, besterik ez bezelakoa. Sentimena edo borondatea lagun, *bere* sistema berria afirmatzeak, orretzek, damaio norberatasuna.

Ta, alegiñak eginda re ordea, lortzen ezpadugu? itxaropen ziurrera eltzen ezpagera? Orixe duzu ba etsipena, «la desesperación», sekula erabat suntsituko ez omen duzun etsipena: garaipen ziurrik, segurantzaz osorik, sekula ez irixtea. Iritxi al izate ezkerro, elitzake bizitza jadanik agoni, ez burruka. Ez etsi, alare, ezergatik. Eutsi lortu miñari. Jarrai, are ta amorru irrirts gosetuagoz, bizi gadiñoko agoniari, baietz eta baietz, nai ta nai, min eta min.

Burruka ortatitxe datorkio bizitzeari bere indarra, ta iraupena, ta edertasuna, ta aurrerapena. Burruka

ori berebaitan zinki sentitzeari eta baietzaruntz garaitu nai izateari uko eman nai eztiotenek, oetxek, dute nortasun bikain; oetxek dira, ez batere gutxiago, edo benetan gizon edo benetan Erri.

Ontan datza, bada, nortasun bakoitzaren gudua. Noiznaiko ta nolanaiko kontragitea. Bizitzak berak berez dakarren larrimiña. Orra: «Bizitzearekiko sentipen larria».

Desiratan ain aundi ta gudupean ain txiki sentitze onek; ain bakar, ain mugatua norbera arkitze onek, damakio indibidu bakoitzari naitanaiezko tristura; beti arrotz dabillenaren kidekorik gizartean eza; ta, ondorioz, Jainko gosea; kidesun ori betiko bizitzan idoro bearra ta naia, nai etsiena, irrits ezin larriagoa; eta onela sentitze onetxek bultzagiten ere dio anima bakoitzari arago ta arago, asetzerik gabe.

Etsipen au, bizitzearekiko sentimendu trajiku au, zenbait gizasemek nabarmenki soma izan dute berenbaitan, jakiña: Marko Aurelio, Agustin Deuna, Paskal, Rousseau, René, Obermann, Thomson, Leopardi, Vigny, Kleist, Amiel, Kental, Kierkegaard eta beste zenbaitzu ezgutxik. Oen artean eztitu orratio Unamunok aztu zenbait bere endako. Arroki izendatzen ditu, geroko batean, Paskal-i buruz aritzean.

«Todo el jansenismo, adaptación católica del calvinismo, lleva este mismo sello. Aquel Port-Royal que se debía a un vasco, el abate de Saint-Cyran, vasco como Iñigo de Loyola y como el que estas líneas traza, lleva siempre en su fondo un sedimento de desesperación religiosa, de suicidio de la razón. También Iñigo la mató en la obediencia» (II, 822).

Zenbait gizaseme oiek bezanbat, baita zenbait enderrik ere -iru aldiz, gutxinaz, dasaigu Unamunok liburuaren lenengo kapituluan bertan- baita zenbait enderrik ere nabaitzen dute gaurregun bizitzearekiko sentipen larri ori. «Y hay, creo, también pueblos que tienen el sentimiento trágico de la vida» (II, 730). Lenengo ediziuari titulua bera ere onela agertu zan: «Del sentimiento trágico de la vida en los hombres y en los pueblos.»

«Esta desesperación religiosa que os decía, y que no es sino el sentimiento mismo trágico de la vida, es, más o menos velada, el fondo mismo de la conciencia de los individuos y de



los pueblos cultos de hoy en día; es decir, de aquellos individuos y de aquellos pueblos que no padecen ni de estupidez intelectual ni de estupidez sentimental. Y es ese sentimiento la fuente de las hazañas heroicas» (II, 825).

Beraz (beinberriz otsegin bear) zenbait enderrik ere badigute sentimendu trajikua! Unamunok berak epaitu digu baietz. Eta baietz au garrantzi audieneko dugu, buru erraieran ondo jaso ta josi-josi egitekoa dugu, enseiun ereikitzen goazen antzemateoi oñarri sendo damaienez.

Irakurle kontragilleren batek (eta ontan ere bear dute kontragilleek) objeta lezaidake Unamunoren sentipenok Unamunoretxen dirala ta ez Euskalerraren. *Ez* onek eztut uste zutik iraun lezakenik luzaro, Unamunok berak len aitortuekin eta aurrera aitortzekoekin.

Bai anbat, gure don Migel. Ain zuzen. Gure Euskalerrri duzu, zure Vizcaya duzu, beste iñungo enderriek ez aña larrimin ori sentitzen datorkizuna ta larrimin ori sentiarazi zizuna. «Zeran eta balio duzun oro zure abendari zor baitiozu» (II, 116), ordu onez zeuk azaldu zenigunez.

Zure Euskalerrri zarrak, bai, somatzen eta oiukatzen du, zeuk bezin garraski, zure espa ta lera ori, bere jokera jokaeretan. Espa-lera ori zer besterik duzu, izan ere, azken gizaldi ta erdi ontako zure Euskalerrriaretxena baizik?

Ez dut uste irakurle euskalduna zapuztuko zaidanik, dagoneko (aguroegi) galdetzen badut, bilbotar auxe, bere ezilkor gose ori lurbira osoan entzunarazi dun aldetik, ez ote duguken euskal gogapearen erakusburu, gure Erri Animaren albistari, gure irrits mamienaren ixpillu, ta beraz gure Olerkari aundi, naiz -tamala auxe!- erderaz ara? Olerkari pentsalari onen filosofoa muña, bere etsi ezin eta bizinai santu urdurian, euskal filosofi muña ez ote? ez ote, mendetako ta egunotako Euskal Miñaren abots eta aldarri sendo betikor Jainkoganakoa?

Ta bein galderok emen txasta ezkerro, batek ezin aztu maixuak berak siñetsitako ta idatzitako baietz oñarria: «si algo significativo es porque mi raza ha llegado en mí a conciencia de sí misma» (II, 17). Ain erabat engañatua ote zegon?

Ta beste arako olerki gorengo ura: «Yo soy mi pueblo.» «Ni nire Erria naiz.» Ez ote, arrazoipide apurrenik?

*Yo soy mi pueblo... y te juro yo con mis dolores*

*levantar a mi pueblo por los siglos  
donde sus almas tormentosas canten  
otra basílica.*

*(Antología poética de Unamuno.*

*En la basílica del Señor Santiago de Bilbao).*

Ez laborritu, irakurle, aguroegi galdea oekin asanatzazulakoz. Zerorrek segi arakatzen onako ikuspegi ontatik bilbotarraren gogakuna ta erara egongo zakizkitala nik espero.

Unamunok dun egia, dun filosofiketa, bere nortasunari dariona da. Lentxeago ala ziñeman digu berak. Bere buruaren (buruaren? ala sentimenaren eta borondatearen?) irritsa da ta aldezketa. Bere burua defenditzen ordea Euskalerrarena defenditzen du, oarki edo oartzeke. Oarki geiago noski, oartzeke baño. Españian españiena gaurregun Euskalerrria baitugu, berak zerizkionez. Ta aldi berez, mintzatur ere digu sekula aztu bear ez dugun au: «naizen eta balio dudano oro euskaldun nazu ta ene abendari zor diot» (II, 116).

Onako alde ontatik, beste iñondik baño re, guk sogin bear geniokela nago, gure Bizi Naia ren mandatarari oni. Ta Unamunok Loyola-koagatik ziñona geuk itandu Unamuno beragatik, aldeak alde: ez al da euskal gogakuna beragan gallurtzen? Ez al dugu geuretzakotu bear? Ez al da gure Gizandi? Erruz ta erruz gureago ez ote españiarrena baño?

Galdera oetxen goraberei zerbait erantzun asmatan natorkizu bada enseiun, Filosofu Olerkariaren etnika billa. Etnika noski; ta ez, jakiña, ez, besteren batek aztertzea ondo genuken etika.

Ta onatx emen, jadanik, irakurle erabera, «Del sentimiento trágico de la vida»ko etnika xurgatzen asmatzeko araua, euskaltzaleontzat urrezko araua nik uste, ziurkienik iñortxok ez emana, baña baitare euskal biotzentzat benetan unki garri bezin anpagarria, ta, aldi berez, gure «gogape»-albistariaren euskalsustriak sumaraziko lizkizukena: Unamunok diñon bakoitzean: «ni ta ni», zuk irakur: «gu ta gu», eskubide duzunez; edota Euskalerrri zarrari entzun aldarrikatzen: «Ni ta Ni».

Bilbotarraren euskal muñ izkutu sendoa jo nai dunak zuzen bait luke fede auxe eramatea aren liburuetara, ok irakurri al izatekotan: auxe, alegia, batez

beste: Euskalerrri berberaren agonia dugula Unamunorenena, ta aretxen Egia, ta aretxen Miña, ta aretxen Eroa, ta aretxen Ezilkor gosea.

Ta baitare, geienetan edo ia beti, Unamunoren España geure Euskalerrri berbera dugula, ari gainka eta ernaika, bere euskal buruaz eta izenaz ia erabat aztutzeraño.

## 16. KONTRAGITEA, BIZITZ INDAR?

Unamuno baitan aragitu ta jantzi baño lenagotik, ondo lenagotik, gure istoria ezaguna dugun ezkerotitxe ziurrenik, baña batezere karlistak fueruen alde iru aldiz jeiki ta erori ziranetik eta «gudariena» deritzagun laugarren jeikialdi ortatik barrena, bagenekarren eta badaramagu euskaldunok «norgere egi» ori, norgere erritasun bereziari eutsi ta eutsi nai ori, aurrerago ta larrimiñago.

Beste zenbait enderrik ere baietz, jardetsi lidakete. Ta baita bertan erantzun ere nezake: Guk aña... bedi, bearbada bai, batzun batzuk; ez ordea guk beze-la, ez alajaña iñork gure zirkustantziekin, gure ingurumariekin. Eta bizkaitarron ingurumariak don Migel orretxenak dira.

Bizinaia, geio edo gutxio, enderri danek dizute. Noski ba. Ez ordea danek ilbearraren kezka edo izua, ezpaidute ikusten arriskurik bertatik bertara ta, beraz, ezta-re sentitzen espanturik, larrimiñik. Larrimiña enderri txiki ilzori menderatuena da, baitipat ez ezik

soilki ere. Ta zein enderri, txikiagorik, ilzoriagorik, menderatuagorik, gure auxe baño?

*Bizirik nai geranon,  
bidelagun, Fede:  
Erri ilzori bat gaituk  
ia Itxaro gabe;  
eun urte laburretan  
galduz lau gudate...  
Ana, Kaifa, Pilato  
tarren epai mende.*

(Erri bat guruzbidean)

Ilzori gaudelarik ere, sekula baño indartsuago  
gerala gaurregun euskotarrok? Eztizut eramango  
ezezkorik. Alaxe gera ta: bateko zar, besteko gazte;  
bateko iltzear, besteko jaioberri; bateko euskaltzale,  
besteko erderaz jardule; Bizkaian gudari erromantiku,  
Naparroan erreketete ez gozoago; euskeragintzan ber-  
tan, batzuk garbizale, gona estu, ondo estu gero,  
gaurko señoiriten modara; bestetzu, dan bezela dala,  
jantzi lasaiz, lasaiz beintzat, nexka dantzari txikiene-  
ra; gaurregungo euskotarrek erderaz iñoizko erruzena

irakurtzen omen, eta euskal liburuak ere ordea berebat sortzen...

Batak eztu ukatzen bestea, indartu ta alikatu baik. Bata gabe bestea ez litzake ain «beste». Pernando amezketarrak alboan bear du apaiz erretorea; onen zirrikak gabe etzuteken sortzerik aren ateraldiek.

Kanpotik omen datozkigu, ala esan oi da, kontragite okerrenak. Eztira oker uts. Baita eragikor ere. Kanpotik geienik eraso zaigunean billakatu izan gera euskaldunok euskaldunen. Karlistaroa, esate baterako, eta Bizkai guda, gudariena.

Gudarien Bizkai depentsa izan al ziteken ain «il edo bizi», ain eriosuarra, naparrek beste arenbestean eraso izan ezpalie, militarren eskumakil? Eta geuk euskaldun izatez sentiko al genduke oinbat arrandi, belarrimotxek beste ainbat gorroto ez sentitze ezkerro? Eta 20 urteotako euskal literatura ain irakurria ta gogatsua bai al ziteken, aen debekuek ez laguntzekotan, ez auspotzekotan?

Eraso ta kontrajoko eragikorrenak alare gere baita-baitatik sortzen zaizkigu, nik uste. Euskaldunok geron artean eta gere baitan beti izan dugun martin-kontrak, orretxek, ernaldu eta azkortu izan digu geie-



nik erritasun eta berezitasun bikañenetakoa. Nik ala niñoke. Unamuno berberari legetxe:

*Oh, mi Bilbao! Tu vida tormentosa  
la he recogido yo; tus banderizos  
junto a tus mercaderes en mi alma  
viven sus vértigos.*

*Dentro, en mi alma, viven dos bandos, etc.*

(Antología poética de Unamuno.

En la basílica del Señor Santiago de Bil-

bao).

«Entre todos los derechos íntimos que tenemos que conquistar, no tanto de las leyes cuanto de las costumbres, no es el menos precioso el inalienable derecho a contradecirme, a ser cada día nuevo sin dejar por ello de ser el mismo siempre» (I, 249).

Konta ezin ala lirake gure noiznaiko katu-txakurrak, barka, oñaz-ganboarrak. Ona batzuk. Pernando amezketarra ta erretorea. Lope Agirre ta Urtzua. Loyola ta santutu aurreko Xabier, Paris-en. Loyola ta Saint-Cyran-go abate janseniarra. Santa Kutz eta Lizarraga.

Orixe ta Lafitte. «Euzko-gogoa» ta «Egan». Sabin Arana ta Azkue. Azkue ta Unamuno. Ta Unamuno bakar berberaganeko etsai edo alderdi bi-biak: euskal izateduna ta erdal txalo naia, «gudujauntxoa» ta «merkataria». Bilbo indartsua ta Donosti apaña. Kizkitza ta Pradera, edo Olazabal. Erreketeak eta gudariak. Goierritar amarrua ta kostaseme ertilaria, arriskatua. Etxaguarra ta indianua...

Betiko eztabaida, gure. istorioan. Betiko Ez-ta-Baida. Alakoxe norlenka zale gaituzu. Alakoxe aierti ta etsikaitz. Zorionez ala zoritxarrez? Al daki batek! Nork erabaki, bietatik zer dun geiago gure zoritxar aundiaren zorion aundiak? Geu izaki naiko paradoja, naiko antagoni. Dasagun beintzat, eztala nunbait gure izakera balio izateko bezin zoriontsu izateko sortua.

Ta zertarako duzute zoriontsu sentitzea, ez balio izatekotan? -lerantzuiguke Unamunok, onakoan poz eztitan. «Ta zer da bizitza? zer, egien egi dugun bizitz oldarra, kontraeraso ta alkar iltze bat baizik? Bizimena ugariago danean ordun da burruka ere azkarrago ta izuago!» (II, 726).

Euskaldunon izakerari buruz, onatx Joxe Artetxe-ren oarkuntzak:

«El carácter vasco ha poseído siempre una reserva apasionada; bajo su fría corteza se oculta un alma de fuego. Ardiente controversista, discute por lo que sea. Tiene pasión por la apuesta, el juego, el riesgo. Al día siguiente de arruinarse, reanuda su labor donde sea, con redoblado coraje».

(San Ignacio de Loyola. Los Loyola).

Nolanaire beintzat, ezin ukatu euskal anima ezinbeteari, kanpotik ezpadatorkio barrutik berez sortuko zaion klima eta akullu eztenkada, bere indarrak larrituko baditu: apustua, eztabaida, polemika, seta, norlenka. Antagoni au gabe elitzaioke azalduko, eluke askatuko ere erdirik, laurdenik, amarrenik. Matsak tolarepean ematen du sumua, ez egonean. «Egonak pozik ez du! Boga alegiña!»

Erljiuan, politikan, literaturan, naiz euskerazkoan naiz erderazkoan, nunaiko ta zernaitarako jokabideetan, bereari eutsi nai dio gure izakerak; «aitorle baño len martiri» izan nai du; ollategiko ollar bakar bakoitzak gura.

Irakurri berri dut eta eztakit nundik jaso, txastatzera noakizun auxe. Erdaldun batek idatzia da. Zazpi

probintziei, geio edo gutxio, egotsi leieke noski, emen gipuzkoarrentzat bakarrik begi jotzen dana:

«La variedad humana de Gupúzcoa -navegantes, marinos, guerrilleros, conquistadores, artistas, santos, fundadores de empresas- lleva un denominador común: el afán de superación de cada uno de ellos en la esfera en que se muevan. Participa en todos los problemas de su momento, bien sean éstos religiosos, de conquista, guerreros, artísticos o industriales. Con una característica común a estas variedades: la de la jefatura».

Lendakari edo nagusi izan nai ori indibidu guziek dutela? Kontragitearen eztenkada ere guk ez ezik beste gizaki ta enderri dan danek somatzen dutela? Jakiña ba baietz. Amaika aberri festa edo aberri itzaldi billakatu oi dira parregarri uts, ikusmiran dagon erbestetarrarentzat, izlariek auxe aztutzen dutelako, egi arrunt ondo merke auxe alegia: an-orako ta beste nunaiko jendeek, beren sentimendu ta jokeretan, milla bider antza geiago oi dutela alkarrekin diperentzirik baño.

Eztidazu orratio ukatuko, kontragitearen eragiña ta txapeldun izan naia Unamuno bati nabarmenago agiri zaiola oeste mundu zabaleko Pello kirten guziei baño. Enderrietan ere batzuk Pello dituzu, gutxi edo asko. Bestetzu, Urliar edo Sandiar. Ta gu, aldiz, Unamunotar. Arritzeko al da? Arritzeko, odol berberak, klima berberak, lur eta oitura berberak Unamunori ta guri sumu berbera eman eta aterazitzea? Orixe da guzia. Orra Unamunok berak:

«Quién me ha hecho esta alma que ha gozado en el combate, que ha comprendido lo del «dolor sabroso» teresiano, que ha hallado la alegría de la tristeza y la tristeza de la alegría, que ha hecho de un pesimismo trascendente el sostén del inmanente optimismo, quién me ha hecho esta alma sino vosotros, montañas de mi tierra vizcaína? Fué en tu regazo umbroso, en que canta la lluvia, Pagasarri, donde aprendí de «Obermann» que si es la nada lo que nos está reservado debemos hacer que sea ello una injusticia. Y ahora es a tu regazo a donde vengo por fuerza para seguir luchando por la lucha.»

«Paz en la guerra», onela titulatu zun Unamunok bere nobela, gerrateko «txinbo» karlistei buruz egiña. (Tolstoiren «La guerra y la paz» ek otuarazita ausaz?) Eta nobela orrela izendatzean, bere sorterritarren zeintasuna erabaki zun, itzeztu zun. Ala nai ta ala uste ere baitzun berak, liburuaren bigarren argitaraldian prologutik diñonez:

«Permitidme, españoles, que así como Walt Whitman dijo en una colección de sus poemas: «Esto no es un libro; es un hombre», diga yo de este libro que os entrego otra vez: «Esto no es una novela; es un pueblo».

«Guduan pake». «Guduan pake». Ez noski pake, norgere soro baserriak eta etxadi familiak txaututa ikusteak poz ematen digulako. Ez noski orregatik. Bai-zik guduan, ots, etengabeko kontragitean, gure gaitasunak gallurtzen zaizkigulako. Ala dugu lege, gizaki guziok bai, baña batezere unamunotarrok: tolarepean sakatuago ta ordun aberatsago, ordun gerauago!

«El pueblo vasco es en España el pueblo más capacitado hoy para la íntima vida de la cultura espiritual» (I, 743).

«El arte vendrá cuando bajo la costra de la cultura bulla y estalle la sangre de nuestros tatarabuelos». (De mi País. Castilla y Vizcaya).

«Nosotros (euskotarrok, gartzelarren alderantzitik) tenemos el calor de dentro, no el de fuera». (Ibid).

Gure ertilariek «fuera han aprendido el oficio, el arte lo aprenderán dentro; la ciencia no tiene patria, pero el arte sí». (Ibid).

«Hay que buscar la poesía del sudor, la del humo de las fábricas, la del vaho de las tabernas y chacolíes, la emigración a América, las aventuras del minero, la rudeza de la guerra civil, la epopeya de Zumalacárregui, la poesía del fanatismo...» (Ibid.)

«Una mayor familiaridad con Don Quijote me ha enseñado que su espíritu emigró de Castilla, de la España central, y si en alguna parte está en la Península es en mi país vasco. Así lo he visto al componer mi Vida de Don Quijote y Sancho en la que se trasparenta cómo la meditación de la vida del Caballero de la Fe me ha dado conciencia de lo que ha de esperarse de mi raza vasca» (I, 741).

«Gogo kulturaren bizitza sakonerako Españian erririk gaiena, beraz, EuskalERRI dugu», Unamunok zerizkionez. Baitare, beraz, «asko itxaro daiteke gure arrazarengandik». Zintasun ori, aberastasun ori, ez ote diegu zor zertxobait (zertxobait bakarrik?) kanpoko ta barruko etsaiei? kanpoko ta barruko antagoniari?

Izan ere, ta ain zuzen, zein Erri atxilotu da gure auxe baño zapalduago, lau gerrate jenezida oien tola-repean pats eta ats jario, Unamunok legetxe lortu nai ta lortu eziñik «norgere egia besterena ere izatea»?



## 17. ERDERAZ JARDUNAK BI IKUSPEGI

Tamala, gure olerkaria erderaz ari izana, -iraizean oguztu dizut len. Tamala bai, guretasunaren jatorrasun aldetik; olakoxe pentsalari batekin ornituta gogo genuken euskera aldetik.

Beste begirunetik ere ikusta edo aztertu bear genukela nago auzia, ta galde: tamala tamal dugularik, azken urteotan guri jazoriko ainbat ezbearren artean, ez al dugu Jainkoari eskerrak emangarri, lurbiraren aurrerako orrelakoxe mandatari bat beintzat gure egi sendoak noizpait izana, euskeraren barruti estura autsita arontzagoko gizadia re gero ta geiago oar eta jabetu dedin gure trajediaz?

Bulko biozkadak gure mintzairan Unamunok aragitu izan balitu, obe genukela? Bai noski. Anbat obe, ala balitz edo al izaterik balitz. Bestelako ederjantzia legoke gure mendi alaba.

Artara ordea, ots, *bere* euskeran idaztera, bai al ziteken Unamuno erderaz dan añako? Ta bigarren galdera: euskera utsez jardunda erderaz bezin ezaguna izango alzuken munduak gure bilbotarra?

Lenbiziko galderari buruz, nik nire gardiz ezetz niñoke, ezetz, erderaz izandakoaren amarrenik ere. Geienez Kanpion bat, Arana Goiri bat, izango genuken euskera idazketan. Kanpionek naiz Arana Goirik alegi-ñik egin zuten beren bizitzetan euskera menderatzen lerrenik barkatzeke ta, alaz guziz, milla bider airoskia-go adirazten ziran erderaz. Ta nola ez ba Unamuno, ogei urtetako ikaste larrienen ondoren mordollokeri batzuk besterik ezin sortu zizkigun ezkeru?

Setakorregi ez ote genbiltzan nago «euskaldun berri» orren erdera bearra erabat ukatzean. Gu setakorregi baitare, euskaldun berri geienen nai ta ezin ori Unamunoretxena *bakarrik* bailitz aserratzean. Ta Unamuno bera re setakorregi noski gurekin, nai ta ezin ori euskaldun *guziona* bailitz idaztean. Erderaz esan, «excesiva singularización» geniñoke dala gure pekatua ta «excesiva generalización» Unamunorena.

«De Cataluña y de su lengua, de ese idioma glorioso en que ha cantado el más grande poeta lírico que ha producido la España del siglo XIX, mosén Verdaguer, trataré otra vez con más despacio. Pero algo hay en el fondo del hecho de que, lejos de haberse logrado desterrar la

lengua catalana, sustituyéndola por la castellana, aquélla ha cobrado nueva pujanza desde hace cosa de medio siglo... Mientras agonizan el vascuence, el gallego y el bable, el catalán revive, por lo menos en apariencia. Lo cual algo significa. Y no quiere ello decir que el espíritu catalán sea más vivaz que el espíritu vasco, no, sino que a éste, al espíritu vasco, le viene ya estrecho su antiguo ropaje, su vieja lengua milenaria, y al catalán, no; que la lengua catalana es una piel que ha podido crecer según crecía el espíritu a que reviste, y acomodarse a su crecimiento, mientras el vascuence no puede crecer según crece el espíritu vasco, ni acomodarse a los ensanchamientos de éste.»

(I, 812. Más sobre la crisis del patriotismo).

Lerruoi eztegiu sinistu bear noski Euskera oztopo danik berez, Unamunok baietz uste ta idatzi arren. Ez berez. Bai ordea zerbait gerez, gerezko gaurkuon moztasunez edo ajolakabez, etsaikeriz ere eztanean.

Amarretik bat euskeraz eta beatzu erderaz diardutenak geiegi ta geienak ditugu gaurkoz euskal jende ikasietan, zoritxarrez. Oen aboan eta, ez ote ere?

luman, euskera moztxo azaltzen da, naiko aketz, urri, arlote. Oentzat euskera, Unamunoren ausardiz eurek aitortzen ezpadute ere, zalla egiten da, menderakaitza, bost-sei urteko umegorriei tentelkeri batzuk juxtu juxtu adirazteko baizik balio eztuna, ta beste ezer geiagorako zama galanta; ez gutxitan, gañera, sintasi (?) gogorregiz eta erdal kutsu bildurregiz areagotua.

Olako geien oen euskerari buruz, eztira zearoko gezur, ez noski zearoko, Unamunoren irizpide garra-tzak, mingarri bazaizkigu ere. Oraindik ikusteko gaude, ala niñoke, etorkizun burueneko praktikak zeñi emango dion arrazoi: Unamunoren geiegi jeneraltzeari ala euskaltzaleon geiegi singulartzeari!

Eztabaidaok geroxeago patxara pixu geiagoz erabiltzeko utzirik, orra bada lenbiziko galderari nire aburu erantzuna ta, lenbizikoari ematean, baitare noski bigarrenari. Unamuno, euskera utsez jardutera, ez zitzaken, nire ustez, erderaz dan añako, ta beraz, gutxiago, erderaz dan bezin ospe zabaleko. Dasagun bada orain ospe oni buruz zerbait.

Aor, esate baterako, Vondel, olandarren poeta gorena; ezagun al duzu? Nik ozta. Aor, filandarretan, poema Kalevala eta bi olerkari tantai Lönnrot eta Kivi; edo, Mickiewics-ekin, poloniar askatasunaren aposto-

Iu Otokar Jawrower eta jaupaleme Radzyminska. Irakurri al diezu ezer? Baziranik ere ez nekin, egunotan-txe beren liburuak ekarri dizkidaten arte. Prantzesez (esate batez) idatzi izan balute, ziurrena baietz.

Beste amaika erbesteko urretxindor izkutu utziki, ona gure Orixe «Euskaldunak» kin, Labayenek egin erderalpen eta guzi; noiz, baña noizko noiz, elduko ote atzerria poema ori bear aña txalotzera?

Joaquín Calvo Sotelo-ren *La Murallak*, igazko 1954 an, 500 aurkeztaldi izan omen ditu Madriden eta 600 dik gora Buenos Airesen. Lizardiren *Ezin ezkondu zite-ken mutilla* etzaidazutela esan antzez batere motelago danik; ez ordea onek antzerketa alerik jaso... orain arte.

Auñamendiko Erriño ttanta baten goraberagatik ajola gutxi zaio gaurko giza ardallari, Zelaidi zabaleko belar izpitxo bat oni zer arreta ipiñiko Onuk, Erromak, Washingtonek? aruntzagoko beste oiei, Poloniari edo Koreari adibidez, noiz edo noizko itz on batzuk baño ematen ezta.

Erabil gai orokarrak, unibertsalak, lurbira osoaren aiputan eta jaramonetan daudenak; eta modako sei-zazpi izkuntza oietakoren batean erabil, gañera,

gaiok; orduntxe ta alaxe, izatekotan ere, idazlea lurbir-  
ran ezaguna izango.

Gure Kanpionek sekulako titan arazoa ari zigun jo  
ta ke urte aietan Naparroako edestiketari buruz. Au  
kolperik emateke bailegon, Emilia Pardo Bazán-ek gal-  
detzen zun Madridenten: «baña zertan dugu Kanpion,  
alako bipil zetorrena? Galdu diogu aspaldion zan-  
tzua.»

Unamunori, onezkero ba, nekez galduko zaio zan-  
tzua. Gero, ta ospatsuago dugu lurbiraren luzera-  
zabaleran, berezko indarrari ta erabilli gaien jakinmi-  
ñari esker. Ipar Amerikan, zenbait unibertsidadetan.  
*Unamunologia* irakasten omen da. Gog-ek, berak iker-  
turiko gizaki gallur jeikienen artean izendatzen du  
gure au kapitulu bat berari eskeñiz eta «pentsalari ta  
olerkari aundi» deitzen dio. Gaurreguneko filosofiketa  
berriaren gizandi erpiñenei buruzki ari dan libururik  
ozta daiteke, dagoneko, Unamunotzaz mintzatzeko.

Ingeles izkuntzak, rusuak, prantzesak, gaur duten  
aomen eta sinpatia biar gaztelerak iritxiko balu,  
orduntxe Unamuno jaun ta errege; ta bere itzala, lur-  
bira beteko.

Emen galdera bat. Itzal ori ordea euskotarrarena  
ala españiarrarena izango litzake? Galdera onekin-

txe... Galdera onekintxe tinka dizut Unamunoren erderara jotzeak nire ustez dun galpide aundizkoena.

Axaletik, batbateko gainbegirada ariñean beintzat, españiarrago dama euskaldun baño, naizta berak ziñeman dun oro euskotar dula; ta naiz *bere* españiartasuna euskaltasunaren zabaltze bat izan.

«Ezilkor irritsa ase ziur eztugun ezkerro, ezilkorren orde liperñoa gura izaten dugu nor bakoitzak: txaloa, aintza, utsalkeria.» Itxasoz andiko ta emendiko erdal irakurleen onginaia irabazi naiak, irabazi bearrak, españiartasunaren alde ipiñi ta jardun arazi zun bere liburu nagusienetan. Ta populu arruntarentzat españiartasun ori, naizta 98koen tankerako izan, euskaltasunaren aurkako zerbait da.

Gaitasun baño anai borondate geiagoz nik enseiun ekin diodan araura, euskaldun guzioi dago-kigu, batezere erderaz ari zaizkigun Artetxe, Azaola, Santamaría, Zelaya, Zuntzunegi... bezelako euskaldunei dagokie, Unamunoren españiartasuna edo kijote-tasuna bere euskaltasun sendoaren barreiatze bat dugula adieraztea, probatzea, nai ez dutenei ere sudur eta begi sentinabari araztea.

Eztiogu, ez guk arranea, egi izpirik jan nai, I.I.'k *Cuadernos*-en diñonari:

«Si fuese posible llegar a simbolizar plenamente a todo un pueblo en un solo individuo, entonces no existe duda alguna de que Miguel de Unamuno fue el hombre-símbolo de la España contemporánea; o, en todo caso, el hombre más representativo de ese pueblo a la par paradójico y desconcertante... Porque lo cierto es que Unamuno llevaba en sí, mejor que nadie, las antinomias y antagonías de España y de los españoles.»

(Cuadernos. Enero-febrero 1957.

Miguel de Unamuno por I. I.).

Irizte au aintzat artze ezkerro bera betean merezi dunez, eskubide dugu itzetik ortzera galdetzeko: ta españiarrena baño re ez al dugu are ta are euskaldunona? Españiartasun ori ez al da, norabaita jo ta gañeztu bearra zun euskal izatedun baten artan mamitzea? (Edota Unamunok berak Iñaki deunaz emandako galderak barkazioz berrituz): «euskotar mendu osoa ez al da aretxengan gallurtzen? Ez al dugu gure gizandi? Euskaldunok ez al dugu geuretza-kotu bear?»



Jardunean jardunean ikusiko dugu baietz, ala nik espero, ta maixuaren gisara erantzungo: -Bai: gure, txit gure, erruz eta erruz gureago españiarrena baño!

## 18. ERIOTZARI BURUZ

Baimenez, eta erakusburuz, beste artikulua bat beretsi ta miztatzen eman nai dizut emen, europeizteari buruz, «Sobre la europeización» (I, 889); naiko luzetxo metodo gabea artikulua auxe re maixuaren geienak legez.

«No quiero más método que el de la pasión; y cuando el pecho se me hinche de disgusto, de repugnancia, de lástima y desprecio, dejo que del cogüelmo del corazón hable la boca y salgan las palabras como salieren.»

(Algunas consideraciones sobre la literatura hispano-americana. Colec. Austral. Pgn. 111).

«Modernizatu egin bear dugu! Europeitu!». Ala otsegiten zuten, agi danez, orduko (1906) topikuzaleek.

Zer da ordea europeitze, aldaberritze ori? galdeztzen du Unamunok. Eta erantzuten zaio: *La joie de vivre*, gizona: jolasketa pinpiriñagoak, nolanaiko komenentziak, etxaleku atsedentsuak, janari atsegi-

ñak, jazkera erosoak, kultura alaia; utikan, beraz, atsekabe, kezka, gaixotze, eriotz bildurrak; oetatik alik-eta gutxienik; gozatzea, gizona!; bapo ta nasai gozatzea baizik ez nai ta ez billatzea.

Ori, orixe, beraz? Ta emen ekiten dio gure paradoja zale asperreziñak: -Ba, arta ezkerro, orratx, nik milla bider naiago San Agustin bat; naiago ta bearrago. Beraz antziñatu gaitzela, ez modernizatu, Agustin deunaren irudira! Edota, ea gogarago beste au?: afrikartu gaitzela, afrikartu bai, ez europeitu, Agustin neurgearen izate legera!

Ta bertan, gure bilbotar sakerrak, eriotzazko gogarketa ain gogoko zaion gure pentsalari gizajoak, betiko bakartean bere baitaratuz, kolkoari itauntzen dio: «Europeiarra al naiz? modernua al naiz?». Ta kolkoak darantzuio: «Ez, etzera europeiarra europeiarizenez ulertzen dan ori ez beintzat; eztare, etzera modernua, modernu-izenez adirazten dan ori eztare beintzat.»

«Eta, ez europeiar ez modernu izate au nondik dut?, bearba españiar izatetik? Españiarrok, barren barrenez, ain europeitu naiz aldaberritu eziñak ote gera ba? Ta ala izate ezkerro, ez al dugu salbabiderik?

Ez al da beste izate modurik Europako bizimodu berri ori baizik? (I, 890).

Egitan: zirrara daragit, ezurretarañoako zirrara pil-pira anaitsu minkatza daragit, onako Unamuno «iñorekin ez» onetxek. Noiz emen baño *bakartiago*, euskaldunago, gutarrago?

Ta alaz ere gutar orrek goratzarre giar bioztia Españiarixe opaltzen dio. Ezta aitamenik ere Euskalerriari. Don Kijote, Velázquez, Gurutzeko Jondone, Estella edo Lizartza-ko Diego, Jesusen Teresa deuna, Loyolatar Eneko ta beste olatsuko eriotzarekiko pentsalariak eman ditun eta oraindio geiago eman dezazken Españiarixe opaltzen gorazarreak; eta Euskalerriari?, illobiaren ertze-ertzetik Miserereka dagon erkideen arraza ilzori oni?, beste ezertxotan pentsa ezin dun eriopeko Jaioterriari?, ezta murtik ere...

Tamala bai, onako bakarti onek erdera jendearen sinpati onginaia irabazteari eutsiko badio bere *noiz-naiko* euskotasuna *noiznai* ez aipatze ori; edo beintzat bere euskotasuna españiartzat jotze ta azaltze ori!

Idazlan berean aurki aterako zaigu, batekoz beste la zearo alderantzira baieztuz -ia zearo ez ote?-: «Errege katolikuekin eta aiek naziuari egotsitako batasun arekin Españiko istoria okertu egin zan, ala

esaten zaigu. Ezin uka beintzat: aiekintxe ta geroxea-goko «Renacimiento» ujol arekintxe Españiari bere erdiaro anima galdu egin zitzaion, akitu, jun. Arrezke-ro eriotzari arreta gutxiago ipintzen zaio gurean, Españian» (I, 893).

Alaz ere, goratzarrea Españiarentzat (noizko, nungo Españiarentzat?, eta «Don Kijoteren bizitza ta ekintza senti al izatea» eman zion Euskalerrarentzat, «zun eta zan oro zor zion» Euskalerrarentzat, itzerdirik ez...

Uts au dala ta, etzagula alare jan len itzema: alegia, Unamunoren zintasuna gordiña dugula. Dasa-gun zuzenagoki: zintasan orrenak ere, orretxenak ere, baditula iñoiz edo beste bere goraberak, sekretuak, ugak, kontrajokoak, interpreta bearrak...

Unamunok berak aitortua digu bazula zerbait berebaitan beti ixillik gorde nai izana:

Lo que yo quiera callarme  
déjenmelo para mí;  
no me obliguen al desarme  
de honduras que no rendí.

Que uno es el hombre de todos

y otro el hombre de secreto,  
y hay que escaparse de modos  
de hacer a un sujeto objeto.

(Canciones. Diario poético,  
de Unamuno. N.º 1.578).

Unamunoren aitortza au dala ta, Pedro Laín Entralgok galdetzen du: «Por debajo del «hombre de todos», cuál-fue en Unamuno el «hombre de secreto», el hombre intrahistórico?». (La memoria y la esperanza. Laín Entralgo. Pgn. 161). Ta or ari da erantzuten, alegin garbinez, sekretua ostu nairik.

Euskaldunok ere gere aldetik zor diogu galdera orri erantzuna. Jardunean jardunean goazkion bada aurrera, «ixilpeko gizona»ren billa.

## 19. PARISKO BAKARTIA

Justiziz oar bearra derizkiot, Unamunok Euskalerria ixiltatze ori barkagaitzago zitekela, europeitzeari buruzko artikulu ori 1906ko ordez atzo edo gaur idatzi izan balu. Idazian ortako epai zangarrak geroztiko Euskalerrari dagozkio batezere. Gaurkoxe Euskadi eriopekoari dagozkio bete-betea urrengo lerruotako, edo lerro-azpiko, epai goraltzak:

«Bai doakabe, bapo bizitza baizik pentsa nai eztuten Europako erri berriki oiek! Bai doakabe, erioztari buruz sekula pentsatzen eztuten erri oiek, alako batean bizitza galdu bear dugulako oroitzapenari jaramon tutik egiteke!» (I, 897).

«*De profundis* edo *Miserere*-ka zeruari erruki eske arrenga estularrian ari diran gizatalde atsekabetuen erdian beti arkituko naiz ni anaien artean antzo, maitasunaren lokarriz aiekintxe batbat egiñik» (I, 896).

Ezbearrak astinduka darabilkin erri batek, bat eginda, abesten dun «*Miserere*» samiñak filosofi batek aña balio du» (II, 729).

«Sekula ezin aztuko dut Parisko bulebar beteain bein artutako mingoztasuna ta mukerra. Badira ama-

sei urte. Gaztedi ardalla an zebillan, tximu titereak bailiran, jolas eta olgeta, txurrut eta zarata, ijiji ta ajaja, aiurruntzi ta amoreketa, axai dirdirak ordituki atseginkeri izunetan... Ezin siñistu nun aiek ere neure kideko zitezkenik, neure urkolagun!... Bakar sentitzen nintzan, zearoko bakar, aien artean!; eta bakar sentitze arek ikaragarri bai ikaragarri penatzen nindun!» (I, 896).



## 20. ONA ZURE ERRI!

Oroimenera datorkio bati emen Lizardiren «Paris-ko txolarrea»: «nunaitar izan-miñez», «neure burua ikusiz ain lotu ta arlote», «etxez kanpora, beti baserri-tarra»...

Gogotan ere jartzen da Abendats emen, gure Bakarti gizajoari alkarrizketara otsegiteko: Onuzki! Onuzki!, gure Ero Aundi!, atozkigu!

*Adiskide kutun, lagun zorigabe,  
azpildu gabeko biotzaren jabe,  
onerako zabal, ederrak su-bera:  
atorkit, Onuzki, gaur oroimenera!*

Ta orra oroimenaren miraria, Lizardirixe beste bein gertatua. Abendatsen deiera, orra non jeikitzen-edo, berpizten-edo, ari dan gure Onuzki gizajoa, baratz-erdiko gandu artetik nik al dakit zerk gorpuztuta. Orra aurrez-aurre, soin ta gogo.

*Baratz-erdian dut arki  
«aitona»: alderoka dator,*

*begi galduak nora-nai...*

*Eriotzak dakar besalagun,*

*bere buruz ezpaita gai.*

(Lizardi. Asaba zarren baratza).

### **ABENDATSEK:**

-Atozkigu, bai, Unamuno; atozkigu gajo ori guregana. Zeuretarrongana. Parisen bezela Madriden naiz Londresen gertatuko zaizuta. Guregan, Euskal Anima-ren eliz barru ontan, Erri oso bat begiz joko duzu, begiz ezezik gogo biotzez anai joko gañera, Eriotzarekin burruka izuan intziri ta otoiz. Ez Velázquez ale bat. Ez, Gurutzeko Jon done bakar bat. Erri oso bat joko duzu, don Migel. Zure Erria joko deiez eta leiez, zeure barneeneko arrengea aietxek oiukatzen, «Bizitzearekiko sentimendu trajikua»ren dei-lei aietxek oiukatzen, iñori ikasi gabe, biotzak emanda, betiereko Bizi Naiak eraginda. Entzun zaiozu, jaun Mikel orrek. Entzuten badiozu, eztuzu esango bakar sentitzen zeranik. Abenda oni, larrimin ikara artean, zure erraietako gurari erdiragarria berbera baitariokio, itzik itz, mendez mende, bere zorigaitzaren obi amilletik.

### **EUSKAL ANIMAK:**

-«Ni, ni, ni, beti ni! Ta ez esan nor naizen ni. Mundu zabalarentzat, ezerez; neuretzat, oro» (II, 724). «Giza anima batek (ta orobat Erri anima bakoitzak, orobat Abendatsek) sortitza osoak aña balio du!» (II, 723). «Beste Erri ori ohea dala? Bedi, obe edo txarra-go izate ori zer dan nik ez ulertu arren. Aberatsago dala? Ut-ut ortarañokorik... baña, alare, tira! Garaille omen dalako ori dala, nerau garaitua naizelarik? Bejondeiola. Guzi ori on du; baña *beste bat* da. Ta ori ez! Ori ez! Niretzat, *beste iñor* billakatzea naizena izateari uko ematea da; ots, beingoz esan, ez izatea. Ta ori ez! Edozer gauza ori baño len!» (II, 723).

### **ABENDATSEK:**

-Ta oar, Unamuno. Etzaio beste alaraorik aditzen. Azken eunki beteon batezere. Karlistetako iru liskaraldi aietan eta orañeneko Bizkai guduan, Bizi Nai orretzek kemendu dizkio gudumutillak, irrits orretzek ezil-kortzen dizka ilzori lerrenak, itxaro orretzek azkortzen agoni gosea. Il arte, eztu utziko urubi eriosuarra. Ildare, arrenga orretxen oiartzunak bizirik jarraituko lioke-la niñoke, zeruetan barrena, izarrak dardaratuz.

### **EUSKAL ANIMAK:**

-«Urlia izan nai ori, edozein urlia izan nai ori, ezin onetsiko dut egundo» (II, 722). «Ez etorri niri, bada, beste bat izan edo beste bat biur bear dudalako mandatuarekin; mandatu ori, nerau izatea uzteko agindua bait litzake» (ibid.). «Nik eta zuk eta Espinozak eztugu iltzerik nai iñolare; ta iñolare ez iltzerik nai izatearen irrirts au norgere izate muña dugu» (II, 720). «Ez, ez dut iltzerik nai! Ez dut, nai izaterik ere nai! Beti, beti, beti bizi nai dut, eta ni bizi, orain eta emen naizen eta sumatzen naizen Nerau gaixo auxe bizi. Argatik nauka larrimiñez nire Animaren iraunkizunak, neure anima onetxen, onetxen, betiraun bearrak, Min eta Min... »

### **ABENDATSEK:**

-Españiar ziñalako, uste dute geienek, Unamuno, irteten zizula deadar orrek. Zeatzagoki, egiazkiago, oar ditezela: euskaltasuna duzu, «zeran eta balio duzun ala zor diozun» euskaltasuna bai, zuk berari baño berak zuri, espa ori biotz ezpañetan ipiñi zizuna, urduriz eta lerrenez. Eriotzarekiko etsikaitz ori euskal drama duzu batezere. Bai anbat: Don Kijoteren «bizi-tza ta ekintza senti al izatea zor diozun» euskaltasunarena.

Zerbaitegatik zaizkigu Lizardiren bertsetan aipatuenak:

*O, zein dan ituna  
bera bear au!  
Nik ez nai eguna  
biurtzerik gau!*

(Biotz-begietan. Ondar gorri).

Nik ez nai! Ez nai! *Caro autem infirma*. Alare, lege ankerra biguntzerik ezin:

*Udazkenak aulagotzen dit atsa,  
orbek ozenagotzen oin-otsa,  
aldapak larriagotzen biotza...  
Lenetan ez bezin autsia natza.*  
(Ibid).

Zuk, Unamuno, ezur eta mamizko ziñan indibidu mardul orrek, eriotzari zaputz egiñagatik milla bider ezetz eta ezetz, ark dei zizunean, an joan bear izan zenun zuk ere, Unamuno! ixil eta umil, aren besapetik zintzilik eta narres, sutarako erregai, oin otsa ozen pixka munduaren orbeletan atereaz eta utzirik. Baña orbela orbek duzu, ez illezkor; aizeak darama.

*Leer, leer, leer; seré lectura  
mañana también yo?  
Seré mi creador, mi criatura?  
Seré lo que pasó?*

Zalantzakeritik ezin jeikiz, giza animaren betiraun «objetibua» ezin sinistu dutenek, gizaixoek, betiraun orren oñorde badaezpadakoa iñon billatzekotan, giza-diarengan bila bear ba, etsi-etsian; ospearen magalean jo nai bear illezkorra. Ezur eta mamizkuok ilda joatean, gauzak omen diraute ba bizirik, soilki gauzak eta enderriak...

Agnostiku gizajo orrek ere erdal munduan billa izan zenun, irakurleen oroimenean billa izan, betiraunaren oñorde apurra, «Jainko ordearen jainkoa». Auen oroimenean, ordea, oroimen ori maitasun mami ez biurtzetotan, zer zindezke? Seré lo que pasó? Ozta besterik gizajo ori: illotz bat; arrotz bat. Eztut uste erdal munduan biziro itsatsi zaitezkenik. Bakartiegi zera. Zerauegi zaituzte. Nekez duzuke iñon itsasterik. Gutxiago, iñon mamitzerik. Etzera, izandako bat besterik izango: seré lo que pasó! Edonon, arrotz. Illotz. Ereje zera, katolikuetaan itsasteko. Jainkozaleegi,

materialistek maitatzeko. Euskaldunegi, españiarrekin mamitzeko.

Gurekin ziñezke soilki geuretar. Gugan jo zenezake zure «alter ego». Arroxoegi izana zaitugu ordea gurean kabi zaitezen ere. Erantzi zaitea arrokeri ortaz, erantzi; ta zure euskaltasuna billotz agertuko da; eta gurekin geuretar billakatuko zera. Ez arrotz. Ez illotz. Ez, izandako bat. Baizik zerana, billotzik eta garbi. Zerana, muin eta joran. Zeu, bizi-bizirik. Zeu guziokin bat, ezkontideen arremanean. Geu anbat zeu. Zeu anbat geu. Erantzi, bada zeu orren arroxo geiegiaz. Betiraunak merezi du *ga* ta *zeta* biñoen estaltze arremana: Geu-Zeu, Zeu-Geu.

Zu jaio baño millaka urte lenagotik bazeriokion Euskal Animari zure Jorana. Eriotzak zure aldarria liburu legorretara baztertu ta ixildu arazoagatik, Euskal Anima ezta ixildu; nekez ixil arazterik ere izango zaio. Zu ta zure Irritsa bizi-bizirik zaituztegu Abendatsen errain bizietan: ernari, lertzori, erraietan; arnaska, gora ta bera, bufar auspoetan; betikor, gizaldiz gizaldi, betikor, noiznai kulunkari ta noiznai urgain, Jainkoganako itxas txango. ziurrean! *Fluctuat nec mergitur.*

Euskaldun katolikuok ziur baitgaude, emen lurrean ondoa jota re, zeruetan urgain izango gerala.

Jesusen arakoagatik: «anima, galtzen dunak iritxiko du».

Agoni gorriena darabilgu onako betiraunari eusten eta eusten. Baietz nai dakiola Jainkoari. Baña lurreko gudua buruenik galtzea gertatu arren, eztugu ezergatik galduko burueneko Itxaroa, Iratzeder-en ura alegia: «Zeruan, zeruan erdietsiren dugu elkargo ederrenez Eskualherri». Jainkoagan Euskalerra izango are Euskalerra! Abendats Abendatsago! zeu ere zerauago! Zeru-lurak itzaliko dira; baña Abendatsen Bizi Naia ezta itzaliko.

Beñola jadanik ez gaude, bada, erara Hamleten dilemarekin: «Izan edo ez izan!» Abendatsen Bizi Naiak, Abendatsen Itxaroak, eztu dagoneko onartzen beste dilemarik: bizi edo Bizi! Agustin gorenaren jomugara gaude intziriz eta larrimiñez: *Aut vitam mortalem aut mortem vitalem!*

Argatik gure eriosuar izua, agoni paregabea, azken mendeko lau gudateetan. Argatik diogu eriotzari bildurra bai ta bildurrik ez.

*Ta udazken-atsarreko goiz batean  
esnatu nadi Jainkozko Betean!*

(Ibid.).



# 21. ZERAU GAITUZU

## **UNAMUNOK:**

-Nor zera zu? Nonbait ikusia zaitut.

## **ABENDATSEK:**

-Ikusia ez, baña bai somatua. Zerau nazu, Unamuno. Nerau aña zerau nazu. Abendats naiz.

Abendats. Euskal arrazaren seme ta guraso. Seme natzaionez, nik ere «ene abendari zor diot naizen eta balio dudan ala»; ta baitare, Unamuno, «berarixe zor zure bizitza ta ekintza senti al izatea».

Guraso natzaionez, eusko abendaren arnas nazu, ta iñude, ta eustale. Kolko barru bakoitzeko azkurri ta ajurri ta mintzo ta eragille.

Abendats. Zeure euskaldun izatearen urretxindor izkutua, izkutua bezin kantaria, zurebaita barneenetik ixiltzeke ziarduna, jendeek uste duten baño milla bider geiago ta geiago. Zure beti miñaren Ats eta auspo ikuseziña. Zuk agertu nai ez izandako «el hombre de secreto» berbera. «Zure baitan iziari ziardun Norbait» uraxe, «bere arpegi izenak ezagutzeke obeditzen zeniona», «bere arpegi izenak ezagutze ezkerro

bertan ilko ziñakena Bera Bizi dedin!» Uraxe, Uraxe...!  
Bera Bizi dedin eta Beragan bizi zaitezten! Uraxe...

Muchas de estas ocurrencias de mi espíritu que te confío ni yo sé lo que quieren decir, o, por lo menos, soy yo quien no lo sé. Hay alguien dentro de mí que me las dicta, que me las dice. Le obedezco y no me adentro a verle la cara ni a preguntarle por su nombre. Solo sé que si le viese la cara y si me dijese su nombre, me moriría yo para que viviese él.

(II, 70), Vida de Don Quijote y Sancho.

Abendats. Ikuseziña ezpanintz, ezur eta aragizko batenbat banintz, aguro il naiko omen nindukete zenbaitzuk beren atzaparretan. Etsaigo makurrena omen didate neuretako batzuk. Nik, neure aldez ordea, eztitut etsai. Eztiet argaizto izpienik. Abendats ezta jaioa txarkerirako, ez burrukarazteko, ez sakabanatzeko; danak pakeratu ta adizkidetzeko baizik. Gorrotatzea edo apendu artzea, neure izatea ukatzea litzake. Guziei natzaie guraso. Oro barkatzen diet, ama batek ez aña.

Ta ez naiz emakume, ez orixe, goitargi ta beste musak emakume jo oi badira ere. Arreseren «Aratziñe» nire alabetako bat baño eztuzu.

Nire abizenak? Millakaetatik, ona batzuk: Aitor, Lekobide, Basajaun, Jaun Zuria, Amagoia, Peru Abar-ka, Pernando amezketarra, Etxaun, ta (ez ote?) Letu-ria auxe re...

Ta bestetzu: Lizardi, Santa Kutz, Zumalakarregi, Loyola, Xabier, Garikoitz, Zumarraga, Antxieta, Legaz-pi, Elkano, Urdaneta, Lope Agirre, Urtzua, Bolibar, Erauso, Zubia, Aita Vitoria, Azpilikueta, Trueba, Kan-pion, Unamuno, Zubiri, Zaragueta, Salaberritarrak, Baroja, Zuloaga, Usanditzaga, Eskudero, Uzkudun, Arana Goiri, Azkue, Barandiaran, Galindez...

Millaka ta beste ainbat abizenok, ordea, iturburu bakar bat dizute, basoenean: Ni ta Ni, danen sortaraz-le. Ta izen bat, izen anonimu bat, ixilpean: Abendats. Abendats anonimua zuregan. Abendats anonimua Akelarren, Arantzazun, Oriamendin, jentillaroan. Abendats anonimua, euskal odolaren eiterik edo fiso-nomirik daramaken zernai ta nornai bakoitzean: itxas-gizon, lurbillatzalle, indiaseme, santu, gaizkin, ertilari, jakintsu, langille, mixiolari, gudamutil, guraso, neka-

zari, salerosle, industrigille, kirolari... ta beste gañerako guzietan barrena.

Abendats *Volksgeist* euskalduna. Euskal Bizi Naiaren olerkari ixilpekoa nazu. Ixilpekoa bezin eragikor eta indartsu. Nire Erria bezin ixilpeko: bera bezin indartsu eragikor; bera bezin bakarti, ezezagun. Entzuten zauden Abenda gaixo onen agoni aiotsa nazu. Euskal anima zarra natzaizu, belaunik belaun. Euskera zarra natzaizu, aboz abo. Norberean irauteagatik euskera uzterik nai eztun betiereko Euskalerrri setatsua berbera, eutsi ta eutsi...

### **UNAMUNOK:**

-Euskera! Bein bear da, oraindik ere Euskera! Ondo gizaldietako kasketa arranepola! zuen auxe. Noiz arte, ordea? Noiz zentzatu bear duzute? Noiz adore ta gizatasun izango, beingoz euskera pakean iltzen uzteko? (I, 374). Orrek eztu erremeiorik: badoakigu, ta kito. «Gertari» ori atzeratu daiken giza indarririk ez da. Bizitzaren legez bait doakigu. Alabearraren patuz (I, 373).

Oso aguro doakigu, gañera. Orra, dagoneko, bi eratara azkenak ematen: zabalera eta sakoneraz (I, 375). Euskotarrok Laterri aske izatera el bagadi ta euskera ofizialduko bagendu ere, berdin berdin igartu-

ko litzaiguke, berezko gau ezaz; zenbait basa abere mota, domestikatzean, makaldu ta il oi diran legetxe (ibid.).

Ez gaitezela, alabaña, atsegetu. Ez dezagula orregatik naigabe; gorputza illagatik, bere anima obeki bizi iraun dakion izango bait da (I, 373). Ezpaitago, gure gaurko Erriaren ziztuari dagokion bezin aguro ele mintzaira ori kulturarako trebetzerik (I, 395).

Ta ez, etzaidazula purrustarik egin. Berriz. dirautzut: Bidezko derizkiot, oso bidezko, ez etsi nai orri. «Me parece naturalísima semejante protesta» (I, 374). Beste eginkizun aundiagotarako bear ditugun kemenok ordea ez ditzagula ortan alperrik gal (ibid). Atsekabe ori, sentipen ori, ixiltzeko dezagula kemen. Joka gaitezela zentzuz. Arrazoiz pentsa dezagula. Arrazoiz.

## 22. ARRAZOI, ALA BIOTZ?

### ABENDATSEK:

-Arrazoiz! arrazoiz pentsa eta joka! Zuri entzun bear ori. Ederra kontua, Erretore jaun. Arlo ontan arrazoi utsez joka bear guk; gañerontzean, biotzez eta griñez eta kirioz, arrazoi utsa mozkeritzat utziki.

Amaikatxotan eta beste ainbatetan zerorrek idatzia diguzu ba: nazka, asalda, arbuia, ernegua, argaiztoa ta nik al dakit zer geiago diozula arrazoiari: «arrazoipideak ezaiñak dirala» (II, 355); «eztala biotza arrazoiekin bazkatzen» (II, 753). Euskera. gaixoarentzakoxe bakarki eskatzen eta oskatzen duzu arrazoi legea, zentzun praktikua; osterantzeko auzi-mauzi guzietarako iguin badiozu ere. Sarritxotan atsegin zaizu ba gogoratzea Paskal-en ura: biotzak ere baditula bere arrazoiak eta buruak ez añaakoak.

«Pues bien: no! No me someto a la razón y me rebelo contra ella, y tiro a crear, en fuerza de fe, a mi Dios immortalizador y a torcer con mi voluntad el curso de los astros, porque si tuviéramos fe como un grano de mostaza, diríamos

a ese monte, «pásate de ahí», y se pasaría, y nada nos sería imposible». (II, 758).

Ez, Ero Aundi; ez, jaun martinkontra. Ontantxe eztizugu amor emango. Ez eutanasirik Ama xarrari. Don Migel euskaldunberri pot egin orrek Ama Euskera zapuzten diguzun arrea, zeure filosofiak ezin sutsua-goki babesten baitigu. Ta aski dugu!

Gure izkuntzari erantsi besterik eztaukazu, Aben-derrientzat eta nor bakoitzentzat zeuk otsegindako ura: obea dala beste ori? aberatsago dala? garaille dala? Bejondeiola; baña «beste bat» da. Ta ori ez, Unamuno, ori ez! «Edozer gauza ori baño len!» Zeuk esanak dira: «el pensamiento depende del lenguaje, puesto que con palabras se piensa»; «izkuntzaz aldatzea, gogoz aldatzea da»; «gogoz aldatzea, berriz, norbera ukatzea». Ta ori ez, Unamuno, ori ez! Edozer gauza ori baño len!!!

Ikusten duzu, don Migel, Unamunok darantzuzizu. Zeure «bata» ari zaizu erantzuten eta jardesten «oeste orri». Orra: izjatea ementxe re kontragitea. Unamuno, Unamunoren aurka! Mikel jauna «don Miguel»-en aurka!

Zeu ari zera, bada, zere euskerafobia ukatzen, porrokatzen, eta gure zalea goresten. Zeure filosofiak aldezten gaitu eta kondenatzen zaitu! Ta gu, jakiña, ontan itxu-itxurik Mikel-en esanetara gaude ta ez Migel-en egiñetara. Mikel-en sentikerari gatzizkio eta ez koxka ontako Migel-en estrapazu edo beaztopari.

Probetxu geiago lekarkela, euskera soñekoa bein-goz utzi ta erderaz jazteak? Egi ta arrazoi. Probetxu aldetik, ondo dakigu baietz. Lurbira zabalean ezagunago ta maiteago giñezkela artara? Egi ta arrazoi. Lizardi, Orixe, Zaitegi... tarrek, euskeragintzan bizitza eman bearrez beste onura geiagoko zerbaitean eman izan balute, atzerritarrek esker eta garrantzi geiago ukango liekela? Egi ta arrazoi. Gure jende arrunta «ikasiago» litzakela artara ta erdaldunek ezlutekela parre egiterik izango gure «vascorrismos» dirala ta? Egi ta arrazoi. Gure karreradunak eurak usuago litez-kela ta neke gutxiago lutekela ta bearbada jakinduri geiago ere bai, alboerrietako izkuntza garaiekin arre-man eta sartu-irten izateko langak eratxiz? Baietz ba, ta beste milla bider: egi ta arrazoi. Probetxu aldetik, euskerak traba ta galera besterik ez omen du, ta agiz izan ere ez du. Eztiguzu esango egi ta arrazoi aitor-



tzen zabal ez geranik. Tori, artu, nai aña egi ta arrazoi.

Egi «ori» eztugu nai! Eztugu, nai izaterik ere nai! Gure gardiz eta zure filosofiarenez, ez da ezer egiagorik edertasuna baño ta ez ezer ederragorik geure nortasuna baño. Ta guk nortasun onixe eutsi nai diogu, il edo bizi. Geure izate muñari uko egin bear izate ezkerro, ez gera sekula ezkonduko arrazoikeri oiekin.

Betor erokeria! Kijotekéria edo kijotetasuna, dana dala. Erokeria edo erotasuna. Genau, beintzat! Bakoitza bere zoroak bizi du, ta gu geureak. Ez, Unamuno, ez! ezta ezergatik ere gu makurtu arrazoi tentagarri oietara! «Eztugu biotza makurtu nai buruarenera. Fedea nai dugu. Fededunarentzat ezpaitago eziñik» (II, 758).

Or konpon, buru utsez jokatzeari gizatasun deritzatenak. Guk, don Migel, orañarte bezela gerora ere, beste zernaitan bezela ontan ere, «gorputz oroz eta anima oroz pentsa ta joka nai dugu, odol tanta eta ezur muñ bakoitzez, biotz guziz, baita bular auspoz ere, baita erraiez ere, bizitz indar guzi-guziz» (II, 725). Ots: Unamunoki, euskotarki, nai dugu pentsa ta irrika ta joka! Zer arrazoipide istatsuagorik nai duzu Kierkegaard-enuraxe baño?: «norbera ez izatea oro galtzea

da.» Edo Michelet-en beste ura: «nire ni-a, biur dezai-datela nire ni-a!»

### **UNAMUNOK:**

-Motillak! ez izan erdipoerdia euskotarrantzat; ez izaki gu gazigeza. Ondo nerau zaitut, Abendats; ondo nerau, egiazki.

Bateko, egia esan, eztakizu ze atsegin damaidazun oguzketa orrekin. Neure barneeneko izate muñjatorrenari entzuten nago zuri entzutean. Bidezko duzu, gañera, ona birresan, oso bidezko duzu etsi-eznai ori. Ta are, ta are, oso eder; sortitza bere eriosuarrean bezin eder. Ez uste, ez, arrotzen ez naunik nire Erria orren griñatsu, orren osoki, jokatzen ikusteak. Ondo ezpal bereko gaituzu bi-biok.

Besteko, ordea, Abendats, kontura zaitea: zeure burua aldeztu bearrak mintzarazten dizu orrela.

## 23. EUSKERA EZ GAI?

### ABENDATSEK:

-Zuzen diñozu: ondo ezpal bereko. Zuk eta nik badakigu pu-u-uskat eta bost alkarren baitako gurari ixo nai ñimiñoenen berri! Ezin uka: nerau defendi bearrak naragi.

Ta esan, don Migel: zeu zerk zaragi euskeraren kontra, orretzek berak baño? Zure sentimendu trajikua bikainki oiukatzen dago, bai bikainki, bai euskaldunki! «Orain eta emen sentitzen naizen auxe, ni gaixo auxe, eztedilla il; ez, ez iltzerik!» Ta esan: joran orokar orren lojika ta ondorio nabarmenenak euskera gaiean erabat ukatzeraño (euskera gaiean soilki) zerk eragin zizun, zerebaitako «nai ta ezin» baten itxusguenea defendi edo estaldu bearrak baizik?

Galdera onetxen orpo eustagarri, barka zaidazu, Salamanca-ko erretore jaun orrek, gertaritxo bat jaulki deizudan. Azkue ta zure arteko uraxe. Uraxe bera: 1898-VI-8ko ura. Bai, badakit, nik oroitarazi bearrak gabe, ondo gogoan daukazuna; gogoan... eta erlakiztenaren titipuntan.

Bizkaiko Aldundiak euskeraz irakasteko norlenka izendatu egun artarakoxe; Azkue ta zu aurkeztu, begi-

luzeka, alkarren leian; ta, jakiña! Azkuek eraman irakasletza; ankapetik eraman, gañera; ta zuk...

Zuk Ebanjelioko «seme galdua» rena egin zenun: zere sumin pardeltxoazamatu ta aide, anka! *peregre*, oso urrutira aldegin, gañera: Euskera Amari txistua jaurtitzeraño, ttu ta fu. Biraulari ez bestelakoa!

Ordurarte, gure mintza zarra «argidotar» jotzen zenun. Manterolaren «Euskalerrria» aldizkarian zenbait itzulketa argitara omen zenitun. Euskal erdal iztegia egiten ere jo ta ke jardun omen ziñen une mordoxka bapoan. Zerorrek gaztetzaro artan biozki baieztu zenigun, biozki bezin narraski badare, baieztu beintzat, gerora amaika aldiz damutu bide zitzaizun bertsutxoan:

Geure euskera baño  
berba ederrago  
ezta, gauza ain aundi  
zelebratutako.

(Milla euskal olerki eder. 676 orrian:  
«Gabon-abestia», Unamunok).

Damutzeko baituzu izan ere, ixilpean obeto zegokizukun zazpiki mirrin ori. Ta ez uste, diñona diñolako

duzula damugarri. Ez zaitzala lotsa orkoa jaulkiak baizik orrela jaulkiak. Ezin traketsago baitago joskera. Ta ezin aketzago euskera. Ori bai: koma bat tartean nik egin dizudanez sartu ezkerro, asmatzen edo antzematzen da zer esan nai dun. Zer. Ta zer orrek, zuk esanda batezere, ikaragarri arropoxten gaitu, jakiña! zeu beste ainbeste ezpaintximurtu zaitzaken arren.

Eztala, beraz, euskera baño berba ederragorik! Unamunok baiezen ori! Auxe bai dala «gauza ain aundi zelebratutako». Ezta auntzaren gauerdiko eztula. Gutxiago, bart arratsekoa. Gutxienez, kukuak Salamancara dei zizun baño lenagokoa. Dana dala, guziok zelebra zagun, merezi ere du ta, koma orren argixinta eta tinta. Bestela, zer ulertu edo irakurri or, zure kukuren nai ta eziña baizik, ku-ku, ku-ku?

Gorria egin dizu Onaindiak, «Milla euskal olerki eder» artean xelebrequeri ori plazara aurkeztean. Ezpaidizu aurkeztu noski iñork eder joko dulakoan; zu ere *in domu paterna* izana zaitugula gogorazte arren soilki baizik, nik uste. Edozein eskolakume mukitsuri agindu bertsu bat egiteko; ta egingo nuke aren euskerak zorrik ezetz zure orraoari! Asteasuarrena: ogei duro, ezetz!

Zerorrek bazenekilla ori! Pentsatzen dut baietz;  
edota beientzat norlenka maieko epailleek adirazi  
bide zizuten ori ta bost.

«Yo he escrito poco en vascuence, por ser su conocimiento y uso para mí adquirido y reflejo, pero he escrito algo; un saludo en prosa al árbol de Guernica, que se publicó en La Euskalerrria, y algunas poesías inéditas. Me he dedicado más bien a estudiarlo como lingüista. Hoy siento de nuevo amor hacia él y he vuelto a su cultivo. Yo no sé qué será, tal vez que entro en la verdadera madurez, y con cuatro hijos ya, pero siento en mí una gran evolución de ideas y que hundiéndose cuanto tenía de negativo, me completo y arreglo.»

(Carta a D. Emiliano  
de Arriaga. 1887.  
Boletín del Inst. Ame-  
ricano de Estudios  
Vascos.  
Abril-Junio 1955).

Zu bezelako aundi gosetu batek nola etsiko zun ba euskeragintzari buruz nai ta ezin ortan? ezilkor gosea lumaz ase bear ta. Izerdi patsa bapo ateragatik sasi lardasketa ori baño atera ezin zunak bearko etxagua utzita urrutietara alde, alara ta kakara, arrautz oberik nun erron.

*Adixkide laztan, eun bider gaxoa:  
gogapenak elkar bil-ari meñoa  
beñola zaik eten... Adi jauregia!  
jabe dituk, geroz, gaua ta nasia.  
Aldegiña aiz urrun, lagun biozbera,  
adi-mugaz aruntz erbeste itzalera!*  
(Lizardi'ren «Agur!»-etik).

Arrezkeroko karrasiak dizkiguzu: euskera ez omen dala gauza jakintzarako, idazketa garaturako, aurrera-penatarako. Euskera eztala gauza! Egi egia diñozu, Unamuno, lau itz oiei bosgarren bakar bat aurretik ipiñi ezkerro. Zure euskera ez da gauza! Zurea ez. Ezta urre eman ere. Aixtiko bertsu narras ori lekuko bat, eta berakin sobera.

Ooortxe egon koxka. Zure euskera ori etzan gai titia edateko baizik. Bai orratio Azkuerena, zuri aisa

irabazteko lain beintzat, eta baita... beste kukurruku bapoagorik jotzeko ere.

Orra dana buka: zure «peregre» edo urruti ori *euskaldunberria*-rena duzu baitipat; euskera lerrenez ulertu ta lerrenagoz erabili daikenarena. Nai ta ezin dunarena. Euskeragintzan al baleza, aguro ortaratuko litzaigukenarena. Nai ta ezin ori, ordea. Nobleki ez aitortu gura. Estaldu egin gura, edo defendi, etsi-etsian, naizta artarako zeure euskaldun taju jatorrena zanpatu bear izan.

Gizona, ez mukerrik. Zerorrek idatzia doroizut. Bartzelona katalaneraz ari dan ezkeru, ari bedi Kataluña ere; Bilbo, ordea, erdaldun dagon ezkeru, erdaldun bear du Euskalerrriak (I, 813). Nik niketz onela jaso -ta asma?- nizun: Unamuno erdaldun ari naizen ezkeru, erdaldun bear gañerako euskotarrek. Ez al da ala? Bai edo ez? Asteasuarrena berriro, bestela: ogei duro, baietz! Noski ba! Azala zu!

Ostera, aguro itzuliko zitzaiguken bai gure «seme galdua», gure Parisko Bakartia, senideokin otorontz egitera! Onuzki, Atorkit, Onuzki, gaur oroimenera!

### **ABENDATSEK DARRAI:**

-Egon, egon oraindio. Beste gauza. 1902an askatu zenun, naiko ozpinki, zere pardeltxo: La cuestión



del vascuence. Oraindik etzaigu jun askatu zenuneko pipermin kirastxo, bai miña; zizta-miztaka domistiku daragigu oraindio.

Orduko euskeratik gaurkora, ordea, aldea dago, jaun Mikel; alde aundia. Eztakizu ondo! Billobok arras bizkortu gera euskeragintzan arrezkero (ta, dakusazunez, baitare asi gaituzu, zuk aspalditxotik nai ta itxaro bezela, «aitona»ganako goratzarretan ere, begirunez eta maitez).

Arinkiegi aierutu zenun gobernuak gure elea legezkotzat babestuta re au etzala gai izango euskotarron aurrerapide ta mintzabearretarako, berezko zula ta gauza eza ta baldarra ta aketza. Ai don Migel! Gure Onuzki, erbeste itzalera joana!

*Iradimena uan giarra, yoria;  
bañan, ega-baldar baitabil txoria  
lurrera bearka zauri doanean...  
Odol eri batek ezetua iduri,  
beltz-ikusbera uan, izukoi, urduri...*

Aor gure Orixe jauna; edo, obeki esan, aor gaurko euskera Orixeren luman. Eeh? Eztuzula ezagun? Or dago ba! euskaldun berriek nekez ezagun, nekez

gogara irakur dezakete «Euskaldunak» naiz beste zenbait gaurko euskal liburu aski eder.

Orixe euskera barrutian, gizona, gure Unamuno dugu; zeure kide-kideko, eitez zeu bera emateraño: sakerra, aserrebera, Jainkoti, gizatasun latzeko, jakitez aña gizatasunez mireskiro orni-okia; sentikorra.

Bere euskera zure erdera legetxe: zorrotz, giar, zernaitarako ezin bizkorrago, ondorengun eredu ta arrobi. (Ezetz ba! 1902ko euskera ta gaurkoa eztirala malla bereko...)

Bere olerkintza zurea berbera: azalgogor, muin uts, meriñake edo zizpuru tutik gabe, basatiar sendo, basurdetzat berak bere burua jotzeraño. Biok, olerkari ala pentsalari zer geiago zeraten galdetzekoak, zuengan bi-biak bat datozelakoz, zure arako iritzira: «filosofia geiago etzaten da poesi aldera, jakintzarenera baño» (II, 716).

Bion mendua re, zearoko berdin, anai, euskotar uts; banago biok berdiñegi ez ote, euskotarregi ez ote, alkarrekin ondo etorri zaitezteken... Biok, Jainko billari purrukatuak; au ortodosu pijo; zu, berriz, eterodosu batere ez biguñago.

Mendu edo izakera berdin orretxegatik, ordea -orretxegatik! jakiña!- jokaeraz biok alkarren urrutie-

neko: au euskeraz, zu erderaz; au Santa-Kuztar, zu liberal; au ondoz urduri bezin gainbare, zu azal eta mamiz asaldabera; au klasiku, zu patetiku esigabea; au buruti geienik, zu biozti leraz eta arrandiz; au mutilzar, zu guraso; au jesuita izana, zu... zenbaitzun karikaturetan soilki.

Baña biok, bai maitagarri, zeon aje ta guzi! bai euskotar zoragarri, mardul! Sorreraz ain bat, abian ain bi!

Sinista: asiera batean «Euskaldunak» etzitzaidan ain betegarri, ain zearo gogoko. Legortxo edo, tramarik eza edo... arkitzen nion edo zion nirezko drama zaleak. Baña, orain...

Sinista, don Migel: orain eztut uste emen añako sendotasunik xurgatu izan dudarik beste iñungo erdal poemetan. Alako poesi jatorra, alako berezkoa, alako gizati, aizunkerik gabea, alako gurea bai izkuntzez eta bai baserri giroz! Itzaurrean egilleak berak dasaigu, ta dagoneko erabat men natzaio: «gure euskera bizkor onek, ondoko erderak baño erri-erriari gauza izkutua-goak eta geiago adierazi baitezazkio, nik uste.»

### **UNAMUNOK:**

-Artaraño! Nork pentsa bear zuken! 50 urtean euskerak olako miraria! Jarrai...

## **ABENDATSEK:**

Sinista, don Miguel: zuk zeniñonaren kontrara, euskera geiago ondatuko du bai, berezko gaiezak baño, eskoletan ez irakatsiak, irrati zineetan ez entzunik, egunkarietan ez irakurriak, idazleen alogeraezak eta ondoriozko aien biozgabetzeak, erderaren lapurretak: ots, beingoz amai, gobernu etsai alorodunaren jazarkak.

Orrela makilkatu ezkerro, esan, Unamuno, esan, zein izkuntzek uste duzu iraun daikela osorik, bizirik?

Orra Panama-urian erdera, gaztelera panparroia; orra Antilletako zenbait ugarteetan; ikastetxetan ingelera nagusitu zaiolata, beste gabe, illurren omen dago. Alajaña, ezer gutxikin jausi da Goliat. Ori al du *berezko* indarra?

Gure mintzaira ximurrari bosteun urteon barrutik eta kanpotik! egiten zaion jazarka amorratuagoa ta zitalik zitalena izanagatik, bizi oraindio alare, bizi beintzat, bere zimelean. Berezko izango al du indar ori; ez beintzat zuk eta gobernuek emana! Goliat erraldoiak ere erraldeka omen zun zangarra; baña Dabid txikiak iraitzita, bekain-bekañeko arrikada bat asko izan zan ura ankaz gora etzateko zerraldo... Zerbaitegatik, Unamuno, baezpadan eztizkigute ematen bi izkuntzek

berdiñetik berdiñera alkarri erasoteko armak! Zerbait egatik!

Zoaz, euskera gaitua dugula ta, zoaz oraingo gobernu kuttuntxo orrengana arrazoika, gaurko euskeraren aundikia ta merituak gorantzika: Zaitegi baten jauntasuna, Andima baten edo L. Mitxelena baten kirioa, Bordari-ren gatza, Basarri-ren bertsolaritza, Etxaniz baten liriku sena, Barriola naiz Lojendio naiz Arrue bezelakoen solas galaia; Manzisidor, Sorarrain, Aita Emiliano, Zugazti, Markiegi, Ibargutxi... tarren xaloa; Oiartzabal, Ibar, Villasante, Lafitte, Altube, Lhande... tarren pixua ta zorrotza; Tapia, Lora-mendi, Montzon, Loidi, Jauregi, Manterola, Etxeberria, Arruti, Arrese, Erkiaga, Irisarri... ta abarren labaña, arnasa, goitargia; Lauaxeta-ren txanbeliña; Mirande bipillaren Paris-giro jeiki satira; Lekuona-ren aratza; Lizardi-ren zernaitarakoa; Kirikiño naiz Urrutzuno-ren xirto-ipuiak; Barrenso, Txomin Agirre, Anabitarte, Eizagirre, Iratzusta, Etxaide, Loidi, Txillardeg...tarren nobelagintza; Alzaga edo Labaien-en antzerkiak; Hamlet, Sopokel, Iliada, Balmes... ta beste giza sorkari nagusien itzulketak; Onaindia-ren liburuko ia 300 olerkari ta beste ez ezagun mordoa; euskal liburu sorberrien ugaria ta mardula; jendearen irakur gosea;

ainbat gazte eredugarrien euskera ikaste ta saiaketak; sorteri ta atzerrietako aldizkariak...

Zoaz urteotako gobernutarrengana guzi ori gorantzika euskera gaixoaren alde... emango dizute aurretik Judas-en pa ta atzetik ugazamaren ostikoa. Eztakizu ondo, Unamuno, azken urteotakoa!

## 24. GURE BIZKAI GUDA!

### UNAMUNOK:

-Jarrai, adiskide; onako ontan konberti bear nazu ta. Adi-adi nagokizu, jo ta ma nagokizu, mundu agertu berri bati so...

*Asaba zarren baratza,  
untzadun ormek esia...  
Otzaldi zoro baten itzuli,  
joka nagokik atea.*

### ABENDATSEK:

-Konberti, ez. Eztuzu konberti bearrik. Urrutiko seme galdu ori beti izan zaitugu euskotar zale; zalez gañera euskotar izale, amasei saietsaldetatik. Zuk eztuzu erru, amak zuri euskeraz ez irakatsiarena; eztare, zu il ondoz zure Bizkaian jazo ez ikusiarena. Begiz ez ikusiagatik ordea, sumatu edo iragarri baietz niñoke. Zure euskotasunaren eragitez, sarkorrez eta iragarpenez, esan diteke, zuk Bizkai guda ori alde aurretik somatu ta asmatu zenula bere trajediaren bikaintasun mamienean. Don Kijote-ren eta bizkaitarraren arteko «combate» uraxe berbera izan baitzan,

aldeak alde; ta kapitulu artako zure irizte ta kontzetuekin gainkiro kontatu naiz gogartu ditezkie zergati ta ondorio nagusienak.

Aldeak alde: aurreratu dizut. Ezpaizan Don Kijotetik gudu artan, izatekotan gure alderditik baizik. Gure alderditik Santxo de Azpeitia-ren betiko «Vizcaya» jokatu zan: «leñargia, zindotasuna, andikitasuna, kijotetasuna» (I 749); kijotetasunak utzia baitu Españi erdigunea ta iñun izatekotan Euskalerrian baitugu gaurregun (I, 749).

Ta etsaien alderditik joka ziranak? Onatx zeintzu batezere: «beren pentsakera ta sentikera Españitik beingoz suntsitzea nai zenituzken aietxek» (I, 741); zuk ainbat bider nasketsitako militarismua, beduinismua, piztikeria, hipokresia, baezpadako katolikutasunaren gezur ikurrina (kierukeria zeninoken zuk), erbestekeria...

Gogora, 1936, zure azken illabete gotillun aiek. Gipuzkoa aguro erori zan, erreketek sartzean. Aguro ta ergel eta lotsagarri erori, giputz-bizkaitarrek beste bateko oldarra galdu bailuten. Bazirudin illik zala Euskalerrri.

Non dugu gure Kantauri menderakaitza? galdetu bide zenun, ez tamal gabe. Naparroan bakarrik? Biz-



kaian zegon, Unamuno; zu ilda bertako Bizkaian. Antxe bai gudaldu zirala bizkaitarki, zuk esan oi zenunez!

Don Kijotek arerio gaitzena bizkaitarragan topa zula? bai Mola muturbeltzak ere. Ni zaldun ezetz? orrek sumindu Azpeitiko Santxo. Gu Erri ezetz? orretzek gudariak ere irakindu.

Ta an eraso zioten, «zeru ta lur arruak jan bearez». Bizkai mendi bakoitza, Mikel jaun, ia oma edo tontorgune bakoitza bi ta iru ta sei aldiz -sei aldiz ere gero, don Migel!- artu ta utzi bear izan zituzten batak eta besteak.

Ura zan ura! Etziñaken gutxi illarrainduko ura ikusita. «Iñoizko eunkitik iñoizkoren batera baño begizta ez daitekena» deitu bearko, Unamuno, uraxe re. Bate-tik, nazitarren indarra, burnia, militar teknika, ortzian beitz; lurretiko napar, mairu ta italiarrei laguntzen. Bestetik, giputz-bizkaitarren euskal etsi eziña, beren kemen izuan billotzik, zeri eutsirik gabe, defenditzen zuten lurrarixe baizik. Aiek egunez eraso ta oek gauez erantzun. Aieegunez arrapatu ala oek gauez berentzako-tu. Orixe izan zan iru illabete lurpuxka bakoitzeko jokua takontua.

Nazitarren abioiek, artarako, goizean goiz odeietan agertuz eta gordez, erruki gabe zanpatu, kizkali, txautu, zabortu, azpian arrapatu ala, zana zala: trintxera edo uri, gudari edo umegorri, fabrika edo eliz... orrela sarpidea irikiz txapelgorri bulartsuen abantari eta mairuen piztikeriari. Bizkaitar lurgalduak, beren aldiz, illunkarari itxoin bear, berdiñetik berdiñera erantzungo bazieten; eta ala, burni beleen burrunda ondaketak atertu orduko, gauaren babesera eraso berriro, su ta gar, utzitako lurpuxkaren billa, jo beinberriro il edo bizi, zan bezela zala, eskubonbaz ezpazan soin agiri utsez, ez etsi beintzat, ez etsi iñolare, egunargiz galdutakoa ber-eskuratu arte eta sarraskiaren gain Bizi Naiaren ikurrin maitea ber-ipiñi arte...

Ez, Bizi Naiarena bakarrik orratio ikurrin ura. Euskal Bizi Naiarena añaxe, zure filosofi oso-osoarena ere bazan, Unamuno. Zure filosofiak Bizkai gduantxe ikusi baitzun, ikusi ta jo, bere Tabor eta Golgota, bere aragitze ta apoteosi bikañena, bikañagorik nekez amestu al bezelakoa.

*Goiz artan Tabira'k, esnatzean,  
txori beltzak zituan ortzian...  
Eleizan kristauak otoitzean:*

*sapaia jausi ta arrapa azpian!*  
*Apaiz zartxo bat da mezalari*  
*Jauna eskuan dula ilda jausi!*  
*Ta Jainkoaren Odol bera*  
*ixuri zitzaigun lurrera...*  
*Onelaxe dala bat egin*  
*Aren Odol Erriarenakin!*

(Montzon. «Gudarien egiñak»).

Goraipa bezate, zuzen dutenez, rusuek Stalingrado, prantzesek Verdun, frankotarrek Toledo-ko Alcazar; guk gere izkutuko martirolojiu ederrean, dagoneko Orreaga-koa ta ganbaratuz, beste onakuokin izango dugu naiko arrandi ta erakusburu: Durango, Gernika, Artxanda, Lemona, Sollube, Sabigain...

Orren zinki, orren zinki, bere erritasunari eusten dakin Erri batek ez du merezi iltzerik, Unamuno! Egia berea du, ta «egiak geiago dezake makillak baño. Lenago autsiren du egiak makilla makillak egia baño».

Urteotako gobernutarrek, gezurra ta zikiña aiola, alegiñak ari dituzte gudari miresgarrien aunditasun eta gurentza paregabeak estali ta lokazten. «Egiz» errebista bera ere debeka digute. Baña eztiogu bildurrik geroaren epaiari. Gaurko gaitzesanak eta gaitzus-

teak urratuz justizi egingo zaigunean, ez du ezerk ito al izango norgeretasunaren artoa ta irrintzia, ozkarbiz ozkarbi: Onatx gu, Unamunoren Erri!

Iñoiz izan al da gero gure Euskalerrri orduntxe bezin Euskalerrri? menderatua izan zaneko orduntxe bezin menderakaitz? Zerk menderatua, ordea? Bere buruak! bai, bere semeen arteko kontragiteak, bitaratzak, alkar iltzak. Eztugu aztu bear naparrak ere euskotar dirala. Aitortzeko da, ta arrigarri ere bai, nolako benetan, nolako euskotarki, jokatu ziran oek ere beren idealaren edo ideal ustekoaren alde, erabat odol ustutzeraño. Bai noski: oetxek ere, Unamunoren Erri!

Mando kaskallu eozkorragatik izan ezpalitz larri ibiliko zala Don Kijote? Bai onakoan ere gallego mokorra bere erbesteri ta guzi.

«Utzi mando gaña!», otsegin zenigun, «Mando ori eztuzute ta etxeko»! Deadar kontseju orri entzungor egiñak galduazi zigun gudua: ots, kanpotarren iruzurak, napar-bizkaitarrok batabesteen aurka ipiñi ta burrukaraztean, erlijio gezur aitzakian, ezpaitzan ontan alderik; ta baitare, norgere betiko «iñuzuaren» antinomi ta antagoniak.

Gerezko ta kanpotiko antagoni onek, alare, txar  
aña on ekarri zigun, badakusazunez: gudua galduazi  
aña gure idealismu ta heroismua azi zizkigun eta  
gallurtu izarretaraño, sekulako ederren. Betiko para-  
doja: gure zoritxar aundiaren zorion aundia! «Gudian  
pake!» ta... pakean gudu!

Bizi izatera, bai galanki poztuko zindula, Unamu-  
no, zuretarren idealismuak, zintzoak, sendoak eta  
eriosuar egundoko arek. Eriosuarkiro gudukatzea  
napar-bizkaitarroi toka zitzaigun; irabaztea militarrei,  
madridarrei; ta galtzea, jakiña ba, erabat euskotar  
guzioi; aiei parre egitea toka zaie orain ta guri nega-  
rra, damua, amorrua. Garaitu omen gaituzte, Unamu-  
no, baña ez arranea konbentzi! Bizi izatera, bai anbat  
ill arrainduko ziñala zeuk eriotz aurrez jaulkitako ira-  
garpen mardul aretxen egi ikaragarriaz: «Venceréis  
pero no convenceréis!»

Antzematen dizut: pentsatzen zaude gugatik guk  
zugatik pentsatzen duguna, ez al da ala? Guk zugatik:  
«Etzaitugu batere gutxiago: geu beteko euskalduna!». Ta  
zuk gugatik: «Etzaituztet batere gutxiago: neu  
beteko Erri!» Bizkiaren Sarrerakoa, ain zuzen:

*Geroak esan beza:*

## *Erri bat izan zan!*

Uztadazu apurtxo bat oraindik. Zillegi zaidazu, beste bein, zure «desahogo lírico»etako bat. «Maiz-diñozu-, ondo re ondo maiz, biotz irrika miñenez kutizi izan dut fede sukarrezko epoka aietakoxe batean bizi izan izatea: edo neurrigabeko griñak eragindako erri baten sabelean, edo guruztarren (cruzados) artean, edo albitarren (albigenses) artean, edo Cromwell-en gudozteekin, edo Coligny-ren hugonoteekin, edo Enrike Suso-k bere penitentzi ikaragarriak artzen zituneko monasteri barruan» (II, 582).

Etzeneukan epoka aietaraño alda bearrik. Onatx erri ori, zeure egunetantxe, zeure Bizkaiantxe, sukar santuak gurenduta, Gernika-ko erreketak ondakin arte-tik, bizitzarekiko sentimendu larrienean zeruari ta lur-birari oska: «Bizi! Bizi!»

## 25. «SEME GALDUA»REN ITZULERA

### UNAMUNOK:

-Tamala, antxe ez egona!

### ABENDATSEK:

-Gurea tamala, don Migel, zure aberkideona tamala, zuk guzi ura ez ikusia. Eeeh? Irri dagizu? A, ta bai, badakit zergatik maltzur orrek. Erkideek eurek erailko ez ote zinduten otu zaizu batbatez, ezta? Ondo dakizu olakorik ezetz. «Garbiketa» oiek Millán Astray-tarrenak ditugu gurean, aietxenak soilki. «Gudari» en idealismuak añaxe, añaxe ta are geio bearbada, arrotuko zinduken Bizkai Gobernuaren gizatasun paregabeak, presoenganako gizalege ta onbera geiegiak.

Geiegiak esatean, badakit oker mintza naizena. Ontasunak ezpaitu geiegirik. Bizkai gobernutar eredu-garrien zuzentasuna ta gizabera, ta gizabera aren zabalera ta barrunera, nolerebait adiraz bearrak mintzarazi nau orrela. Eta orduko «ogipuzkaegi» izatearen ondorio negargarriak.

Montzon-Olaso-ren «Gudarien egiñak» duzu puntu ontan erakusburu zoli. Poema ortan eztago etsaien-

tzat txarkeri ttipienik; gudarien gogo gurenda erpiñe-  
na abesten dizu soilki, gazte-lekaio garbienez, olerkiz  
olerki:

*Euskalerriko mutil gazteak  
-Aingeru, naizta Gudari-  
gorroto gabe jausiak dira  
mendigoietan kantari!*

Ai, Unamuno! Ai nola mentz-esten dugun! al  
zeñen irrika dugun! Bizkai gudu orri zor zaion Kondai-  
ra nagusi, egiti, diñezkoa! Edota, berdin, tajuzko peli-  
kula badare, naiz nobela jator bat. Kondaira ori bere  
gizatasun osoan lurbirak dazagukenean, aitor bearra  
izango du, bai anbat, nai edo ez: «Lengo lori koroari  
orratx zenolako istarri bitxiena erantsi dioten orainki  
euskaldunek, gudarienakin!»

Guzi ura ez azta dasta bear zuk, Unamuno. Zeruak  
nai izan zun zu ere, bost-sei illabetez aurrea artuz,  
zure bizkaitarrekin erortzea!

### **UNAMUNOK:**

-Ola iltzen dakitenek irabazten ditek ezilkorra!  
«Eriotza diagu, eriotza, ezilkorgille» (II, 356). Zuek bizi  
duzute Egia, «Zer da, azkenera, egia? Gogo ta biotz



guziz sinisten dugun uraxe da egia. Ta zer da gogo ta biotz guziz sinistea? Aretxen agindura jokatzeara» (I, 800). Ezin uka: zuek bizi duzute bai Egia, Egi gorenekoa, Ezilkorra.

Eztira musu uts billakatu nire aspaldiko iragarpen edo profeziak. «Don Kijoteren bizitza aztertu ta idaztean esana dut zenbat eta zenbat itxaro daiteken nire arrazarengandik» (I, 741).

«Gogo kulturaren bizitza sakonerako Españan erririk gaiena Euskalerrria dugu, ni ortan nago» (I, 743). «Venceréis pero no convenceréis!». «Egiak makillak baño geiago dezake. Lenago autsiren du egiak makilla, makillak egia baño» (I, 731). «Sería la ruina más completa de la patria el que continuaran apareciendo como los heraldos del patriotismo los que quieren hacer españoles a palos» (I, 749). «Decid vuestra verdad siempre; decid lo que se cree ser verdad, siempre y en todo caso, pero muy en especial cuando más inoportuno parezca decirlo. Es lo mejor que puede hacerse en un mundo de mentira: morir de ver la verdad!» (I, 800).

Nola ez naiz ba pozez zoratuko, zoratu bai zoratu! nire filosofi muñena neure Erriagan mamituta ikustean? Ezin obeki mamituta, gañera: ezin areago

gurenduta. Egia, arranea! «Ez batere gutxiago: bera beteko Erria!»

### **ABENDATSEK:**

-Ez da makala, Unamuno, iragarpen oiekintxe damaiguzun poz beteka! Aspalditxokoak dituzu. 1906 eko eta aurreragokoak geientzu. Ta orra nola egunotan iñoiz baño gallurrago jeiki diran, mundu osorako tximistargi, gaitzusteak uxaka.

Mundu guziak kondenesten gaitu. Baita al bait lagundu izan diegun aiek ere, ainbat eta ainbat zor digutenek ere. Danek kondenatzen eta ostikatzen eta iguintzen gaituzte: zarta! zarta! zarta! Ezin ukatuko digute, orratio, guk norgere egia, naizta ez izaki bere-na, zuk aolkatu bezela zinki sinistu dugula ta zinki defenditu, gudu ta pake, ta beragatik bizitza ere opaldu martirioraño: egia! egia! egia!

Zuk soilki, Unamuno, onesten eta babesten gaituzu! Milla esker zuri Abendatsek, euskaldunek, Aberri osoak!

Banekin, biotzak ematen zidan, Bizkaikoa gogartuta beste euskotar askok egin dutena egingo zenula zuk ere: urrutiak utzi ta etxera biur. Zuk, alare, biur bear aundirik etzenun. Zerekin baitzeneraman abenda betearen Irritsa! Ta baitare, orregatitxe, aide

aurrez mireskiro asmatu ere zenun gurekin gerta bear zuna! Esaera zarra dugu: otsoari erortzen zaio kalparrara, baña ez larrua.

### **UNAMUNOK:**

-Ez duk gezur itzul bear aundirik ez nuna. Nire liburu ta gogapenok, lekuko. Itzul bear apurra, «beaztopa» airtortu bearra, Don Miguel-ek zikan soilki, nire-baitako Don Miguel merkatariak. «Que uno es el hombre de todos y otro el hombre de secreto». «Oh! mi Bilbao, tus banderizos junto a tus mercaderes en mi alma viven sus vértigos.» Jaiotzatiko Mikel jaunak etzian itzultzerik, ezpaizin etxagua sekula utzi.

«El espíritu auténticamente vasco de Unamuno permanece inalterable, a pesar de esa actitud contra el vascuence».

(«Guernika». Enero-marzo, 1952. Por Iranzo).

«Entristece oír que nos celebren lo menos nuestro, tomándonos así de arca de conocimientos y no de espíritus vivos, como appena que delante de nuestros hijos naturales, de las flores de nuestro espíritu todo, nos alaben a los

adoptivos, a las meras excreciones de la mente. Hay elogios que desalientan...» (1, 251).

«Yo nada encuentro como mis montes, que me cobijan, los valles que en una mirada se acarician, los caseríos blancos, los árboles hojosos, y pensar en mañana viendo, sobre el humo de las chimeneas, el penacho de humo de las fábricas... Cuando lleguemos! Cuando lleguemos al concierto universal!». (De mi País, Castilla y Vizcaya).

«El vascuence es la lengua mejor para los que la hablan, por ser la suya y lo de Musset: aunque mi vaso sea chico, bebo en mi vaso». (Carta a Emiliano Arriaga, Boletín de Inst. Am. de Est. Vascos. 1955).

«Hoy siento de nuevo amor hacia él (el vascuence) y he vuelto a su cultivo». (Ibid.).

Laín Entralgo-k galdetzen dun «ixilpeko gizona» eta jendeek ez dazaguten benetako Unamuno, Mikel jauna duk, euskotar Mikel baitipat, «naizen oro ta balio dudan oro ene arrazari zor diot»ana. Nire betiereko Mikel jatorraren barne muñari Jautarkol-ena gerta izan zaiok bete-betean:

*Olerkari nauk ire abestiei esker;  
ik kanta, nik idatzi; etzekit beste ezer.*

Buru-arrokeriari begiak ixtea aski nin ene Aberri txiki-aundia ikusteko ene baitan, eguzki antzo, bere ditzira paregabean. Gizarte txaloari belarriak ixtea aski, Iparragirre-rena aditzeko, bularrean lertzori:

*Egia, alde guzitan  
toki onak badira.  
Baña biotzak dio:  
-Zoaz Euskalerrira!*

Zoaz Euskalerrira! barne oiu orrek, gero ta tenkorrago, egunetik egunera erasokorrago, atximurkatzen nindukan, Berenguer eta Primo de Rivera-en gobernuek iraitzita, Canarias, Portugal, Paris zear, atzerriogia jan bear izan nuneko urte lerro artan. Eztiat berealakoan aztuko Hendaya-tik zear Bilboratu nintzaneko «bigarren jaiotza» paregabe uraxe! (González Ruano. Opus cit. Cap. X)

Izan ere, ala izan uan atzeritik Euskalerriratze ura: nire bigarren jaiotza. Bilboratzen nintzan bakoi-

tzean, iltzen uan «Don Miguel» eta jaiotzen Mikel «ixilpekoa». Gaztetako Mikel jaiotzen tolesgabeko siñestun eta euskaldun.

Vuelvo a ti, mi niñez, como volvía  
a tierra, a recobrar fuerzas, Anteo;  
cuando en tus brazos yazgo en mí me veo;  
es mi asilo mejor tu compañía.  
De mi vida en la senda eres el guía  
que me aparta de torpe devaneo;  
purificas en mí todo deseo,  
eres el manantial de mi alegría.  
Siempre que voy en tí a buscarme, nido  
de mi niñez, Bilbao, rincón querido  
en que ensayé con ansia el primer vuelo,  
súbeme de alma a flor mi edad primera  
cantándome recuerdos, agorera,  
preñados de esperanza y de consuelo.  
(De mi País. Prólogo).

Itzul bearrik ez Mikel-ek, zuzen diñok; beti berekin eraman izan zin Euskalerra. Gogoan zeukat nola Ruano-k bein galdetu zidan ea ze inpresio modu gordetzen nun, Madrid-a artean mutil lenbizikoz eldu nin-

tzaneko artaz. Batere moteldu gabe, zan bezela erantzun nitxeon, naiko gordin: «Madrid lenengo egunetixe aierti izan zitzaitan. Berebat Paris ere. Nire lurraldea oroitzeko eta bertaraxe itzultzea amets egiteko an bizi nintzan soilki» (Ruano, cap. II).

Itzul bearra «Don Miguel» ek dizute soilki. Barka zaiozute, baldin barkakizun balitz, erderaz jarduna, besterik ezin baitzun, gizandi billakatzekotan. Barka zaiozute, baitare, bere filosofi liburu mardulenetan España gorestean Euskalerrria geiegitan ixiltatua, Migel-en España Euskalerrria bait da, Euskalerrria ibai ugolde antzo berebaitan kabi ezinda Ebroz aruntza gañezka.

Barka zaiozute, batezere, Euskeraren kontra itze-giña. Auxe baitu bere pekatu larri. Ta ondo euskotarra pekatu auxe re: nai ta eziñean ez etsi nai ba. Ogei urte aundi eman zitun jo ta ke euskera ikasten, poesi ta izlaur idazten, itzulketak egiten, iztegi zangar bat antolatzen ere alegin guzian, bai benetan! eta, alaz guziz, asierako moztasunetik ezin burua iñarrosi, ezinago Azkuetarren ondoan Lendakari jeiki; zer besterik zegiken gizajoak, bere moztasuna aitortzeko umiltasunik etzun ezkerro? Zeok, euskaltzaleok, ez al zenute-

ken berebatsu egingo inka ortan, nai ta ezin ortan, atxilotze ezkerro?

«Gernikaz berriro idatzi bear banu, gaur ondo bestelarik negike» (De mi País. Notas). Don Migel gizajogatik izan ezpalitz, *La cuestión del vascuence* orondo bestelarik epaituko zuken bai Unamonutar Mikel-ek. «Dentro, en mi corazón, luchan dos bandos.» Ta onakoan Migel-ek Mikel menderatu ta presatzea gerta zan.

Barka zaiozute, arren. Esan nai da, aztu zaiozute-la okerra. Barkatzea, okerra aztutzea da. Barkatze, Don Migel berbera ere euskaldun jotzea da, atzerritar guziek jotzen dutenez.

Bere pekatuan izan zun naiko penitentzi. Gizajoa bai! «Pobre Miguel!». Lizardi-ren itzok Migel-entzako-xe idatziak dirala genesake:

*«Adixkide laztan, eun bider gaixoa!»*

*«Adixkide kutun, lagun zorigabe!... »*

Eztakizute zenbat sufri bear izan zun. Nik dakit, Mikel-ek daki ondo, zenbat sufri zun don Migel-ek. Euskalduna izaki berbera ere, ta euskaldunen kontra egon bear, besterik ezinda, bere «beaztopa» gordeko



edo defendiko bazun. Alegiñak egin zitun erkideenganatzen, oek bereganatuko zitulakoan. Bañan, bai zera, alperrik. Etzegon Euskalerra don Migel-enganatzerik.

Berak etorri bear azkenik, barkazio eske. Ona non datorkizuten. Mikel-en eskutik, 1936 ko don Migel gajoa, Millán Astray-tarrek ostikokatua, ainbat maite izandako bere España gaurregun iñon arkitzekotan zugan Ama Euskalerra! arkitzera.

«Aize erauntsiek naiz ixil giroek itzul mezu orixe zekarkidaten noiznai edonundik. Eta ametsek eta gauordu luzeek eta egun bakartiek, danek, aolkatzen zidaten onata itzul nendin. An nire bizitza astiro itzungiten zijoan; ez par ez negar negin gogara. Zer nai didazun jakiteke eldu natzaizu. Besterik ezin, besterik ezin zitekelakoz itzuli natzaizu»

(E. Ibsen. Peer Gynt. Act. III).

### **ABENDATSEK:**

-Ongietorri, don Migel; eta ongietorri, dakarkiguzun España! Au al dugu, 1936ko España bazterreratua? Auxe, beraz, zuk anbat maite izandako zure España benetakoa? Bai ona, bai ixila, bai sufritua, gajoa. Ezagun du arpegiko zurbillean naiz jantzien zarpillean bere lurraldeetatik eskale antzo botea izan dala

semeeek ezetsita ta iñon zuk ezin izan diozula aterpe-rik eman.

Ortaraño ukatu ta aztu Ama Gurgarria gaurko españiar nagusi arroputzek, ta onen ordez beste Arro-jantzi ura etxekotu, ugazama tuntun, arronkalari, arrapari, biozgabe ura, lotsa ta nazka jario! Izena beste zer ikusirik eztigute izan ere alkarrekin zure Españi onek eta beste ugazama orrek.

Tuntun ez bestelako orrek -ugazama izan bear!- «makilka egin nai gaitu españiar». Beste au aterpea ta beroa umilki eskatzen datorkigu eta aitortzen digu: zuen bearrean naiz.

Tuntun orrek «goraipatzen dun gogakuna berbe-  
rak eztu sinisten eta sinisten duna, uraxe, eztigu aipa-  
tzen; gezurretan ari zaigu». Beste onek, «Imponéos!»  
arregatzen digu, ots: euskaldundu nazazu.

Tuntun upelak, aldiz, militarismua azartzen digu benetako patriotismutzat, Kijano-tarrak dizkigu agin-tari, beduinismua nagusi, zintasuna atariko aize, ondamua eragille, euskal gorrotoa ta eriotza asmo, lapurretak eta odolketak gizalege, aundiustea ta jaun-txokeria oñarri, absolutismua jomuga, miseri onda-men izuena ondorio...

Ondo bestelako, zure Espāñi gurgarri au! Eztauka azturik, erromar eta godu eta mairuen denboretako etengabe artan, Espāñian Espāñirik etzaneko artan, gu gindula Espāñi; ta gaztelera, noizpait sorreraztekoan, lenengoz euskotarrek mintza ziotela; ta ispañitazuna Indietara eramatekoan, beste iñungoek ez aña gerok eraman geniola; ta gaurregun ispañitasun ori iñon bizitzekotan gureantxe bizi dala. Badaki ta eztu azten, guzi ori ta geiago zor digula.

Españiarretan españiarren jotzen gaitu. Argatik bere-bere nai ginduzke baño aske uzten gaitu gere gogoia ta aukeramena zertu dezagun gerekaxa, gure nolanaiko irabaztea beretzat ere irabazte izango litzaketakoan.

Maiterik maiteen gaitu. «Flor del alma de mi España» deitzen digu. Ta zintasun osoz opa: azi zaitezteela, indartu; ta jabetu ere bai nire lurraldeetat eta semeez.

Ta buruenik orainki, «nazi»tarrez eta nazikeriz bere zabaldiak josi ta ito zaizkionean, ona non dakarkiguzun, don Migel, zure 1936 ko Ama Espāñi gaixoa, eskerronez eta arrenez, txoko baten eske, españitasun billa.

Gure Bizi Naiak, ia beste iñon ezta, zure filosofian jo du bere aterpea ta zuk gure Euskalerrian jo zure España. «Euskal liberalak etsai usteko karlistetatik milla bider urbillago daude, españiar liberaletatik baño.» Baita zure Españi eder auxe re milla bider atsegiñago ta kideago arkitzen da gurean, azken gizaldietako agintari burruntzari aloronaieen sasi-Españi orrekin baño.

Agur bai ta ongietorri, Españi Aundi! Unamunoren Españi! Abagune ontan agertu nai dugu mundu guziaren aurrerako, zurekin eztugula aserrerik, zuri eztizugula onginaia ta auzo maitasun sendoena baizik.

Auzo ez ezik, alde belauneko zaitugu, gañera. Belauneko bai. Alaba ospetsuena zaitugu, gazteleraz ikasi berri artan seme berri ugariak ematera munduz mundu joana ta zabaldua.

Atozkigu. Izan zazula gurean, auleria sendotzeko bear duzun janari ta berogarria. Atozkigute Don Kijote, Teresa Deun, Jondone Gurutzeko, El Greco, Colón, Castilla, Ameriketa... Onatx gurean, zuenean jadanik ia ezta, bear duzuten otamena. Onatx gure katolikutasuna, gure kijotetasuna, gure demokrazi ta erriaginte gosea, gure Bizkai burnia, Loyola, Arantzazu, Prantzesen kontrako Ondarrabi... Uztarri batean josi gindun

Indietarako auzolanak eta gaurregun -aspaldiegiko, gizaldietako gaurreguna!- giltzape edo leotza batera bota gaitu etsai ugazama ankerrak.

Jan guretik. Berotu gure supazterretik. Indartu onako otorontzetik. Eztakigula itzal Itxaroa. Ez akitu Ekintza, «errekonkista» buka arte. Ez atxitu Auzolana, beduinismua beinbetikoz uxa arteño. Guziok bat-bat egiñagatik, puxkateko neke lana izango baitugu taifak eta kijanotarrak gañetik astintzen eta norgere buruen jabe izatera eltzen, bakoitza bakoitz. Orra, nik agindu bearrik gabe, txekor gizenena ilda maia prest. Ta orra maikide gazteek gure zai, asteko ezin egonez, zuri kantuz abegi on ematen, aiduru ta poz:

*-Uxo zuria, errazu  
norat joango zeran zu!  
Españiako portuak oro  
elurrez beterik dituzu  
Gaur gauerako ostatu  
gure etxean baduzu!*

Ez al da auxe don Migel, zuk erritarrokin beti ta beti opa izandako otorontza? Zure otorontza, don Migel. Seme galdu ta itzuliarena. Galdua uste ta gaur

etxagua betean ezin gurekiñago topa zaitugunarena.  
«Plenitud de plenitudes y todo plenitud!»

Oar, don Migel, gazteon poza, zure etorrera dala-koa dala ta. Oena ere «Betekaren beteka ta oro beteka!» Geiegi ere bada orratio gazteon ezin kabia, kanta bai kanta bearra, atertzerik gabe. «Uxo xuria» orain-txe bukatzea egin dute ta orra bertan ekin besteari, jas!... ta alajaña! bizkiaren «sarrera»koari ekin, gañera.

*«... ats emaiogun  
ontan iraun dezan!»*

Alperrik aginduko diezu ixil ditezen. Bai zera ixildu. Ezin omen dute, ezin omen, bazkalondorako gorde orfeoi galea. Zeeh? Zeuk ere ezetz?

Ederra kontua, don Migel. Benetan zeuk ere ezetz? Beraz, bizkiaren orixe etzenukela utzi nai zere eztarri partetxoa erantsi gabe? Gizona! artara ezkerro, ez da Abendats izango debekatuko diguna. Zu artaratze ezkerro, Abendatsek ere laguntzen ekingo dizu, arean. Nola ba, zuk bai ta nik ez? Ta ekitekotan, ori bai! euskotarki abestu bear dugu, unamunoki abestuko dugu, bai irurok eta bai laurok; «bular eta biotz, odol eta

ezurmun, eztarri ta errai, sukar eta lerren, bizits indar oro ipiñiz.» Gure artean bazkal orfeoiketak izan oi diranez: makakorroka baitipat, noski; «pian-piano» ak auzoarentzako utziz; auzoarentzako ta aurloa gozaten seaska ondoan jardun bearra dezagunerako.

Zeintzu irurok eta zeintzu laurok? Zuk ez asma bear ori, don Migel. Irurok eta laurok eta zazpirok, gañera! Don Migel eta Mikel eta Unamunoren España: orra iru, irurak bat! Abendats, gañera, irurokin: orra laurak bat! Ta erantsi bazkaldarretan zazpi probintziak dituzuna: noski ba zazpirak bat! Zazpirak bat, oroz gain! iru-lauron parte pilpiraz onartuz, eta irentsiz.

Auxe ezin kabia, -orain neronek, arranea! Auxe munduari otsegin bearra! Zazpiokin Unamuno ta Unamunoren España, alajaña, bizkiarena abestutzen, abestutzen! Txunditzeko dala? Gezur dirudila? Ez, arranea! Or daude Unamunoren liburuak berebat oiukatzen, zindo ta bero asko. Eztago besterik: euskaldunki irakur bear. «Ixilpeko gizona» topa bear. Benetan «oparoen oparo ta oro Oparoa».

*Atsemaiogun!!*

*Atsemaiogun!!*

## 26. «IXILPEKO GIZONA»

### UNAMUNOK:

-«Eztuk ogi utsetik bizi gizona, alajaña!» Bizidunok gogoko duzute txekor jana. Ildakuok beste janari bearrago ta bearrago baten gosetan gatxeudek ta ona non bazkari ontan ezin oparoago damaidakan, Abendats, nire don Migel-i ta bere Españiari egin diekan ongietorri zabal orrekin. Eztidak eskatu gezur itxuretan, konberti nadin, okerrak zuzendu ditzadan. Ildakuok etzeukagu lurrean izandakoari tutik aldatzerik, ez erantsi ta ez ken. Giñanak gaituzue bein ta betian. Ta ik, Abendats, aski izan duk niri «sekretua» aitorraztea itzuli bearrik ozta nula adierazteko. Kolkoan gorde-gorderik illobiraño eraman nun «sekretua» ostu didak eta ordañez sekulako pozik bikañena biurtu didak alkar arte ontan, nire bakartea autsiz. Neuk ez aitortzekotan euk salatuko izkidan nirenaitako bi gizonak, aurretik jakiñarazi dizkidakenez: don Migel «kalekoa» ta Mikel «ixilpekoa». Orra ba jadanik nire euskotasuna sekreturik gabe. Galdu nauk, iñarrosi nauk, ugazamatarren txaloetatik eta txertatu Gernika-ko arbolaren betiraunari: Zeu-Neu, Neu-Zeu...



*que uno es el hombre de todos  
y otro el hombre de secreto!  
Aren argibidez ni jabetu  
enegan bazala norbait atxilotu.  
Ordun jetxi nazu lezera:  
nork gere muñean dugun itzalera!*  
(Gure mintzo).

Lizardi-ren ainbat bertsu ta nire ainbat gogakun zer dala ta dabiltz orren parez pare, arraunlari baten ezker-eskubiko bi arraunak geralako baizik ire esku-tan, Abendats? Parez pare bai: Zeu-Neu, Neu-Zeu. Oriotarrena:

*«etzegok ezin  
onik gu bezin  
eguzki azpin.»*

Aldiz, Orixe ta ni zer dala ta gera elize (?) jiralari bakarreko bi ega, beti bata besteari igesika ta beti bata bestearen atzetik, bion ardatz augulako baizik, Abendats? Alkarri segika bai: Zeu-Neu, Neu-Zeu.

*Eguzkik ezin urtuzko egoz*

*(Ikar'ek ez bezelakoz)  
goazemak zerura igoz,  
izar urdiñetarañoako asmoz!*

(Lizardi. Eusko-bidaztia-rena).

Ik nire itzekin konta duk Bizkai guda. Nik, naiz ik, Lizardiren bertsuekin kantako diagu aurrerantzean nire «ixilpea» ta ire argigitea: ire, ire «argibidez ni jabetu...» Zer duk ik nire berri oro jakiteko? Zer, enebaitako illunak orrela uxatzeko? Bide aurreko izar gidari al aut, Abendats, iru erregeen beste ura antzo? Aurretik oakit beti nire gogakunen bidexka ta xokondo gordeenak argigiten, neronek argitzeko ezer uzteke. Iri begira jarraitzea aski izan diat Jaio Berriaren «izkutapena» kolpean aurkezteko. Enebaitako Abendats! Enebaitako Mikel! Zuek zaituztet, biok bat, onakoan Jaio Berri!

*«Berriz jaio-pozaz soma nuen. »*

*Quando me creáis más muerto  
retemblaré en vuestras manos.  
Aquí os dejo mi alma -libro,  
nombre-, libro verdadero.*

*Cuando vibres todo entero  
soy yo lector que en tí vivo.*

Banitxekin «ire arpegia ikusi ta ire izena jakin orduko, ni ilko nintzala eu bizi endin», il alegia ene baitako erdal gizona ta bizi Abendats edo Mikel, biak bat.

«Qué quieres decir con esto» me preguntas más de una vez. Y yo te respondo: «Lo sé yo acaso?»

No, mi buen amigo, no! Muchas de estas ocurrencias de mi espíritu que te confío ni yo sé lo que quieren decir, o, por lo menos, soy yo quien no lo sé. Hay alguien dentro de mí que me las dicta, que me las dice. Le obedezco y no me adentro a verle la cara ni a preguntarle por su nombre. Solo sé que si le viese la cara y si me dijese su nombre, me moriría yo para que viviese él».

(II, 70), Vida de Don Quijote y Sancho.

Nire betiereko amets erraitiena, miñik miñena, orra ba gaur zertu zorioneko anaiartze ontan, nire bai-

tako Abendatsen Epifani ontan. Zer jakin bear zuten kanpotarrek nire ixilpeko «Alguien» edo Norbait onen berri? Berriz jaio poza! «Ta bizitza amets egitea bada, utzi ba niri -ene erritarrokin- amaigabea amestu dezadan!» Au eztuk bilboratu nintzaneko «bigarren jaiotza». Betirako jaiotza, Abendats. Betirakoa. Anitz eta anitz esker, erkide ederrok. Ez zuek niri; nik, nik zuei. Gaurdanik nire izangoa ta ezilkorra zuenarekin amestuko ta izango ere diat, zazpirak bat!

*Berriz jaio-poza suma nuen...*

*Gezal mugagabez bide-ginjoazen:  
bizitza-itxaxo otxan barea,  
goiz-eguzkiaren txinpartez ernea!*

Izan ere, billobok etzerate makalak atera orratio. Jarri duzute ba zuek aitona zarra, sekula ezta, kantari, eztarri ta errai, pozetan blai! Jaiak merezi re baita, zer egingo zaio ba! Baña, otoi, ez berriro asi. Eskerrak, txolarte bat edo beste lapurtu al izan dudanari, zuek kantuz jarrai bitartez mai lagunari aopekotan jaulkia-razteko euskal trajediaren gorrienak. Ale bapoak ikasi ere dizkiot! Nire aspaldiko iragarpenak eztira, arrane-tan! gezur atera!

Tira, onezkero. Onenbestez aski dugu orfeoiketaz. Berrekin dezaigula orain Abendatsek aixtiko Bizkai istori etena. Gudua ezkeroz zertari zerate? Ea, bazkatu jakinmiña zuekin maikide ta zorikide duzutenari. Arrezkero, zertan?

### **ABENDATSEK:**

-Arrezkero, zure Parisko bakartea dugu guk ere lagun, Unamuno, mundu arrotzean arrotz. Zure aolkuari gagozkio: «Eriotzaren leñurura begira bear bizitza» (II, 339).

Goi ta be, ipar eta ego, albo laterri nagusiek ixeka ta laido dagiote gure Bizi Naiari. Pekatu omen da gure Bizi Naia. Erdi-Arokeri bat omen da. Argatik, espetxe ta erailketak; nolanaiko lapurretak eta ankerkeriak.

Zuk dakizu: egoaldetarrek betidanik izan digute bekaitza, ondamua. Ondamu ori, Bizkai guda irabazi izanak eman dizkion eskubidez eta «arrazoiz» gizen-gizen eginda, lotsik oro ere galdua, gure uri ta etxeetat jabetu zaigu; eta egunkarietatik, irratietatik, ikastola ta elizetatik, or ari zaigu ixiltzeke sudurretaraño sinistarazi naiaz erokeri bat dala gure euskera, gure erritasuna, gure bizinaia, gure Bizkai gudua, gure eriotz bildurra... Erokeri uts bat; masoiek, komunistek,

nik al dakit zeintzuk geiagok asmatua, ta gure «iñuzuak» siñetsia.

Erokeri uts bat, alajaña, gure gizaldietako Bizi Naia: gaurko gudariena, atzoko karlistena, noiznaiko euskotar guziona; Zure egunetan baño re gaur milla bider areago, Antonia Quijanok agintzen du bai Españiko agintari simadunetan (II, 351).

Erokeri onek, gañera, ez omen du barkatzerik. Barkatzen zaizkie eraille, suemalle, lapur, saltzalle eta beste gaiztagin aundienei ere beren obenak. Baña guri? Zaude pixkat. Ez iñolatan guri gure euskaltasuna. Jelkideok bezela erreketek, baztertu gaituzte loa jateraño ta antziñako Foruen azken kondarrak iru probintzietatik ken, laugarrenetik berebat egiten saia arren ezin izan badute re oraingoz!

Euskotar jaio izana, beste gabe, delitu dugu beraz, delitu ikaragarri; eta euskaldun irautea areago. Ta «jatorrizko pekatu» onentzat nekez duzuke bataiorik, kristautzerik, eroskunderik.

Agotak gaituzte ta eztagokigu Jeronimu Santuaren eskubide edo barka alderdi uraxe re. *Parce mihi, Domine, quia dalmata sum*. Jeronimu doneak, bere odol aldientzat barka orpoa aurretatu nai zunean, bere dalmatar leñuaxe aipa oi omen zun, pekatuen

aringarri zeiokelakoan. Españi barruan euskaldunok ez beste guziek badizute eskubide ori; guziek egin ala, gaizki egiña egonagatik, oro, eder jotzen baitute uga-zamarrek gaurregun, oso españiar, grazi aundiko...

Kolonuoi, ordea, eztagokigu orrelako mugonik. Ezta otu ere olakorik. Eusko jatorria, aringarri izan bearrez, aztungarri jotzen zaigu; egite onak eurak ere dongeki kutsarazten dizkigu.

Antziñako azteka, inka, guarani, txarru doakabe aietxena, indiu zirala ta beste gabe erremata oi zituzten aietxena, izan bear du nunbait gure jokabideak eta arrenkak: bizirik edo erdi bizirik uzten gaituztenen esku «zabala» munkatu, munkatu ta miaztatu zakurkiro, ta eskerronez jarraitu gere biziko otoitzean atertzeke: « Barka guri euskaldun izana. »

Ta ez uste iduritu utsez ori diñodanik edo ezeren pulamentu gabe bapikotzen ari naizenik. Liman egokitu zitzaidana, detalle batzuk gorabera, gertatua bide zaie beste amaikatxo aberkideri re.

XX gotzai jubilatuta jaunak nunbaitetik jakin zun eta diñetsi ere bai itxu-itxuan ni santandertar nindula. Uria berak erakutsiko zidala ta, apuko ortan, alde batetik bestera «kotxez» nerabilkin bitartean, aguro asi zitzaidan, asi ta arratsalde osoan ez atertu, bere

*kristau* kolkotxoak erabat askatzen. Euskalerriarekiko zitun asmo ta burutapen jatorrak banan banan jakiñarazi zizkidan. Onatx edertxonak, «katolikuenak»: euskal arraza suntsitu arte etzegola lurralde ura españiar egiterik; artarako, euskal apaizak atzerrira igortzea ez litzakela aski; euskaldunen eta gaztelarren artean trukatatu egin bear lirakela bizitokiak eta bizimoduak; edo beintzat «separatista» izandako famili guziak erbeste probintzietara nasteborrastu, sakabanatu; euskerarekin, berriz, biguñegi izan dala oraingo gobernuak; bere esku balego arazoa, eliz eskoletan ez ezik kale ta etxebarneetan ere euskeraz itzegitea debekatu egingo lukela ta multatu gogor...

Obispu jaun-jahun batengandik zetozen iritziok eta beste ainbeste dogma bailiran entzun nizkion, ixil eta xotil entzun bere sosegurako, ezpañak irikitzeke iñoiz edo beste are geio zirikatzeke ezpazan: «arre, motell!» «aida, motell!». Bai zera «utzi mando gaña!». Ez nik arranea arratsalde artan, ez nun nik utzi nai izan, alako mandoaren indarrak ondo probatu arte.

Kosta zitzaidan arren, eztut damu ordun nire jatorria ixildua. Lenez gañera, eguratsaldi artan poliki ikasi nun nolako «maite» gaituzten gotzai orren sundako zenbait ugazamarrek. Ori bai: partikularki axan-



patu zizkidan maite agiriok. Argatik eztizkizut emen txastatzen gotzaiaren izen abizenak. Baña sinistu nai ez didanik balitz, muzin gabe eman nitzakioke aopetik aopera orduko izenak eta gizenak.

Andik bi egunera, Lima uzterakoan, ezin etsi izan nion orratio, jakiña, nire zeintasunaren txartela bidali gabe. Itz oekintsu bidali nion: «Gotzai jauna: zuk beze-la Españian «maite» gaituzten bitartean, Euskalerrian eztira paltako separatistak. Jainkoari esker, jatorriz eta biotzez euskaldun duzu «Iñurritza».

Eztut pentsatu re nai, Unamuno, katoliku zintzo ezpagiña noraño itzuri ginjoazeken, Goma-tarrok eraginda, anti-españiarrok bai eraginda. Eliza Amari diogun menpetasun zintzoagatik ezpaltiz, Unamuno, aurki ginduzuke zure klerufobian. Abenda uts-utsari bakarrik jaramon egingo banio, zurekintxe ninduzuke euskotarrei otseginka: «Jetxi mando gañetik!». Askotxo, zoritxarrez, aolku ortara okertzen asiak dira. Baña, ez! ez! arrea! gurekin olakorik. Ezta burutik pasa re. Gorde gaitzala Jainko onak arrisku ortatik. Milla urteon katoliku duzu Abendats; katoliku gaituzu, beste ezer baño len, euskotarrok; bearbada beste iñungo Erririk ez aña. Ta orra gotzaiak or, nor baño nor, geure kontra «separa» gaitezen alegiñak egiten.

Eztakizu ondo, Unamuno, nolako burruka, nolako larrimiña, daramagun barruan, zure zizmara erori gabe zuzen irauten. Naiko larrimiña bai, Unamuno, gaurko euskaldunotan ere, zure «kristianismuaren agonia»!

Arrazoi sobera duteke Españiko lau-bost gotzai oiek zu kondenatzean. Tentagarriegi zaitugu. Euskotarrregi zaitugu agiz. Euskotar utsegi agiz. Ta ez-ez! Guk eztugu euskotar uts izan nai puntu ontan. Baizik euskotar katoliku.

«Yo, lo confieso, no solo no soy latino de raza (como vasco que soy) sino que aunque con la mente procure comprender el latinismo, mi corazón lo rechaza. Culmina, a mi entender, el espíritu latino en el catolicismo, hasta tal punto que aún los librepensadores latinos son católicos sin saberlo. El ideocratismo latino y su idolatría me repungnan; me repugna su adoración en la forma y su tendencia a tomar la vida como una obra de arte, y no como algo formidable y serio.»

(Cartas a José Enrique Rodó. 1900).

Beinberriz esan, ortan ere «arrazoi» luzetxoa duzuke. Baña guk, gaurko euskaldunok, eztugu «arrazoi» orrekin egon nai. Baizik fedearekin. Milla urteko bizitz egiarekin iraun nai dugu. Bein ta berriz, norgere erokeriarekin segi. Ez zatzakigu, bada, Unamuno, mintza gai ortan. Arren! Koldar generala, burugabe generala, kutsatuak gaudela, mundo siñesgearen txaloak galitzen ditugula... ta bost, esango zeniguke. Ez. Eztizugu entzun nai ortan. Entzutera, galdurik giñake, geure euskaltasuna ukatzea litzake. Ez, otoi, olako arrazorik! Vade retro! Ontan zagozkigu ixillik! Gorde dakigula zeruak gure katoliku fede itxuaren erokeria!

## 27. EUTSI EROKERIARI!

### UNAMUNOK:

-Beraz, ni euskotarregi! Ja-ja-ja! Gaur dana zerua-  
ren zeru; poza pozaren gain; algara galea orain, arra-  
nea! aixtiko orfeoiketaren urren. Bapo, motell. Onako  
ontan zalantzetan ere jarri nauk, Abendats ote aizen  
orrela mintza atzaidana. Ille bizarrak Esau-renak  
dituk, baña abots ori, abots ori, hum... Jakob-ena ez  
ote? Ni ez nago, gero, Isaak zarra bezin itxu ta gor.

Beraz, ni euskotar uts! Alea bota duk. Ja-ja-ja! Ori  
Abendatsek esan bear. Yaufi!! Nere pozaren berri  
-auzo goi ta bekoak- ikasi bezate!» Ni euskotarretan  
euskotarrena, alajaña! Noiz, gero, onen gustura nik  
parre? Ez adi aserratu, motell. Etzaitezteela orregatik  
zapuztu, jaun maikideok.

Edota, liberalok zuen ixeka eztenkadak artzeko  
dugun eramapena eztuzute sekula ikasi bear katoli-  
kuok? Edota zuentzakoxe bakarrik bear al du, ta ez  
gureztat ere, euskal demokraziak? Nire euskera fobia  
dala ta, naiko algara gaizto egin duk nire bizkar Aben-  
dats. Ez al dut nik ere eskuko, apurtxo bat egitea ona-  
koan? orrenbeste «ez ta ez ta ez» oiek entzutean,  
eure buruari sinistarazi bearrez edo...

Beraz, gere bizitz egia diñok, norgere bereizgarria nunbait, norgerea -ta ez bestena, ez besteenetik artua, milla urteko menpetasun ori? Ni euskotar uts, euskotarregi naizela, diñok bateko; ta besteko, berriz: niri entzutea euskotasuna ukatzea zenutekela? A ze katramilletan katiatu aizen onakoan! Katiatu ez ezik «beaztopatu» ere ez ote? Ez aut sekula orren total eta koloka mintzaten somatu, motell. Eize ori, Jakob, euk basoan arrapatu al duk, ala Rebeka-n bat dabilkik or tarteko?

Baña, tira. Uztagun erlijio auzia. Eztiagu erlijia onako festa gai. Ez dakigula irabiotu txekor jana urdallean. Bakoitza... «or konpon, Mari Anton». Bazekiat niganatuko etzaituztedana; baitare, nire klerufobitik pitintxo baizik nai eztuzutena. Zuek ere onezkero ez nazute bigunduko, beste euskaldun apaiz jator oiek dirala ta. Ildakuok etzeukaguk onezkero onbiurtzerik. Giñanak gaituzute. Ez, bada, eskatu niri, Abendats, ontan ixo nadin. Nire liburuek etzeukatek onezkero ixotzerik, ez « Vade retro!» egiterik. Gai ontan zeok bear ez etorri irakurtzera, ala baderizkiozute, ta kito.

Bestalde, berriz, zuzen diñok, Abendats: gure katolikutasunaren milla urteko sendoa ta ondoa baduk zerbait geure-geuretzat ar eta jo dezagun. Ara:

etzinduzkeet geza-mexa ikusi nai katolikutasunean, ez «arraxoika», onañño bai ta arago ez. Bulartsu, su ta gar, nai zaituztet ortan ere, ta zin, ta ero! Zin eta ero, agoniaren agoniz!

Erokeri deritzatela gure erlijuiua, gure zintasuna, Bizkai guda, Bizi Naia? Ta zer? Ez lotsatu. Erokeri edo erotasun orixe diagu, ain zuzen, gure aundia. Erokeri orixe gure kondaira beteko egi sustraía, alboerriek urriago ta guk naroago dugun kijotetasuna. Don Kijotek bere eroa utzi izan balu, bereartan galdua ziken bere aunditasuna re.

Beira, bestela: zer dala ta ari zaizkiguk esaten eta berresaten, Españiak izan dun aundia bere kijotetasuna izan dula? Beste bateko kijotetasun ori, erotasun zindo gorengarri ori, gaurregun gaztelerrriak utzita gureganatua diagu, gureganatua Jainkoari esker (I, 741). Eutsi berari! Eutsi, il edo bizi! Ori duk eta Erri jatorren izate muña! Goitik «zarta! zarta! zarta!» esan eta eman ari zaizkigun bitartez, guk eutsi *norgere egiari*, norgere eroari. *Veritas liberabit vos*. Gaitezela danok Galíndez bana, sinisten dugun ideala otsegiten eta zertzen: «Dios me dé fuerzas para seguir siendo "insensato" hasta el día de mi muerte!»

Ara. Amilletik amillera zetorkiguk gainbera España. Sasoi batean, Españietak zeritzaneko artan, *Hispania major* giñen. Gaur *Hispania minor* baño eztiagu. Ta Jainkoari dakiola, egun daraman arruntakeriz *Hispania minima* raño ez amiltzerik (I, 806).

Binbitartean guk, militarren makilkada menpean gerebatitaratuz, nortasun azia mardultzen ari diagu; are ta tenkorrago, are ta kijoteago, dezteratzen ari gaituk. Oraindik *Vasconia minor* baizik ez gerala? Egon pixkat. Geroak esango *Vasconia major* eta *maxima* ere billakatu bageranentz, munduz mundu «zaldun ibiltariarenak egitera aterako geranean».

Berebaitari fedea galdu zioneantxe galdu uan Don Kijote, galdu ta il. Eztezagula ba galdu gerebaita aberatsari zor diogun fede ta itxaropena. Eutsi, il edo bizi! «Il-ez-naiaren erokeriak jota dagonak, aretxek soilki, senti eta bizi dezake Don Kijoteren bizitza» (II, 357).

Erokeri bat dala gure Bizi Naia, amets bat dala! amets bat! Ta zer? zer da bizitza bera, bere izkutapen eta edertasun osoan, amets bat baizik? Amets bat, bai jaunak, iduri bat, itzal bat, gure Calderón-ek ain galai-ki neurtiztu ta antzerkitu zigunez (II, 347). «Ta bizitza amets bat bada, utzi ba niri amaigabekoa amestu

dezadan!» Utzi, utzi, Aitorren belaunekuoi amaigabea amestu dezagun!

Ez aztu, anaiok, nire arako gogakun ura, nirea aña zuena baituzute, Euskal Miñaren filosofi muña baitiagu: «sufritzen dunak daki, ez bestek, maitatzen eta itxaroten» (II, 752). Ta beste ura: «obe ta obe oñazetan bizi, izateari pakean uko ematea baño» (ibid.). Ta batezere, zuen eta nire (gure!) Ekintza osoaren zunttoi oñarri ura, uraxe: «Itxaropena diagu fedearen ama; ta fedea, Jainkoarena.».

Esan nai da (eta barka katolikuok): fedea, amesten dugun Aberri aundiaren ama.



## 28. EUSKAL MIÑA, ZUREA

### ABENDATSEK:

-Zure babesera, Unamuno, bestelako seguru arkitzen gaituzu orain. Gizadi zabalaren aurrerako gure larrimiñaren Albistari zaitugunez, eraman errezago zaigu beñola, zure abogadutzari esker, gure bakartea; ez lotsagarri, erokeria edo erotasuna; bai aundi, irritsa; guzizko mimagarri, loisingarri, euskera; bera beteko Erri baten eiagora, gure bizinaia.

Baña, esaiguzu, Unamuno. Ez al da lotsagarri? joan mendetik asita egunotaraño, azken urteotan baitipat, gure Ertiak sentipen bakarra dario maizenik: Min eta Min.

Miña dugu gure sentitze ernarienen eta jokabide bortitzenen sorburu ta jomuga. Miña, zernaitarako darabilgun itza: «buruko miña dut», «esku-miñak alakori», «alako ta ni adiskide miñak gaituzu»...

Miñak bultzatu ere izan gaitu edestian barrena zernaitara, arago ta arago, asetzerik gabe. Aor «Arantzazu»-poeman, II aldian, 9 garren kanta jarduna: mariñel Erria. Kantajardun ori euskal gizandien eta gizaldien «Boga, Boga» dugu, aurrera ta aurrera, miña miñagotuz.

*Ai urruti miña!  
gaitz senda-eziña,  
bañan ala ere  
ondo atsegiña...  
Min izkutu orretzek  
beti eragina,  
euskal Kondaira doa  
aitziña ta aitzina.  
Egonak pozik ez du!  
Boga alegiña!*

Antziñetako gure gizon buru urrutietara joanak: santu, itxasgizon, lurbillatzalle, salerosle ta abar... urruti miñak omen zeramazkin edo anima miñak edo diru miñak... Lekaideak Jainko miña omen dizu; jakintsuak jakin miña; abertzaleak aberri mina; ezkongaiak maite miña; aurgiteko amak ume miña; apenkorak sumiña; eramankorak samiña; guziok, ontan edo artan, nor-gere larrimiña.

Ilitzen dagonagatik «miñak dago» esan oi dugu. Oñazea. «Biotzean min dut, negar ixilla darion miña», ziñon Lizardik amonaren Illetan. Atsekabea. «Illeta» ori, beste zarauztar batek musikatzean, euskal Irritsa-

ren sinfoni antzi guren billakatu zaigu. Patxi Eskudero  
au adiskide *miña dut*: ots, ziña, bena, sentia. Min dugu  
eusko ertiketaren obekuntza: guraria. Lizardik berak:  
«Nerekin jaio nun abesmiña, ta aurtandik min ori izan  
dut samiña.» Abesmiña guraria, desira.

Min dugu, euskeraz amaikatxo liburu argitaratzen  
asi geraneko epoka ontan, liburuek lengo erriaganako  
sarkorra gaurko gizartean galdua: damua. Min dugu,  
liburuei indarra jan dioten eta, bestaldera, ain bearre-  
ko genituzken radiorik, zinemarik, antzerketarik, tele-  
bisorik gure euskerarentzat eza: tamala, pena.

Gure ertiketari nondiknai eta nolanai dariokio,  
bada, Min ori, sentipen bakar eta ainbat osin dun ori.

«Bizitzearekiko sentipen larria» , onela euskeraldu  
dizut zure-gure «sentimendu trajikua»ren liburu izena.  
Larria itzaren orde z miña jartzeko egon nazu. Illuntxo  
dalakoz, zabalegi ditekela zoz, ixildu dizut, damurik.  
Andima jaunak arrazoi osoa baitu diñoskunean: itz  
bakar bati esannai geiegi itsastea arrisku galgarri  
dugula euskal idazleok eta sinonimu gutxiago erabilli  
bear genukela. Ostera, bai merezi itz done sagara  
orrek zure-gure liburu-tituluan bere gelatxoa! Zure  
filosofiaren eta euskal gogo-muñaren itz orokarra  
orixe baitugu.

Neroni ere: «Aberriak min dit», min samiña, min sumiña, min dit ernai ta lo, min izneur ta izlau, min sorterra ta atzerri. Jaz! Miñaren min, nai ezta re, bere zabalera ta sakonera agor eziñean...

«Arantzazuk min dit»: aldarrika dakusgu Euskal Fedea A. Mitxelenaren poeman. «Elizak min dit»: dasaigu Oteitzak, ezin akerragoki «apostuluak» izendaturiko arritzar latzetan. «Aberriak min dit»: zer besterik senti nezaken Iñurritzak onako liburuon?

Euskal Aminaren sentiera itz bakar batera bildu bear balitz, beraz, ezin aukera daikegu itz juxtuagorik, nobleagorik, egitiagorik, auxe baño: Min.

Ez naiz ni. Abendatsek  
diardu nibaitan.  
Artzek jartzen dit Miña  
biotz-ezpañetan.  
Ezin izan dutena  
il millaka urtetan  
nola gaixo onek ito  
kolko gudu ontan?

«Ogei ta bostak» edo Virgil Gheorghiu-ren «La hora veinticinco» nobela irakurria dun euskalzaleak ez

luke berealakoan aztu bear aren bukaerako ironi ezten zorrotza. Yon Moritz, protagonista, rumaniar nekazari bat duzu, ta beste amaikatxo gizakiren alegori ta sinbolu penagarri dugu, aldi berez. Orañeneko «mundu gudu» ori dala ta, atzerriz atzerri gorriak eta beltzak ikusi bear izan ditu doixtarrekin, komunistekin, ta azkenik aliaduekin ere. Biziko bada ordea, norabait jo bear gizajoak eta Yankiengana jo dizu ogibide billa. Alako «boluntaria» (!)-ren berri Niu-Yorken jakin dezaten, argazki bat atera bear zaiola ta, artarakoan, auxe agintzen diote, tristura arpegia baño jarzzen ez dakin doakabeari: «*Keep smiling!* Ots, ots, irriparre egizu! Irriparre! Irriparre!!

Ironiaren ankerra: egizu irriparre! Costantiniarrek berebat agindu digute guri ere, esango litzake: Basili-ka orrek etzuken bear orren latza, Oteitzatarren ertigintza ez bedi orren aserre garratz angustiduna, leguna baizik, arraiagoa, arraiagoa; gorde zuen Miña, edota bestela...

Ironiaren ankerra bai. Egizute parre! goitik guri ere. Nola nai duzute ordea parre egiterik miñaren min lertzear datzan Euskal Fedeak? egin imintziotan saia-ta re erri koplarena gerta bear ta:

*Ortzetan dizut irria eta  
bi begietan nigarra.»*

Arren, etzaiguzutela orrelakorik eska. Naita re, ezin baitugu. Arren, etzaiguzutela zotiña debeka. Besterik ezin baitugu. Bilintxena:

*Zer egin biat baldin Jainkoak  
ni egin banau orrela?*

«Dice luego Baroja: «Para mí, una de las cosas más tristes de España es que los españoles no podemos ser frívolos y joviales». Y para mí, una de las cosas más tristes para España sería que los españoles pudiésemos volvernos frívolos y joviales. Entonces dejaríamos de ser españoles para no ser ni europeos siquiera. Entonces tendríamos que renunciar a nuestro verdadero consuelo y a nuestra verdadera gloria, que es eso de no poder ser ni frívolos ni joviales. Entonces podríamos repetir de coro todas las insustancialidades de todos los manuales de vulgarización científica, pero nos incapacitaríamos para poder entrar en la sabiduría. Entonces ten-

dríamos acaso mejores vinos, vinos más refinados, aceite menos áspero, mejores ostras; pero habríamos de renunciar a la posibilidad de un nuevo Quijote o de un Velazquez y, sobre todo y ante todo, a la posibilidad de un nuevo San Juan de la Cruz, de un nuevo Fr. Diego de Estella, de una nueva Santa Teresa de Jesús, de un nuevo Iñigo de Loyola, ortodoxos o heterodoxos, que para el caso es igual.

Y acaba diciendo Baroja: «Triste país en donde por todas partes y en todos los pueblos se vive pensando en todo, menos en la vida».

Y esta arbitrariedad provoca la mía, y exclamo: «Desgraciados países esos países europeos modernos en que no se vive pensando más que en la vida; Desgraciados países los países en que no se piensa de continuo en la muerte, y no es la norma directora de la vida el pensamiento de que todos tenemos un día que perderla!».

(I, 897. Sobre la europeización).

Ta Espāni au gure Euskalerrri dugula orra, berriro,  
Unamunok berak aitor:

«Quién me ha hecho esta alma que ha gozado en el combate, que ha comprendido lo del «dolor sabroso» teresiano, que ha hallado la alegría de la tristeza y la tristeza de la alegría..., quién me ha hecho esta alma sino vosotras, montañas de mi tierra vizcaína?»

Yo soy mi pueblo, templo venerando;  
aplaca mis congojas, adormece  
este sufrir, para que así consiga  
en la mitad seguir sufriendolo.

(En la Basílica del Señor Santiago de Bilbao. Ant.  
poética).

Txillardegik bai poliki *Leturiaren egunkari ezku-  
tuan:*

«Illuna da poesia. Alaia ez da poesigarri. Ez al zenuen oral arte nabaitu? Nekez azal diteke munduko alaitasuna: osoa ez delako, noski, ez gaitu sakon unkitzen. Tristura, ordea, biotzeraino sartzen zaigu. Ta lenengoa antzu ta urri bada burutapenetan, aberats eta oparo da bigarrena.



Nork bizitu du alaitasun osoa? Iñork ez. Bi milla ta bosteun urte dira Budhak esan zuenetik: «Zorion unerik izan al dezute bein? ez!»

Puskaka ta asmamenaz ezagutzen dugu baka-rik zoriona, ta gure barrenean euki baño antze-  
man egiten diogu. Tristura, osteria, larrimiña, beteeziña, denok ezagutu dugu; ain osotoro geienetan, aietaz mintzatu ere nai ez dugula».

«Orrengatik, tristerik edo irrikan gaudenean idatzi oi dugu: emakume maitatuaren baietza entzuteraño, Jainkoaren bidea arkitu arte, egite-koak gaizki dijoazkiguño, eta abar; ots, buruauste bat urratu dugun arteño».

*(Leturia'ren... 75 orrian).*

Goethe'k ere berebat:

«Bizitzako alaitasuna bukatzen daneko mugantxe asten da ertigintza. Ase betean bapo bizi diranengandik etzazute espero benetako ertigintza sakonik».

Orra Azorin, askok uste baño egi borobillagoa botatzen: Kaperotxipiren margo oiaiei so, Azorinek

bein auxe jaulki omen zun: «Bazan ordu euskaldunek zerbait irripartsu pinta zezaten». Kaperotxipi arte etzan ageri izan nunbait parmurri oztarterik Zubiaurre ta Zuloagatarren margozketan.

Ta erri doñuetan? Azorinen ateraldia egi pixu dugu gure eresketari buruz ere. Salaberry-ren, Azkue-ren, A. Donosti-ren doñu-bildumak *tonu txiki* dei bearrekoz gañezka dauzkagu. Ezin ba besterik naita re, Euskal Animak. Dantza zortzikoetan beretan, alaitu bearrez gotillunak artzen gaitu eskuarki. Zeru goibelaren goibelak lausotzen edo gandutzen ditula esango litzake gure enparantzetako trikiti ta irrintziak. Bai gutxitan eguzki giro gure erromeriek; ez geiagotan txistularien saioek. Alako batean, bai orratio, or ekingo dizu txirulak *tonu aundiko* zerbait, ituna itunagotuz badare. Aalako batean ordea. Azorinena: «Bazan ordu!...

Eta elertigintzan? Onaindia-ren liburu zangarrekoa irureun olerkari oien artean, bat, bi, iru... -zenbat geio?- datozkit iñoizka parre egin naiez. Ain txuxen: egiten baño re egin naiez.

Bilintx, bat alajaña. Gure olerkarietan, ezpai gabe, gizaki aldetik berbera alajaña elbarrituena, zorigabee-na, errukarriena, nai ta eziñaren maite zauriak erasa-

na. Bilintxek parre? Bere bizitzalo zorigaitzari iraun indarra txertatzeko ezpazan, zertarako, zer dala ta?

Tolosako Arrese, bestea. Naigabeak aaztutze arren mozkortzen dana, alatsu. Euskaltzaleekin bat ez etortzeak zemaizun estularria itotze arren euskerari txistuko zekiozunean zeu ere, Unamuno, alatsu. Biraulariak milla bider urbillago baitauka Jainkoa jaramonik eztion beste arek baño. Alaxe Arreseren «ortzetako irria».

Arrese-ren barrunpe zauri biziari odola zeriokion ezilkor-gosearen trajediak. Zeurekatzat pozik firmatu izange zenuken. Unamuno, aretxen arako poesi osoa: *Zer nai nuken*. Bizitza ortarako ditun bere misantropu ta bakarzale gurariak zedarritu ondoren, buruenik onela diño:

*gero... ezurak arri biurtu  
Uzturre mendi gañean  
ta «ni» naizen au betiro bizi  
goiko zabal urdiñean.*

(Olerki berrizte. *Zer nai nuken*. 87 ornan).

Mutikotatik iltamurañoako zalantzaren arra, ordea, zalantzaren minbizi ankerra, minbizi erailkorra, ezin

sufri zunak gaztetan Habanara ta igesi joan bear izaten zun munduz mundu eta eulduztaroz basarteetara mendiz mendi. Alare minbiziak: «Emen nauk». Kalera jeixtean bearko egin ordiarena edo, berdin, biraularia-rena: «Tolosarkeriak».

Irugarrenik, Lauaxeta. Laukiniztar auxe dugula nago euskal miñaren arrasto gutxienik nabari zaion olerkaria. Ez ala ote? Etzaio beintzat sumatzen negurik, negua beste iñork baño urbillago zeukan orreri. Orrerixe ez, ain zuzen. *Arrats beran* irri ta jolas baizik ez dagi. Prantzeskiro, lorez-lore, dana argitsu didoro: neskatz eta burtzain, Narkis ta bolu-bolutxu... Gizajoa.

Etzekin zer zetorkion. Suizkilluz eratxi zuten. Ondo gazterik. Ondo etoirik. García Lorca-rentzat izan dira damu negar punpuluak, badare. Gizajoarentzat ezta illarririk ere. Zakurraren erreten zuloa, ta aski.

Bein parre egingo gure literaturak gogara, erabat kezka utzita, Lauaxeta-ren aboz; eta ortarako?

Ikusten, Unamuno? Erdaldunek arrandiki daipaten esistentzialisten *angusti* orrek badula, zuregan edo Agustin deun batengan bere gizandia bezela, gure lanbropeko Erri onetxengan ere bere Enda andia. Andi bai miñez gure enda, naizta lurrez eta demografiz txiki. Erderaz angusti = euskeraz Min.

Beñola, ordea, esaiguzu, aita ponteko orrek, erantzuinguzu: ez al da lotsagarri, bizitzarekiko sentipen min orrek kollonduta beti negar batean egotea? Ez al da geiegi, ez ote *larregi*, beti gauza bera, beti negar lelo bera, beti ezilkor griña bera, esaten eta berresaten jardutea?; esaten eta berresaten, desiratzen eta zinkurintzen, pentsatzen eta oiukatzen, alikatzen eta kutsarazten jardutea?

## 29. «SUMIN SANTUA»

### UNAMUNOK:

-Kollonduta egon? Balinbaite lotsagarri, lotsik ba. Areago euskaldunontzat. Zuzen esan duk gizon augula Abendats, musak emakume oi badira ere. Uzkudundarren eta Loiolatarren indar adore basatiar menderakaitzari etzegokiok beingo beinka baizik ematasunik, sekula ez emekeririk. Eztiagu emekiro egin bear negar. Ez, gure Lizardiri bere kristautasun eredugarriak egiñazi bezela:

*Biotzean min dut, min etsia,  
zotiñik gabeko negar-miña.  
Alatsu txoriak, uda-ondo,  
negua du galazi-eziña.*

Amona zanarekiko ederki ziñon zarauztarrak. Gure arraza makilkatuak, ordea, eztu orrela bear ezbearrerekiko. Gurea bezelako Erri zail latz nekaitz gizartsu batek eztu negu eriotza sekula etsi bear galazi eziña; ez arerioa, geran baño gallenago.

Jator mintza aiz, Abendats, Euskal-Miñari buruz. Aiurri ori jotzen eztiguten etnologuek, Erri paketsu alai

patxaradun zoriontsua omen generala diñoten ezgutxi oiek danek, urgaña ta olatu aparra besterik etzigutek begiztatzen, fotografian antzo, barrunpeko biozkada asalda urduriak aztarrendu ere gabe. Azaleko gorabereker ezer gutxi esaten ditek, enderrien mendu berezia zeintzerakoan; egokeraren untzaosto baizik ez dituk, eta ez izakeraren igali.

Gaurko Euskal Miñari alare aje bat nabari ziot, Abendats. «Pasivua» duk, pasibuegia, ta ez nik nai nuken bezin erasokorra, ortzakalaria. Bildotxegia jotzen diat otzanez; olloegi, kollonez; untxi edo, eramapenez. Kristau eramapenak orrela bear dula? Ez, jaunak, ez. Kristo ez uan orrela parisaitarrei ordañak eta bost arpegiratzean. Ezta Iñigo ere, Alkalako Figue-roatarrei ortzak erakustean.

Edota zuek, Jesukristo baño otzanago, Loiola baño santuago, zeratela uste ote dezute? Kristau eramapenak orrela bear dula diñoten oiei galdetu ea euren ere orrela ote dan, ea eurak ere orrela nai diran, ea zertarako nai gaituzten orren asto nozitu ixil, euren gu gogorako makilkatzen jarraitzeko baizik.

Etzazutela nastu kristautasuna ta gizajokeria. Oso bi dirata bata naiz bestea. Gizajokeriak ondatu gindun karlistetako gerrateetan, ta orobat azken Bizkai guda-

tean, neronek aurrez gaztiatu nizutenez. Liberalon ezpaloitik begiratzuz konturatzen da bat, gizajokeri orrek zenbat ondamendi dakarkigun, nola egoak jaten dizkion gure gerezko joranari, aundi.goseari, eroari, idealismuari, zernaitari zirt edo zart egin bearrari...

Gizajokeri ori astintzen eztugun bitartean, alperrik izango dira gure negar antziak, ez gera nik nai nuken bezela ezer «ikaragarririk» egitera elduko, ekintza ederrenak erdoituko dizkigu eta ez gera sekula mende t'erdi ontako giltzapetik jareingo.

Argatik ni ez nazute ixilduko aldarrika nire betiko leloan, naizta zuek jaramonik ez egin: «Jetxi mando gañetik!» «Imponéos!» «Eraso, erasogille bakoitzari!»

Nire betiko leloan aldarrika iri, iri ere bai, Abendats, eu ere zerbait kutsatutxoa ez ote agon bait-natxegok, zertxobait murriztua ikusten aut, gurbiltasun edo gurbilkeri ori dala ta.

Aldarrika gaurko bertsolarioi ere, berebat idazle-izlariori ere, zer esanik ez politikoei, ezpaitzerate gauza, esan nai da etzeratela ausartzen, atzoko Xenpelardarren zipoizketa, adarra jotze, ordañak biurtze, gordin ozpintsu bizi mutiri eragabe lotsagabe xarman artan itzegiten:



*Bala bat sartu buruan!*

*Aspertuko da orduan!*

Aldarrika bazkaldar guzioi, gexamexa ori ezpaitu-gu gerezkoa, kanpotarrek beren onerako itsatsia baidzik. Billa zagula, billa, Don Kijote-ren Illobia ta libra zagula, libra, «batxiller, barberu, kanonigu ta dukeen mendetik»!

«Ponéos en marcha! Que adónde vais? La estrella os lo dirá: «Al sepulcro!» Qué vamos a hacer en el camino mientras marchamos? Qué? Luchar! Luchar. Y cómo?

Cómo? Tropezáis con uno que miente. Gritadle a la cara: «Mentira!», y adelante! Tropezáis con uno que roba? Gritadle: «Ladrón!», y adelante! Tropezáis con uno que dice tonterías, a quien oye toda una muchedumbre con la boca abierta? Gritadles: «Estúpidos!», y adelante! Adelante siempre!»

(II, 72).

«Que tus palabras sean estridentes y agrias a sus oídos».

(II, 74).

«Poned, pues, alma en vuestras voces, llamad con denuedo y brío canallas a los arrieros que arrancan de su reposadero las armas del ideal para poder abreviar sus recuas, y conseguiréis atemorizarlos» .

(II, 94).

«Tenía razón el Caballero: el miedo y solo el miedo le hacía a Sancho y nos hace a los demás simples mortales ver molinos de viento en los desaforados gigantes que siembran mal por la tierra».

(II, 110).

«Y ante todo cúrate de una afección terrible que, por mucho que te la sacudas, vuelve a tí con terquedad de mosca: cúrate de la afección de preocuparte cómo aparezcas a los demás. Cuídate solo de cómo aparezcas ante Dios, cuídate de la idea que de tí Dios tenga».

«Tu no sabes bien, mi buen amigo, cómo los solitarios todos, sin conocerse, sin mirarse a las caras, sin saber los unos los nombres de los otros, caminan juntos y prestándose mutua ayuda. Los otros hablan, se dan las manos, se felicitan mutuamente, se bombean y se denigran, murmuran entre sí y va cada cual por su lado. Y huyen del sepulcro. Tú no perteneces al cotarro, sino al batallón de los libres cruzados...»

Euskal Miñak barrurako aña kanporako ere izan bear du, nozitu ala aztoratu ere bear, min artu ala eman, entzun ala erantzun, samindu ala sumindu, negar ala zaunka, zaunka ta ortzaka, zipo ta zipla ixiltzeke. Ala dugu gerezko aiurria ta ala bear du gure jokabideak.

Euskal Miñak samiña aña sumiña bear du, bada, bai jaunak bai, sumiña, sakerra, erasogillea, gallena, ez indutarrena, baizik kantauriarra, zema ta orro ta

bisuts dariona, eztut esango apenkorra ere baietz  
baño bai beintzat «zeru ta lur ta amil jan bearrekoa».

Gorantzi, gero: urkabearraren otzanki burua  
makurtzeak, adoretzen du borrerua; jendearen kollo-  
nak, soraioak, ixillak, eramapenak, arrotzen despota,  
kementzen etsai koldarrena. Txakur bildurtienak ere  
igesi doanari ortzala dagio.

Eztuzute ikusten zuen otzanak, zuen zipo ezak,  
zuen kotaratzeak, indarragotzen dula etsaia eta jaun-  
txoagotzen? Zer ari zerate or, or ta emen, bazkari  
tarte bakoitzean, zeon artean txutxuputxuka, beti  
zeon artean, atso mutxuridin iduri, maxia ta marmar-  
ra, zer ari, plazara irten gabe, zuen arteko negar  
espak eta protestakizunak etsaiari arpegira ta kalera  
botatzen ausartu gabe?

Irten plazara, joan tertulitara, ta esan eta zabaldu,  
zabaldu idatziz eta solasez, dan bezela dala, egiten  
zaizkizuten salkeri, pardelkeri, purtzilkeri ta kerien  
keri sinistezin alak. Artaraxe baizik ez dituzute bein-  
goz uxatuko labe zamorroak, ez kukilduko arerioak.

Ikasi ontan nigandik. Unamunoren «aserrea»  
zenuteke erakustun. Edota Santa-Kutz batena. Naizta  
Etxahun batena. Ez aantzi Lope Agirre berbera euskal-  
dun duguna.

Onakuok ez gatzazkizutela eredugarri? Jakiña ezetz zenbait geiegikeritan, baño zergatik ez zertxozertxobaitean? Gogartu Txillardegi-rena: «eskierki agintzen dizuet au, kontuan ar dezazuten: naiago dedala nik Unamuno eragillea, bere akatsak eta guzti, beñere kezkatu ez diran sasi zentzudun berekoi guziak baño». Sekula kezkatzen eztiranentzat ezezik sumintzen eztakitenentzat ere bapo dator iritzia. Zeok lenbiziko zaratara ontzarena egiten baduzute, igesi jun, edo marraskilloena, adarrak gorde, bearko nire kideko ta ezpaloiko batzunbatzuk ekin, akar ta zakar, lozorroak astintzen, parisaitarrak narrugorritzen.

Ez gatzazkizutela eredugarri! Eztare Leon Bloy bat, Papini bat? Eztare orañeneko gure «Juan de Iturralde», «El catolicismo y la Cruzada de Franco» idatzi duna? Ezetz? Demontre zuzia! Ea beste au: eztare gure Loiolako Inigo? Eztare Jesukristo berbera?

Balinbaite, bi ok baietz. Tira, ba. Asi gaitezen Iñigorekin. Gero elduko Jesukristogana.

Zeoi entzun dizutet, Aita Manzisidoren liburu berriaren gorespena: «Gure Patroi aundia». Andimari entzun, ain zuzen: «Liburutxo ontan beste guztietan baiño askoz ere geiago ikasi dut Iñaki deunari buruz;

gaiñera, santu andi au, beste liburuetan baiño ortzargi, eskurakoi ta adiskideago agertu zait».

*(Euzko-Gogoia. 1957. Orrilla-garagarrilla).*

Arrazoirik badu lekeitiar bipillak. Ugazamatarrek ondo gorderik lurremanda ixildu nai izandako amaika-txo Patroiaren zertzelada polit jakin ditugu beintzat, Manzisidorek tartean martean zipristinka «inuxente-ki» adierazita. A ze «iñuxentea» gure Manzisidor!

Orriz orri, or adierazten zaigu Iñigok zenbat eta zenbat sufri bear izan zun Inkisitoreengandik (zenbat? Inkisisiñoie ba! gernikarrek liñotekenez) eta nolako trebe arpegi ematen zekin, ala zerizkion bakoitzean, zanari zala: batzutan jardespen zorrotzenez eta bestetan, irakaskarriago zitekenean, ostetasunezko mutumututzez.

«Iñigo egizalea zan, eta barruan zeukana, Jau-naren aurrean irixten bazitzaion, iñori esateko bildurrik etzuna. Caraffa-ri ere gauzatxo batzuk esan zizkion, itzalez eta gozoro, baiño esan. Min artu zun Caraffa-k; onez esandakoak izan arren min eman zioten...». Ta abar. (143 orrian)

«Gizona zan gero Iñigo... Erantzun bear zituanak, onez erantzun zitun; baña praillea aurrerartxo sartzen zala, ta eskubide etzuna egiten asezanean, kito! ezta itz bat geiago berari. Gizon jatorra; ez gaurko askoren antzekoa. Jainkoari bakarrik zion bildur». (104).

Berrogei ta bi egun kartzelan Alcalá de Henares-en; ogei ta bi Salamanca-n; auzitegiak eta baitegiak eta galerazpenak España guzian; galerazpenak «Gogo jardunak»entzat; galerazpenak dotriña irakatsi zezan, prallez jantzi zedin, txiroei lagundu zezaien, «au pekatu astuna da, au pekatu ariña da» erabaki zezan, Lagundia osa zezan...

«Eragozpen oiek etzioten askatasunik uzten bere lanetan. Orregatik, jardun bazioten ere epailariak edo juezak, an gelditzeko ta gelditzeko, ez! Danak utzita. Paris-ko Unibersidaderako bidea artu zun». (107).

«Iñigo-ren amesetan, lagunak biltzea oso barru barruan izaten zan. Alaxe, ikusi degunez, aurreko urteetan lagunak bildu zitun. Lagunarte

ura, Salamanca-tik atera zanean, ausi zan. Lau ziran: Kalixto, Arteaga, Cáceres ta Reynald. Au, gazteena, praille sartu zan. Arteaga Ameriketara bi jun-aldi eginda, azkenik oso aberats Salamanca bizi izan zan. Cáceres bere erri Segovia-ra jun da orduarteko ametsak utzita bizi izan zan. Inigo-ren lagundia toki onean!

Emen Paris-en lan orri berriz ekin zion». (115).

Paris-en, bada, azkenean, Mont-martre-ko elizan, irazi al izan zun Españian ekinda re ezindako Jesusen Lagundia.

«Antxe, Jauna dagon aldare inguruan izki aundi batzutan itz auek jartzen dira:

*Societas Jesu  
quae Sanctum Ignatium Loyolam  
Patrem agnoscit, matrem Lutetiam,  
hic nata est.*

Esan nai du:



*Jesusen Lagundia,  
Aitatzat Deun Iñazio Loiola,  
Amatzat Paris ezagutzen duna,  
emen jaio zan» (123).*

Gerozkoan beti euki zun Paris-kiko oldozpen eta gogorapen gozoa. Berak zionez, beste iñun baño obeto ikasten zan erriartan; eta ango ikasleen bizitza ere iñun baño zuzenagoa eta ego-kiagoa zan, jakintza norbereganzeko. Ala idazten zion Erroma-tik bere illoba Loiolako Millan-i, au ikastera norabaitera joatekotan zebillenean» (110).

Ta ez uste ez, maikideok, Iñigoren aldiko inkisitorre aiek txit biguñago ziranik gaurko militarra-eta baño. Ezer gutxikin, batzutan ezeren errurik gabe, an joan bear izaten zuten makiña bat zorigabek lenbizi giltzapera ta azkenik surtara. Bazekin Iñigok zer zetorkion, ezertan erejirik edo okerrik arrapatzen bazioten. Alaz guziz, etzan batere ikaratzen, Ikaratu? Epailaria-  
ren irain edo zemai bakoitzari zorrotz eta aguro jardetsi oi zion zegokion moduz eta tonuz.

«Eparlari izandu zan Alkala-n, Toledo-ko Gongoztaiaren ordeko zan Juan Rodriguez de Figueroa» (94) Figueroa au an joan zitzaion Iñigori leotzara, Iñigo leotzean zegonetik ogei ta zazpigarren egunera; milla galdera amarru ondoren, itandu zion ea larunbata jaitzat gordearazten zun. Ta Iñigok, «bere euskaldun arrandian sumin sumin eginda» (diño Artetxek), orra nola erantzun bertan itzetik ortzera: «Nire Aberrian eztago judurik», «En mi patria no suele haber judíos».

«Azkenik Iñigok galde egin zion (Figueroa oni berari), ea aiengan erejirik arkitu ote zun ba...

-Ez! arkituko balitz, erre egingo ziñuzteke...

-Baita zu ere (erantzun zion Iñigok) erreko ziñuzteke, erejirik zugan arkitzera.» (94).

Iñigoren sumin santu ori, maikideok! Iñigoren sumin santu ori, euskaldunok! «Kristau zindo bakoitzak bear bearreko du Jaungoikoaren sumin santua», gogorazten digu Leon Bloy-k. Ez da bildurrik egi sumiña noiznai eta nunai aldarrikatzeari. *Veritas liberabit vos*. Ostera, ezin uxatuko ditugu gure artetik merkatariak eta gurutzean jostea nai diguten Judas pa emalleak.

Eztugu aztu bear Pernando Amezketarrarena: «Iru gauza alperrik galtzen omen dira beti mundu ontan: urrutiko egurra, egoaizearen indarra ta pobrearen arrazoia».

Baldin gerok enetxuok ezpadugu burua defenditzen, nork egingo digu ori bi milloi ez geran abenda naiko pobre oni?

# 30. EZ IXO. JESUSEN ARAURA

## **ABENDATSEK:**

-Eztiguzu erantzun, ordea, beste...

## **UNAMUNOK:**

-Onatx bere arian. Ortaraxe natortzute, astiro bederen; astiro baño zuzen. Gorantzi, lenik ortarako, Jesus: gure Anai Jesus; 30 txanponen truke gurutzera saldua; farisaitarrek agintzen jarrai zezaten lurretik garbitua. Gure Anai Jesus! Gure Maixu on, ta eredu betiko, ta pozkida bakarra!

Eres Tú la Verdad, la que consuela  
de la muerte; el raudal del agua pura  
que nos quita la sed, no del océano  
la que la vista llena. Solo embuste  
y error no más Naturaleza...

(El Cristo de Velázquez, 4a. parte. Verdad).

Oar nola darion bere Egia, esaka ta berresaka: beti Egi bera, beti bere Ebanjelia. Oar, lakioz eta amarruz datozkion farisaitarrei, nola Jesusek salatari erantzu-

ten dien, samiñez eta sumiñez, bein ta berriz jardeska: «-Illobi azalzuri ez bestelakuok. Otso bildoxjantziok!»

Or datozkio: -Jauna, emakume au pekatuan arrapatu dugu; arrikatuko al dugu? -Zuetatik pekatu rik eztunak iraitzi. Ta Jesus, Jesus oro ikustuna, lurrera makurtuz idazten, idazten... -Zer ordea idazten? nongere bakoitzaren pekatuak? Zarrenetatik asita, an izkuta bear izan zuten Jesusen aurretik. Bearko erensuge likits alen aiek!

Orra gure bearkizuna, Jesusek irakatsia: idatzi barkatzeke, idatzi salatarien obenak, gaurko parisaitarren maltzurkeriak banan banan, ta ondarrean bañore aserrean, aserrearen arkaitz bizian. Alaxe baizik ezitugu aienduko bestela arranuok.

Ortik atera: nola izango dugu ba lotsagarri, nola-tan larregi, gure Sumiña ematea ta berrematea? Aitzitik, ez berresatea genduke pekatu eriogarri, geure bizitzaren aurkako pekatu ondatzalle eta Sumi santuaren kontrako oben alkegarri.

# 31. BERRESATEN EZ LOTSA

## UNAMUNOK DARRAI:

-Entzun nai eztigunari, belarri ta buruz gor dagonari, gorrarena egiten diguten guzieri, esan eta berresan egin bear diegu, berresan gure Miña, berresan gaur, biar eta etzi, atsedeen gabe, oiuz eta zinkuriñez, isiz eta axutaz, negarrez eta akarrez, zaunkaz eta ozkaz.

Zaunkaz eta ozkaz batez ere, bai jaun maikideok; ea orrela gorreria joaten zaien eta lo gozotik konde-txoak esnarazten ditugun. Aditzalerik eztugula ematen badu re, «illargiari gauez zaunka, eguzkiari egunez zaunka» ta ortzaka... jaramon gabe doazen guzieri. Alakoentzat kausk eder batek, mami-mamiko batek, indar bizkorrago lezake arrazoi borobillenak baño. (I, 625 ta urrengoak.)

Bestalde, berriz, « gixaixo bat litzake iñolaz ere berebaitako ezertxo berresan bearrik eztuna. Oldozkunak eta sentipenak eztira korreu selluak antzo: bein erabillo ezkerro baliogabeak. *Nosce teipsum*, «Erau ezagun adi»: esaera au asma zuna ezin iduritu dugu aolku ortara bere bizitzaro luzean berritzuli gabe. Gizon bakoitzak -eta Erri bakoitzak- barrunpean dara-

mazkin egiak erreminten arauko dira. Arotzak, ola zulatzeko tatulua bein erabillo dula ta, berriz erabil-tzea eragotzia ote du? edota iltze bat malluz josi dula-koz mallu ori berriz eskutan artzerik ez ote dauka? Egundo eztut jardurio bat itzik itz berriztuko; bulkoak bai ordea agitz sarritan. Bulko edo idea ori, eun aldiz lenez mintzatua izanagatik, berri-berria deskeintzut zeren bide berriz sor zait edo ideakide berrien lagun damaizut» (I, 525).

Ara Jainkoa, Jainkoa dugu betiraunean berresale gogorrena. Aita Jainkoari Itz bakarra dariokio betida-nik, Itz bat eta besterikeza: bere Seme eterna. Jain-koaren eredura, orra eguzkia: eguzkiak dirdira berbe-ra dario negu ta udara. Orra aritza: aritzak ere udabe-rrioro ostoberritze berdiña. Artu pixuko edozein idaz-le: idaztankera ta idea sorta betibata. Ara: biztanle bakoitzak zenbat eta nortasun sendoago ukan ordun ta batasun tenkorrago oi digu. Bizitzen jarraitzea zer besterik bait da: gere nortasuna berrematen eta berresaten jarraitzea baizik?

Laudorio igoagorik ezin egotsi leioke beraz Alguz-tidunari Agustin aundiak -beti San Agustin!- oguzita-ko uraxe baño: «-Edertasun beti zar eta beti berri!». Ta gure Miñak zer gorazarre kutizigarriagorik opa

dezake alajaña, alako batean gizadi mireslearen abo-  
tik auxe baño?: «Euskal Min, beti zar eta beti berri!»

Nai ere alaxe nai bear dugu Euskal Miña: beti zar  
eta beti berri.

Baña nik, izkuntza larrekoa,

nai aunat ere noranaikoa:

jakite-egoek igoa;

soña zar, berri gogoa;

azal arista, muin betirakoa.

(Lizardi. Eusko-bidaztiarena).



## 32. EZ JARAMON EZ ULERTZA

### ABENDATSEK:

-Alako batean! Noizko, noizko batean ordea, zuzenetsiko gaituzte, don Migel? Gure egunak zenbatuak daude. Iltamuon etsipen larriena auxe dugu: munduak gu ez ulertua! sekulan gu ezin ulertu al izangoa!

Agoni onentzat kanpotarrek eztute jaramonik, ez kupirarik; ta biar, il gadinean, Biriatu-ko amaika soldadu gaduan ildako aientxena otsegingo dugu, baña alperrik otsegingo: «-Orhoit gutaz!».

Alper-alperrik otsegingo bai. Munduak ez liguke, gu ilda re, arretarik ipiñiko, ez errukizko oroipentxorik gordeko, ezpaitu sekula sumatu gure patu ankerraren izkutapen sakona!

«Los extranjeros no toman de nosotros sino lo menos nuestro, lo que menos choca a su espíritu -y ello es natural-, lo que se acomoda a la idea que de nosotros tienen, idea que es siempre y forzosamente superficial. Y nosotros, pobrecitos!, cedemos a este engañoso halago, y esperamos el aplauso de fuera, de los

que en realidad no nos entienden, y aunque nos entiendan no nos comprenden». (I, 898).

«Mas es natural lo que hacen, porque las gentes quieren que se les diga lo mismo que ellas piensan, que se las corrobore en sus prejuicios, prevenciones y supersticiones; los hombres quieren que se los engañe. Y así va ello». (I, 898).

«Sagasta comprendió a los españoles, pero no a España». Y todos los gobernantes vulgares se dejan llevar de la corriente y disfrutan de largos años de Poder, y todos los escritores vulgares, los que hacen copiosas tiradas de sus libros y los venden, y todos los artistas vulgares, y todos los pensadores vulgares, comprenden a sus compatriotas, pero no a su patria. Así es.

En el alma de España viven y obran, además de nuestras almas, las de los que hoy vivimos, y, aún más que éstas, las almas de todos nuestros antepasados. Nuestras propias almas, las de los hoy vivos, son las que menos viven en ellas, porque nuestra alma no entra en la de nuestra patria hasta que nosotros la hayamos

soltado, hasta después de nuestra muerte temporal». (Sobre la europeización. I, 900).

Españari buruz esandako itzok, Unamuno, pixu ta egi geiago dizute milla bider Euskal Animari buruz; bai, «Españian espāñiarrena derizkiozun» Euskal Animari buruz, Eskolak, elizak, irratiak, zinemak, egunkariak... itxita daude euskalgogo iltzeararentzat, ta aldiz irikita gure arteko kirtenkerientzat. Goethe-ren bala-dako artzaiarena gertatzen zaio gure Volksgeist doakabeari:

*Belartza lora ederez  
oparo okia dago;  
bildu bai nik lorak,  
baña al dakit norentzako!*

Goethe-ren artzai gizajoak zugaizpean zigarozkin eurite, ekaitz, txingor eta iruntzak, ate ura noiz irikiko zai... Baña, ate ura, -zesan saminkiro maitearen biotzazaz- ate ura ez irikitzen!

Onatx eusko gogo zorigabea: «leotzean il iduri, gizalaba eder odolgabez zuri». Alperretan deituko du iñungo ateetara; itxirik dauzka oro; ez du, bere zinku-

riñaren adierazpidetzat, Españian irratirik, ez Holliwood-en pelikulik, ez iñungo enderrietan ots aundiko idazlerik, gure agoniaz lurbira jabetu ta kupiaraz dezan eta, Ebanjeliko bi aizpak Jesusi bezela, gaurko mundu agintedunei gure alde arren ga dezaie: «-Maite duzuna gaixorik dago.»

Ez paitakite gure trajedi latzaren berri! Ez gaituzte ulertzen! Ulertu eziña! Zure Paris-ko bakartea! Bakarrik bizi ta bakarrik il bearra! aztarrenik uzteke...

«Delenda est» ankerraren urolde zirimolak arrapaladan garamazkinontzat a ze bestelako pozkario izpi litzaken auxe badare: naufraguok aldarri besoa ta maitasuna luzatzea, edota ulertuko ta maitatuko ginduzken mundu zorikidearen besoetan edo beintzat begirapean beintzat kupirapean azkena ematea, orañarteko gezur ura egitzat sinistatuz: «-Gizaki guziok, alegia, anai gerala; lurbira osoa Bilbo aundiago bat dala.»

Hoy te gocé, Bilbao. Por la mañana  
topé con un paisano,  
como yo, por su dicha, un hijo tuyo.  
...Tuve un rato en mis manos  
su mano abandonada,

y al despedirnos, para mí, me dije:  
hermanos somos todos los humanos,  
el mundo entero es un Bilbao más grande.

(Ant. poética, de Unamuno. Colec. Austral.

Pgn. 80).

Alabear etsaiak uka egin digu kutizi liparño orixe re. Kristo Eroslea dugu soilki zorikide, gizonetan beste bat bakarrik ez ta. Arekintxe bat, gure etsipen larriak dario: «-Eli! Eli! zer dalata utzi nazu?», Jesu Anai, orrela aldarri zenuneko gurutz ordu garratzen artan, nole-rebait jakin bide zenun balinbaite etorkizuna belaunikatuko zitzaizuna. Gure azken zinkurin onek izango aldu etorkizunean badare oiartzunik, illetarik, plañurik?

Ezin jasan dugu, don Migel, ezin ta ezin, ontaraño-ko bakartea ta deslaia *Transeat a me calix iste*. Mundu ankerraren entzungorra, arduragabea! Gutaz ajolik eza!

Orhoit gutaz! gero ta lerrenago berroska ari gaituzu euskaltzaleok, arren baño arren. Biriatu-ko gizajo anonimu aiekintxe: Orhoit gutaz! Alper-alperrik, ordea, Biriatu-n, eliz atarian, arzuriko dei apalari zuk bai, Unamuno, jaramon presta zenion zirrarez eta

doluz; ta baita, gerautar zeralako, olerki maitatiena aberkide aierixe opaldu ere.

*Pasasteis como pasan por el roble  
las hojas que arrebatá en primavera  
pedrisco intempestivo;*

*pasasteis, hijos de mi raza noble,  
vestida el alma de infantil eusquera,  
pasasteis al archivo*

*de mármol funeral de una iglesiuca  
que en el regazo recogido y verde  
del Pirineo vasco*

*al tibio sol del monte se acurruca.*

*...Orhoit gutaz! Pedís nuestro recuerdo  
y una lección nos dais de mansedumbre;  
calle el porqué... vivamos*

*como habéis muerto, sin porqué, es lo cuer-  
do...*

*los ríos a la mar... es la costumbre  
y con ella pasamos...*

Biarritz-era datozen udazale arrotz oiek, ordea, oiek, eztatozkigu noski, nekazari bizitako ta gudari ildako biriatuar gutxi batzui oroitzarre ematera; ezta-

re noski Auñamendiko euskera iltzori ezagun-ezari negargoan laguntzera.

Dagola, bide bazter, lapurrek elbarria; aurrera lebitak, jaramon egiteke... Iltamuon! Samariar On bat, bat badare, ez al dugu iñun jo al izango Euskal Animatezatzat?

# 33. ET CONSPUEBANT EUM...

(Marc. XV, 19)

## UNAMUNOK:

-Ezagun duzute gajuok gazte zeratena. Gazteegi zerate oraindio, lenbiziko inka gaiztora etsipenari burua ez makurtzeko. Utsaren urrenakin orrela bioz-gabetuko zerate ba? Etsipenean Itxaro! nin lege ta jokabide. Izazute zuek ere. Argiberik ez sumatuagatik, esan eta gura nirekin: *Spero, spero quia absurdum!*

Etzazutela gure bakartea orren beltz ikusi. Gure goibelak badu ostarterik. Mundu zabalaren aurrerako euskaldun izena izen pertxenta dugu oraindio, ohore osoko, errege. Gure jolas, erromeri, oitura ta galaita-sunak beira nolako betartez eta txaloz goraipatzen dituzten atzerritarrek....

## ABENDATSEK:

-Ara, benaz: goraipatuko ezpalitue, milla bider obe. Oien txalo txerak, gizona, ia sekula eztira izaten gure seme jatorrentzat; ez, gure izakeraren ezaugarri ta emaitz ziñezkoentzat. Sasikumeak, aur endekatuak txalotzen dizkigute oiek. «Entristece oír que nos celebren lo menos nuestro.»



Kanpotar geientzat euskaltasuna baserritarke-  
ria da (ta ez gure baserritar eredugarrien zindoa ta  
sendoa), trakeskeria, bargastakeria; «Donosti zar»-  
eko edo euskal (?) -erromerietako zurruta, aiurruntzi ta  
sabelkeria, beste nolanaiko kirtenkeri asmatualen  
lagun.

Gure erri musika zar, sakon, barruntsu, autokto-  
nuarentzat irratiek eztute txolarterik; bañan fandango  
lirdinga ta beste milla purtzilkerizko aurgaiztoentzat,  
bai nazkatzeraño. «Apena que delante de nuestros  
hijos naturales, de las flores de nuestro espíritu todo,  
nos alaben a los adoptivos, a las meras excreciones  
de la mente. Hay elogios que desalientan...»

Euskerarentzat galazpena edonun; baña, erdi eus-  
kerazko erdi erderazko, mordollokeri oientzat, oien-  
tzat bai, antzerkiak zabal, algarak merke ta bendi-  
ziuak ere erruz.

Milla bider obe bai «Amaya» izeneko filme txonta  
ori erditu izan ezpalute. Amasei urte aundian pelikula  
batxo-bat ez sortu euskaldunontzat, eta azkenean ori,  
Naparroa zarraren epopeia dizdiratsu gurgarria lerd-  
katu baizik egiten eztun ori!

Gure ohoreak kentzea, bat; bestea (ta au beltza-  
go!), beren delitu ta piztikeriak guri egostea. Urkatuta

re, eortzita re, ez gaituzte pakean utzi demoniño ale-  
nek. Bai zera utzi: nolanaiko delituen ondoren, orain  
nolanaiko irainketak.

«Los que destruyeron Guernica no tienen derecho  
a hablar de patria». 1938 ko uztaaren 18 an mintzatu  
zan sententzi ori. Nork uste duzu ordea mintzatu zula?  
Franco-k. Ez egin sinisgorrarena. Bai, jauna, bai. Fran-  
co-k, «el Generalísimo y Catolicísimo Francisco Franco  
Bahamonde»-k jaulki zigun arrikada. Jaulki guretzat  
eta guk gorde berarentzat. Olakorik geiagotan ere ler-  
dekatu zitun, lasai asko, lotsa aztarrenik gabe: «Agui-  
rre mente. Nosostros hemos respetado Guernica  
como respetamos todo lo español». Berak lerdekatu  
konbeni ala bider eta besteei, jerarki edo itzal geiene-  
koei batezere, berebat egiñarazi. Min eta erruki  
damaigu Mons. Gustavo J. Franceschi batek, (aukera-  
tze baterako), an urrutiko Arjentinatik irañok sinistu ta  
zabaltzean, frankotarrek eurek dagoneko aitortua bai-  
tute, beren arteko ixil-mixilletan, epaion gezurra ta  
iruzurra:

«La prensa de izquierda inglesa y francesa ha  
dicho y repetido que la destrucción de Guernica  
fue provocada por el bombardeo aéreo de los

nacionales. El cuartel de éstos respondió muy acertadamente que en aquellos días el estado del tiempo había impedido a la aviación traspasar los montes que separan la mentada ciudad de los aeródromos blancos. Ello no obstante, la calumnia siguió apareciendo en los periódicos; nada de esto puede sorprenderme». (En el humo del incendio. Pgn. 160).

Aguirre, Presidente de Euzkadi, que no puede ignorar la verdad sobre Guernica y es, sin embargo, el primer forjador del embuste, confiesa y comulga. Cómo llegan a compaginarse tales muestras de religiosidad con la más evidente inmoralidad política?» (Ibid, pgn. 151).

«El general Franco, por su parte, agotó los medios de pacificación» (ibíd. pgn. 231).

«El general Franco hallábase dispuesto a mantener el régimen de autonomía» (ibid, pgn. 259).

«He leído en algunos artículos que la población vasca es unánimemente católica. Desgraciadamente no hay tal» (ibid. pgn. 256).

«Azaña creyó poder declarar en 1931 que la península había dejado de ser católica: tontería enorme...» (ibid. pgn. 232).

Gizonek ezin eguzkiari oztoporik ipiñi egunargitu dezan. Eztare egiari, goiz edo berandu jabetu dedin. Naiko berandu badare, egia jabetzen asi da; ta gaurregun gizadia, Franco-ren keats jario ori gogoratzean, ezin atera da bere izutik galdezka: nun ikusi da, ta noiz, lotsa gutxiagorik? nun gezurrontzi ustelagorik?, noiz olako katolikurik? Enebadak eta galderak, izuaren izuz. Ezin ba beren laborritik oneratu, Gernikan gertatuen berri ikusiak eta ikasiak.

Euskaldunok onakoan orratik sinistu egiten diogu itzik itz Buruzagi Borobillari -bein bear ba!- ta menpe-tasun alaienez aserrea onetsi. «Gernika erre zutenek eztutela, beraz, eskubiderik aberria aitatzeko»? Amen, amen ta amen, Patxi. Ala nai dakiola Jaunkoiko-ari! Ortan gaude «per omnia sxcula sxculorum». Amen.

Aotik arrapatzen omen da ba arraia. Baita onako-an ere, onako alea naiko ao ustela izanagatik. Ustelaz gañera, «freskoa» ere galanta. Ez al da aundi? Ustela ta freskoa, biak batera! Olako arrai mota bakanik

eman bear Ferrol del Caudillo-ko itxas bazterrak!  
Paparrez papardoa dirudi ta litzake; koipez eta lirdin-  
gaz, martsopa... Nolanaire beintzat, museu gela  
batean gordetzea merezi luke, bere aoko amutik zin-  
tzilik, gorasarre itzokin: «Gernika erre genunok eztugu  
aberria aitatzeko eskubiderik».

*Expedit unum hominem morí pro populo.* Ots,  
«Erri osoaren orde z gizon bat il dedin konbeni da». Ala  
aolkatu zun eta zertuazi Kaifas-ek. Gaurko kaifasta-  
rrak asko «bibotu» zaizkigu. Eztiñote: «Il dedilla gizon  
bat.» Ori guzion onerako ta atsegiñerako litzake. Bai-  
zik: «il dedilla Erri bat; euskeraz diardun ura; iñon adi-  
tuko eztioten ura: il dedilla Euskalerra, gobernutarron  
erru amorru guziak gañean ditula!».

*Expedit.* Noski ba konbeni zaiela. Eurei, noski, kon-  
beni. Ez ordea errijendeoi. Errijendeok nai ta otsegiten  
duguna, peninsularen nazkak eta atzerapenak premi-  
ren premi duna, munduan justizirik izango bada  
berandutu gabe lenengoz zertu bear litzakena, auxe  
da, Kaifas-ena bai baña itzik itz: *unum hominem!* Len-  
ballen, lenballen, garbitu dezatela, ez errugabeko Erri  
bat, baizik erru danen Buru Aundi dan eta dagon ori,  
ori, guzion pakerako, ta kito! Dagola museuan bere  
aoko amu ta guzi !

Milla bider zorigabe bai, Euskadi gajo: lendabizi, bizitzeko eskubidea uka dizute ta eriotz kondena eman; ta orain, dedu ona ta arpegia txistukatu nai dizute, Kristo anaiari antzo. Oi! oi zeñen amets dugun, zure Nekaldia ozkarbi dedin eta Kristo Anaiaren gurenda izpitxo bat gozartzen asi zaitezten: «gurutzean igo nadinean oro ekarriko dut nigana».

*O Euskalerrri, agoni Errri,  
ezbearretan zaildua;  
amildegitik amildegira  
obiraño irauldua;  
ez euskerarik, ez Gernika-rik,  
ao ta esku lotua:  
orra beinberriz be tarte ederra  
sasikristauek loitua!  
Eutsi, alare, Jesusenakin  
opalduz zure iltamua!  
Izango duzu Beronika-n bat  
arpegi nork garbitua...  
Txistu oietxez edertzen zaizu  
Kristoren «Musu Santua»!*

(«Erri bat gupuzbidean»-etik  
eta «Bizi Nai»-tik osatua).

## 34. BRINDIS ITZAK ETA BESARKA

### UNAMUNOK:

-Ez alabaña, gazteok, larritu ortaraño. Neronek ere, «Pobre Miguel!» negion buruari aspalditxoko olerki batean. Ezpaitzan kalean aipurik, gutxiago txalo zartarik, nire erraietako idea seme jatorrentzat. Niri añaixe legozkioke Euskalerruari Ruano-ren itzok:

«No es Unamuno de los escritores llamados a ser populares. Para él están hechas estas palabras de Emerson: «El espíritu construye su habitación y en seguida la habitación encierra al espíritu.» Su influencia sigue el destino de su personalidad: cierto aislamiento, cierto carácter neutro. El pueblo no aplaude ni sigue más que a quien hace concesiones al objeto humano, a quien abdica de su yo en beneficio del común patrimonio... Habrá quien se lamente, entre esta multitud gregaria, de que Unamuno y Ortega no escriban novelitas románticas o no se hagan toreros, y eso con la mejor buena fe del

mundo, por el deseo de aplaudirles con toda su alma.»

(«Vida, pensamiento y aventura de Miguel Unamuno». Apéndice X).

Aatik ere ordea ez nun itxaropena galdu. «Etorriko duk eguna», agintzen nion neure leñu-leñuko jatorri garbiari ta agintzen neure barneeneko belaun seme kuttunenei.

Ta orra gaur, gaur ain zuzen, orra eguna eldu! Nire apoteosi eguna! Zuek, billobok, aberkide maiteok, orra nire ezurmamitako euskotasun miñena gaur antzeman eta onartu, ta kaleumeak kaleratu, arrozkumeak lander etsi ta uxatu. Kanpotarren aupa zalapartek eta gezur gorespenek zer balio dute aberkideon anaiartze onen aldean?

Ez bekidala dagoneko iñork uka beraz nire izate egiazta: «Nire Erria nazute!», nire Aberriaren kontzientzia, gogapea! Ezin nindeken besterik! Jakin dezatela bada erdaldunek ere ta beingoz nire mendua aitor:

*«Yo soy mi pueblo.»*

*«Que uno es el hombre de todos*



*y otro el hombre de secreto.»*

Poztu beraz, gazteok. Nirekintxe gaur gertatua jazoko da biar Aberriarekin ere, biar beintzat, dagoneko asi ezpada. Eutsi beraz itxaropen orri. Ez biozgetu. Ez abaildu. Zaildu baizik. Oraindik eztakigu nondik eta nola: baño gaurko bakarte onekin, egunotako sufritze larri onekin, egundoko basilika tantaiena eregiten ari diogu Euskalerrri martiri ulertezari, gutxi ta gaizki eza-gunari.

«Seme galdua»ren edo beintzat galdu etsiaren otorontz ontan brindis dagoit nire euskotasun sekula itzali gabekoaren gaurko Agerkundeari. Ta nire onako garaipena biarko edo etziko Euskal Garaipenaren egunsenti bedi. Topa, beraz!, topa, beraz, «zaldun ibiltariarenak egitera aterako geran» Etorkizunari! Agur, dagonetik, agur, gure emaitz zindoentzat badatorkigun Eguerdi Aundiari! Agur, Ezilkorrari!

*Soñé que acababa el sueño, y desperté; estaba oscuro;  
no había luna ni estrellas, y estaba solo en el mundo!*

*Volví hacia atrás la mirada, y al no ver, mi fe se puso;*

*la gané al mirar de frente!, solo se cree en lo futuro!*

(Diario poético. Canc. 7).

Orañarte ikuseziña indugun, Abendats. Ta gaur aurrean akust neu baño nerauago, zuti, goren; gazte ta zar, biak batera, adiñik gabe; eziñilkor. Guraso akust eta seme ere baaut. Igandik sortua nauk eta nigandik ere luzatzen oa seme ta liburu berrietan zear.

Abendats! Abendats seme gazte! Unamuno-tar Abendats nirea! I indudan eta aut nire izate muñaren emari jatorrena, lenseme oñordetzakoa, lenseme «ixilpekoa»; ta lotsati erdigordean euki izan aut, txalo guttisko irabaziko indakelakoan, nireetan nireena indularik! Abendats seme! Neure izenez igurtziko induketa burutik oñetaraño baldin aldi berez abaso ere ezpainduda, ezpazinduda...

Abaso gurgarri zaitugu izan ere aldi berez euskotar guziok, Abendats! Abendats guraso! Guraso zakust eta zaitut bai batezere. Ta ni, Abendatsar nazu: Abendatsar Unamuno. Zure seme izana noiznai eta nunai,

neronek axalez azaldu baño geiago ta geiago neurri-rik gabe. Zure seme, jokera jokaera bakoitzean: baita igesika edo igesi ustetan ibiltzean ere. Zuri zor nik naizen eta dudan oro; ta, Ero Aundi!, igesi usteka ibillia duzu nire zati bat, nire azalera, zugandik iges al izatekotan neuregandik ere bearko zukela ta ori ezin zite-kela aztuz. Orra nun gaur, «otzaldi zoro baten itzuli» neu osorik eta estalki gaberik topatzean, orra nun zakusdan aurrez aurre neu baño nerauago, besoak zabal, besarka gaitezen. Ta orra nun betiraunaren erloju tiktak miñenak babesten eta zorakortzen nauen: Zeu-Neu, Neu-Zeu...

*«Iadanik dut aditzen, zorion andia,  
joale maitearen asperen ezta!».*  
*Zeu-Neu, Neu-Zeu...*

Besarka gaitezen bai, besoak zabal zagozkidan ezkerro, nik ezin ulertu dudan arren nola gaitezken besarka beti ta beti bat izandakuok. Ulertzen dut, alare: bat-bat gera euskaltasunez; ondo bi, alaz guziz, norberatasunez, jakiña. Bat eta aldiz bi geranok, besarka gaitezen bada, gazteok jakin dezaten nondik dudan nire eitea ta aberastasuna, ta jakin nondik

dezaketen eurek. «Nire abendari zor baitiot nik izan eta balio ala, ta baitare berarixe zor zure (Don Kijoteren, Españiaren) bizitza ta ekintza senti al izatea.»

Ta Unamuno osoak zaitzala besarka: euskeraren kontrako biraulariak eta Euskal Animaren erdal mundurako mandatariak. Biraulariak, damuz; erderazko mandatariak, arrandiz, zorabearrez. Olaxe, betiereko arremanean. Olaxe, bata bestean Bakartea austen dun laztanean. Aski gera biok! Eztugu onezkero lurbi-raren koipe txalo bearrik. «Entristece oir que nos celebren lo menos nuestro.» Aski gera geranakin! Goratzekotan, gora gaitzatela geure izate muñean, geure jatorrean, eta ez, ez iñolare, ez izun itxuretan, ez gezur azalkeretan...

### **ABENDATSEK ONUZKIRENA GOMUTAN:**

*-...Jaun errukiorra,  
barkatu zaiozu zizukean zorra!  
ta Argi Aberrian ikus al nezake  
lauso eziñezko adiaren jabe;  
ta al bezat, Jaun, otoi, besarka negarrez,  
beste iñon ez anbat negarra dan emez!*

### **ETA UNAMUNOK:**

*-Pobre Miguel! tus hijos de silencio,*

*aqueellos en que diste tus entrañas,  
van en silencio y solos  
pasando por delante de las casas,  
mas sin entrar en ellas,  
pues los miran pasar como si fuesen  
mendigos que molestan, no los llaman;  
y aquellos adoptivos de bullanga,  
sin padre conocido,  
aqueellos que arrancados a la masa  
les prestaste tu nombre,  
éstos son con aplauso y algazara  
recibidos; son éstos  
los que tu nombre llevan, traen y exaltan.  
Cómo ha de ser!... Son suyos,  
de los que así los miman, de su raza,  
en ellos reconocen algo propio,  
los engendraron ellos mismos. Nada  
debe, pues, extrañarte los festejen;  
son sus padres. Aguarda  
para tus propios hijos mejor tiempo,  
déjalos al mañana.*

**ETA ABENDATSEK:**

*-Ezpañak dar-dar, lepo zañak ler-  
bearrean, muinki dut estu nere eder*

*besoetan, ta atsa jaurtiki:  
ta ura bai, egin zan aoan abesti!*

**ETA UNAMUNOK:**

*-Las ideas expósitas hoy triunfan,  
ellas llevan tu fama;  
obra de caridad fue darles nombre,  
buen provecho les haga!  
Pero tus propios hijos de silencio,  
los propios de tu alma,  
los que limpio linaje y noble alcurnia,  
los que eran tu esperanza,  
ay Miguel!, mírales que van perdidos,  
qué será que les falta?  
Pero no, déjalos; cuando los otros,  
los expósitos vuelvan a la mesa,  
los tuyos surgirán limpios y enteros,  
ellos solos se bastan!*

**ETA ABENDATSEK:**

*-Ene leozpetu jare berri!  
eusko orok zaitzagu miñen eztigarri,  
ta besteren gogo menbetik  
jare gagizu usu, geurea gaiturik!*

## **ETA BI-BIEK LILLURAZ:**

*-Apaldiak elkarren ondoren  
jalki ta, uso zuri antzean, zetozen  
itzuli, itxaso urdiña zear,  
mokoan, edergai, besoaren abar.*

*Itzuli zetozen apaldiak;  
itzuli zetozen nere uso zuriak  
Aberriarentzat damesgun  
legor gizenetik, jai ostoa lagun...*

## 35. A ZE BI, BATEAN!

Orra, bada, azkenik, bein ta betiko, besarka egundokoan Unamuno ta Abentats. A ze bi, batean! Parabolako aita-semeen besarka ura berbera dirudi onakoa, bazkari erdiz. Emen ere seme galduak estreñetik asi zizun aitorkuntza: *Peccavi!* oben egin dut, oben bai, zeruaren eta zerorren kont... Baña Abendatsek eztio utzi Onuzkiri aitorra bukatzen. Barkapen zabal kristautsuenak eraginda, are estuago lotu dira biak negarrez. Damu negarrez, Onuzki. Pozarenez, Aita Abendats.

Ta ez, eztu ezerk etengo besarka ori, dagoneko, bazkari festari jarraitzeko ezpada. Bata bestearen aterpe baitira. Aterpe ta eustapen eta Itxaro.

*Adatsa busti diot negarrez,  
biotza berotu nerearen garrez,  
ito larria arin bearrez...  
...Berriz jaio poza suma nuen!...*

Ebanjelioko parabolan ba omen zan bat, festara sartu nai etzuna. Anai zarrena, ta zintzoena, alegia.



Zintzoena, bera! Ezertan okerrik egin gabeko uraxe, ain zuzen. Gurean ere, euskaltasunaren kontra ezertan utsegin ez omen duten batzunbatzuk eztaude Ero Aundiari barkatzeko bere okerra. Onako besarkak argaiztoz eta ondamuz jarri ditu, gorde eziñezko marmarrear, arako ta aragoko baxterretan: «orrentzat eraztunak, txekor janak, jantzi aberatsenak, omenak, orrentzat! Eta guretzat?...»

Baña oen maxia eztago lausoki ta bakarka baño entzuterik. Oen maxia bazkaldarren orfeoiketa, zalapartak eta zurrumurru anpatuak estaldu ta gañeztua baitu, areto betean nagusi. Nork ixillarazteraño menderatu jendeozteen orrua, orru ori joan gizaldietako altzo-altzotik datorrena danean eta abenda beraren izate muñari dariokiona danean?

Ta orixe zan, ezin ba izan besterik, bazkaldarrek nork baño nork orduntxe re oiukatzen ari zutena: bilbotarraren leloa. Euskal Animaren izate muñari betiere dariokion agoni izua. Bizi Naia. Unamuno ta Abendatsen besarka berbera.

-Ez, eztugu il nai! Eztugu, nai izaterik ere nai! Beti ta beti bizi nai dugu! Beti bizi ta gu bizi! Gu auxe! Gerauxe!... Orain eta emen geran eta sentitzen geran gerau gaixo auxe! Orregatik gauzka ain larrimiñez

Animaren iraunkizunak, gure Anima onetxen, onetxen!, betiraun goseak, Min eta Min...

1955. Agorrak 22.

# AGUR YAUNAK!

*(epilogu ta gogoeta)*

Dagoneko emen ixiltzerakoan, irakurle, ezjakiñaren tristurak artu nau. Ezjakiñaren tristura illaun zoro urduri batek. Ez jakin ba nik bilbotarrarekin anaitu zeran ala etsaitu. Eta agintariei egin oi zaien agurra tinka zaida buru-belarrian txasta!; eta ezergatik ezin uxatu dut.

*«Agur, jaunak...*

*Denok Yinkoak eiñak gire,  
zuek eta bai gu ere.»*

Tristura bai. Eztakizu zenbaterañoiko tristura damaidan euskaldunon artean ezin alkar konponduak. Martiri mardul narorik baditu jadanik Aberriak edo euskal askatu bearrak; bañan «konbibentziak» edo euskal anaitu bearrak? Oraindik ez, nik dakidanik. Bi milloi besterik ez gaituzu euskotarrok eta oraindik, arerioei buruz, eztugu sekula ikasi izan bat artzen.

San Juan xarrak, larogeadunak, ez omen ziñon besterik: *filioli, diligite, maita zaitetze, maita, maita.*

Gaurregun ura bizitzera ta gure artean bizitzera, ez liñokiguke auxe baño: euskotarrok, anaitu zaitezte, anaitu, anaitu...

Zer dala ta ordea anaitu, beti katu-txakur izanda-kuok?, -darrайтеke jardeska geiegik. Zer dala ta? Ezta-go beste zergatirik. Bakar bat baña bera bai naiko sendo aberatsa: «Denok Yinkoak eiñak gire.»

Egunero ta bearrago dugun benetako demokrazia-ri, benetako «konbibentzi» edo «ongiartzeta»ri nekez topa leioker sorburu ta oñarri bikañagorik, gure kristau gizartetasunak daipan gogakun orixe baño, baldin ongiartzeta benetakoa izango bada beintzat: «denok Yinkoak eiñak gire». Denok: kristauok eta kristau iza-teko sortu guziek, zuri ta gorri ta beltzok, agintari ta mendekuok, gogaikideok eta ezok, lagunok et etsaiok.

Jainko irudira sortuak geranez, nor bakoitzak darama berebaitan Jainko egi apurñoa. Edota beintzat egi antza, egi asmoa. Egi osoa, Ontasun guzizkoa, Jainkoak berak bakarrik. Ez gizakietako iñortxok.

Beraz, barka bearra diogu, norgere buruari aña lagunurkoari, bere bakarrez egi osoa ezin emana; osoa billatzean, laurdenarekin gelditu bearra; ots, utsegitea; ots, utsegiña. Beraz, barka bearra okerra ere.

Beraz, beraz... itzalik aundienez «Agur jaunak» guziori (abes daroa ain gankiro euskal demokraziak): alkateoi, aldunoi, erritarroi, Franco orri berari... Agur, ongi etorri, datorrenari; datorren nornairi. Agur, ongi izan, doakunari; doakun nornairi.

Alaber Abendatsek ere emen, Unamunoren irritsa ixiltzerakoan. Agur, Yauna (dirautzut, irakurle), ongi etorri, «Aberriak min dit» era gogatsu zatozkidan orri.

Agur, Yauna (dirautzut zuri ere, Unamunoren irritsak saminduta bazoazkidan orri), ongi izan eta gaizki esanak barka.

Asarre, beraz? Eztezazula alare aztu: Unamuno re Yinkoak eiña duguna, Unamunok ere Jainko egi apurñoa baduna, ta Unamunorekin baita Euskal Animak ere. Baita Abendatsek ere.

Bapikotu (doblatu) egin dudala Unamunoren euskotasuna? Unamuno berari kulpatu ori. Beraretxen arrandi ta izakerari kulpetsi. Berbera mintza baitzaizu bere bizitza jario osotik liburuetan barrena, nik orpoa eman ala. Ezin zuur eta maratzago joka natzaizu ortan, aretxen itzak nondik eta nola iñarrosiak dizkitzudan bereziki zedarrantuz, batzutan aspergarri izate-raño.

Erdaltasun zale ere badala? Legatz preskuaren zale ta aldi berez, perretxiku goxoen zale ez ote zeu ere? Zale batek ezpaitu ukatzen bestea. Nik uste.

Onako ontatik antzo beste zenbait aldetatik ere sogin leiokela bilbotarrari? Bai enetxoa. Erañeguntxe izparringian irakurria dut Ortega y Gasset il dala (G.B.) ta ondorioz epai auxe: «europeu oldozkuna dugu Ortega: ta Unamuno, berriz, españiar oldozkuna». Gizadi geienaren usterako, zuk dakizu, Euskalerra Españian dago ta España da; Españian españiarrena da, jesuitena, katolikuena, griñatsuena, burlatsuena, setatsueña. Euskotarrago ta españiarrago jotzen gaituzte urrutiotan atzerritar ezgutxik. Etzazula ba uste, Unamuno españiar gogakuna dala diñon izparringian aren euskotasuna ukatzera datorrenik, tinkatzera baizik.

Bai enetxoa. Beste zenbait aldetatik ere sogin leioke bilbotarrari; bañan orrekin eztiozu maxkalduko, eztiozu sendotu baizik egingo, bere betiko eusko mendu zangar giar nabarmen iratoezin gañezkor kutsakorra. Bai zera maxkaldu!

Euskeraganako etsaigo aldetik baietz? Ardura ta arregegi eman zion don Migel-ek lenbizi euskera ikasteari ta gero euskeraren kontra itzegiteari, ortantxere zearoko euskotar ez agertzeko. Gorantzi, gero:

fedealdi gorian sortu oidira siñausleak, herejeak... Biraularia askoz urbillago omen dago, gero, Jainkoa-rengandik, ajolakabea baño.

Begirune edo errespetu guttisko izan diodala, alako aiton gurgarria kantari ta ipintzean? Ortan bai, arrazoi naro damaizut ortan. Neu nagozu kezketan, gaizki ez egin ote. Alabaña, baten batek ez arren, aitonak berak barkatuko didalakoan nago. Gabonetako etxebarne pozaren geiegikeriak dituzu oiek, aiton-billobak familiara biltzean. Gabonetan, gizona, nork eztu txalopin-txalotzen Antton eta Peruren ume kanta?; eta txalopin txalo bitartez, zein aiton-amonek, beren gerriko min eta guzi, eztute dantzan ere dantzan ekiten, naizta naiko farregarri? Biamonerako utzi oi baitira kezkek, erreumak eta... lotsa damuak.

Zuretzako, irakurleak berak biamonez gogatu eta erabakitzeke, utzi ditut nik enseiun, berariz erein eta utzi, zenbait irizpide, idaroki, ateraldi, akar, txirristada, auzi..., urloa astintzeak zingira antzo gure filosofiketa ernarazi ta pilpildu dezakelakoan.

Filosofiketa, ortaz? Filosofiketa al dugu ortaz onako idazti saioa? Ala idaroki utsa? Ala estudiu edo azterketa? Ala lasaipide uts bat? Edo beste poema bat, poesi ta izlau, poesi badan eztan izlauz? Adiskide:

ta bere sotillean, bere pitiñean, zergatik ez, orotarik zerbait? Monologuan asi, dialoguan katiatuz jarrai, antzerki taju zertxobatean buka; ta zergatik ez? Zergatik ez, orotarik zerbait? «La filosofía y la Poesía son hermanas gemelas si no una misma cosa», -epaitu zigun Unamunok.

Niri ajola gutxi lantxo au sail batean edo bestean maxialariek kokatzeak. Ez deritzat oker, ta bai elburuz ederren norgere osoari mintzaraztea. Filosofiaren barrunpea, azterketaren zeaztasuna, idarokiaren ernaria, poemaren anpa artoa, billa tajo nai dun idazleak buru utsez baliatzea eztu aski: buru ta biotz, irudimen eta griñaz eta kirioz, balia bear du. Ots: dun eta dan guziz. Sor dugun lana anai borondate ziñak eragiña izan ezkeru ta «norgere egi» apurñoak emana, enparauak ajola gutxi bear digu...

Dana dala, eztut batere damu Unamunoren gizadi eredu bikañaren euskotasun saietsak emen agertzen saiatua. Ez batere damu, bizkaitar aundiaren alde onak kristaukiro onesten jarduna. Eztare, Abendatsen biozkadei eta gogakunei ibai ataka, tarte-marte, pitinbat irikia. Norbere egi apurñoa damanak beti merezi bear du gizartearen itzala ta onginaia ta txaloa. Ta mereziko Jainkoaren saria.



Andik eta emendik, animadun bakoitzarengandik, bildutako egi apurño askorekin urbildu gindezke soilki Jainkoaren Egi Osora; ta Erreñura.

Talentuak etzaizkigu eman lakari azpian gordetze-ko, -agintzen digu Ebanjeliak. Ixilik egotea genuke okerren. Azken urteotan batezere, esuskaldunok orixe dugu gure pekatu ta kastigu. *Vae mihi quia tacui*. Ez txantxetako kastigu, alare.

Bestelako ederra, bai anbat, agitz bestelakoa, izango litzaken euskaldunon zoria, baita gizadi guziena ere, baldin bete-betean zertu izan bagendu San Agustinen iruko ura -beti San Agustini!-:

*In necessariis unitas  
in dubiis libertas,  
in omnibus charitas.*

«Agur, jaunak» -enean Aita Jainko gorantzia dagigu euskal demokraziak, Aretxek eiñak denok geralako gomuta orrekin oñarri sakonena joaz. Aita Jainkoari Irutasun Santua betidanik sortzen ari zaionez, ordea, orra Agustin neurgeak nolako ederki ateratzen dun gure oñarriari berez dariokion benetako kristau demokrazi gurenaren irutasuna, irutasun santua auxere:

*Bearretan batasun  
ezpaitan askatasun,  
zernaitan maitasun.*

Irutasun guren ori bere osoan zertu badadi, mundua ez litzake mundu. Zeruaren zero baizik.

Irutasun guren ori, ordea, bai urruti gizadiarengandik! Bai urruti, ene!, gaurko ta noiz-naiko laterrietatik! Enebada! enebada!, ta ez batere urbillago, ondikotz, gaurko, ta noiznaiko, euskotarrongandik! Tristura bai...

Tristura onekin eztizut ukatu nai, iruko ori banandu ezkerok, euskaldunok eztitugunik gure gizandiak, gure arketipuak. Onatx iru, bapoak irurak, bakoitza bere sallean:

*Unitas: Loyola.*

*Libertas: Unamuno.*

*Charitas: Xabier.*

Edozein naziok eztezake noski atera ta erakus olakoxe edo onenbesteko irukote tantairik. Gizandiak

Olinpuan utziki, gatozen gaurko ondarrera, populua-gana, ta uztartu ditzagun iruraik ontara:

*Unitas: euskaltasun.*

*Libertas: bakoitzasun.*

*Charitas: kristautasun.*

Irurok batean nork, ordea, nork? Tristura bai. Dio-jenerena: «gizonik nor?». Ots: zernaitan euskaldun eta bakoitz eta kristau: irurok batean jator jokutzen dakinik nor?

Bat alere ez ote? Gizalaba bat alere, eziñobea, gogorazten digu norgere umetzaroak. Oi bizirik banu nire ama! Uraxe charitas emakume egiña. Nirea niretzat añaxe zurea zuretzat. Agiz andrea ere... Oi guziok bagendu amabiotz!

*Iguzu, Jauna:*

*zuretiko semebiotz, usteoro deizugun;*

*anaiekiko amabiotz, barka deiegun;*

*norgerekiko epallebiotz, gogor ar gaitezen.*

Senar-emazteen eta guraso-semeen arteko araur, bakarretik bakarrera edo batzutatik batzutara mai-

tatzearekin ordea ezer gutxi lortu dugu oraindiko, gizarteari naiz gizadiari zor zaion goimaitasuna eguerdigalda betean irixteko, mundu guzia pamili bat izatera eltzeko. Bai urruti guzitik guzira maita bear ori: Jainkotik Jainkora, gizaditik gizadira.

UNITAS: bearreko dugu batasun, ta onurakor, baita eder ere. Aor munduz mundu gergorianua; apai-zen arteko latina; billeretako esperantua. Aor mendez mende dogma katolikua; atzerriz atzerri meza-zerimoniak. Ara, noizgabean, Jainkoaren beti-bata. Krutwig eta Villasante-tarron joran nobleari Espinje-k berebiziko galdera erantzukaitza: nondik eta nola euskaltzaleok idoroko batasun ori euskeragintzan? Eta politikan? naiz beste zernai lanbideetan? Nondik eta nola? Batasun = indar.

LIBERTAS: eder dugu askatasun, eta aberaskor, baita bearreko ere. Aor, izaki bakoitzeko, fisonomi edo tankera bana. Nortasun bakoitzeko, lepo bakoitzeko, gogape bana, aukeramen bana, arazo bana, jomuga bana. Beste kideko iñortxok ez lako banatasuna: ordezkorik eza. Bakoitzak bere ni-a, beste iñork ordezkatueziña. Gizaki ta gizatalde ta gizataldi bakoitzak,

itxasoaren taigabeko mugira eziñegon aldakorrean, beste iñortxok ordaindu eziñezko *alter Christus* bana... Askatasun = bakoitzasun. Askatasun = nortasun.

CHARITAS: eder dugu maitasun. Ederren goimaitasun, ta asegarrien; baita urrutieneko ere. «Bere lagunegatik bizitza ematen dunarena baño maitasun aundiagorik ez da», Kristok. Golgota-ko Eroskundera. *Plenitudo legis*. Maitasun bizitza eman ala artzea. Maitasun = Jainkoa bera, gure bizinai gosearen janari ta obari.

Askatasun utsa, batasun gabe, naaspilloa litzake, anarkia; Batasun solla, askatasun gabe, nortasun oron eraille oi dugu; Maitasun utsa, beste bi aizpa oiek gabe, lorreziña duguke, utopi. Argatik Sinaiko Jeobak maitasun lege bakarra amarretara sailkatu zigun; ta Agustin doneak irutara. Jainkoaren amar aginduak = Agustiñen irurak.

Iru pertsona edo notin Jainko batean; -dirakasgu dotriñak. Iru arauok nor bakoitzagan, -daskaigu kristau anaitasunak, kristau demokraziak, gizalegeak... Iru arauok gizaki ta gizatalde ta gizataldi bakoitzagan.

Bakoitz eta irukoitz dugu Jainkoa; ala bear luke, luke!, giza maitasunak: bakoitz eta irukoitz.

Nork ordea lortu, nortxok berebaitaratu, irutasun gurena uztarri batean, norbera bakoitzagan? Diojenerekin jo billa berriro alperrik: *hominem quoero*.

Nork? Ta bai! Gizaseme batek. Bakar aretxek. «Seme galdua»ren parabolako Aita Onak. Jainko-Gizonak. Ezpaitzun Diojenek Golgota ezagun. *Jugum meum suave*. Jesus. Jesus. Jesus. *Et Verbum caro factum est*. Irukoitz bata, aragitua, soindua! Jesusen Biotza! Urrutiko Jesus! urrutiegiko, urrutieneko Jesus!

Bi milla urteotako laterri sonatuen gobernuetan noiz eta nun katolikutasunak mamitu dizu gero, Jesus, irutasun orren diñezko anaitasunik, eredugarritzko kristau demokrazirik, goi ta bekoen naiz bertako ta erbestekoen arteko ongiartze tajuzkorik? Geurera beintzat, erlijuiak gerraterik aski ekarri digu. Erlijuia izan dugu euskaldunon gerrate danen edo beintzat ia danen suemalie ta luzarazle; ta baitare, gañera, euskotarron bitarazle. Ez ote da ba zurea kristautasuna? Ain bestelako ote da?

Ziñezko katolikuok lotsa onetxek erretzen gaitu, Jesus: orañarteko katoliku naziotan eztugu sekula kris-

tau demokrazi jator bat ukan. Ez ukan eta ezin etsaiei erakus, aien akarrak ixillarazteko.

Eta etsaiak eztagozkigu ixillik, ez geldirik. Bein leizezulatoratuazi ezker jo ta bertan akabatuko luteken basauntzari antzo erasoten digute lau aldetatik oska eta ozka: «Orra guk, laikuok, sozialistok, Uruguay-en naiz Eskandinabi-latterrietan, zenbait gobernu ta giza-lege naiko polit. Beren aje ta guzi, ezin ukatuko diguzute zuenek baño justizi, gizartetasun, kristautasun geiago, ondo geiago, badutenik. Zuek ordea nun duzute, nun, zuen anaitasuna ta atariko aizea bat ezti-rala probatzeko gobernurik?»

Ta guk abestruzarena egitearekin eztugu estaltzen ez gure lotsa ta ez aien akarra. Benetako katolikutasunari dagozkion zenbait gauze-tan aitzindari, txapeldun, omen genun atzo-atzoko Euskalerrri: bere «administrazioa»ren zuzentasunean, nagusi-langille arteko ongiartzean, alperkeriaren kontrako lanzalean, oituren zindoan, lurraldearen ederrean eta aberatsean, kristautasunaren latzean, lege-zarren gizaberan, jendearen elizkoiean, apaiz moja pralleen ugarian eta jatorrean, Elizarekiko diruemate ta beste sorozki nolanaikoetan...

Oiek ola, 1936 ez autonomi ori eman izan baligute, o ze erakus bitxi dizdiratsua izango zuken zure ta gure Eliza katolikuak gure Erri onetxengan, Jesus, beste guzien eredugarri ta etsaien ixilgarri!!

1936 an ordea autonomi ordeaz urkamendia egotsi ziguten eta Erromak, beste bein, naiago izan zun bentsutuontzat arlosa ta sasilarra, ta garailleentzat loreak eta loriak.

Eztakit nire tristura samiña danentz, Jesus, ala nire ezjakiña ala nire zentzuna penaren penaz onako gogotan galdetzen dagokidana: nola ordea, nola, Elizak urrutiratzen utzi du kristau errepublika jatorrentxo bat, bat badare, euskotarrenarekin erakus al izateko egokiera ori?

Eztu ematen edo beintzat eztakusat Erromak oraindik konturatu nai dunik nolako aukera orduntxe galdu zun Aita Santuen entziklikak itzik itz Erriño bakar batean badare zertuarazteko. Aitzitik ari zaizkigu eklesiastiku askotxo katolikuon lotsagarrirako Tedeschinirena berrizten: «Si hubiera doce naciones como España (Francoren España, alegia), el mundo estaría a salvo... Así (?) es como se gobierna en católico».



Itzak, itzak, itzak..., eta azpikeriak, itzen barrutik. Azpikeriak eta interesak. Zer dala ta elizgizonek orrela, Jesus?

Zer dala ta eman bear zaie arrazoi, ta arrazoi oso, bentutzalteei, agintedunei, indardutenei, geienei? Interesez kerastutako mundu ontan, Erroma jeikitzen ezpada Egi garbiaren alde, nortxo jeikiko? Itzak, itzak, eta amarrukeriak. Baña egiñak... besterik diñote.

Galdetu, bestela, gerrate aroz eraildako milloitaka gizaseme oiei ta beste ainbatsu alargun eta emaztegai etsiei; galdetu gaureguneko biargiñen alogerari ta bizikostuaren garestiari, bizimoduaren atzerapenari, jendearen marmarrari...

Ta etsaiek lurbira osotik oska ta ozka darraigute: «Ea, erakus, nun duzute, nun, zuen arteko anaitasuna, zuen kristautasuna?»

Ze lotsa ta ze pena! Tristura bai. Ezin buru-belarriatik ken: «Agur, yaunak...

«Urrundik, gero ta urrunagotik» , Agur ta Agur t'erdia 1936 ko egokeria eder ari!, ederren zeikean ari! Arrezkero, zizpuruka aitor bear, aitor: Agustin deunaren irutasun santua, premiren premizko irutasuna, zeñen urruti gaurko espaiñarrongandik! Eta geu, eus-

kaldunok, ene!, zeñen peregre zugandik, urrutiko Anaitasun, urrutiegiko, urrutieneko Anaitasun!

Peregre. Ez al gera danok, ez al gaude danok, naiko «seme galdu» ?

Arren, Jesus! Arren! Bakoitzak norbere urrutia aitortuz, norbere erru obenak damutan errez, itz eman zagula beingoz danok: *Ibo ad Patrem*. Zugana bidean, Jesus, gabiltzala euskaldun!, gabiltzala bakoitz!, gabiltzala kristau! Irurak batean.

Jo zagula, Jesus, bipil eta lenballen, Aitaren Etxera. Zure Jauregira. Gabonetara. Jainkoaren Erreñura. Gorroto jaurgotik Anaitasunera. Ezinbizitik Gizartetasunera. Atzerritik Abernra. Ejitotik, Moisekin, gidari ta populu, Itxaro Lurrera. Itxaro Lurrera! Jainkoaren Erreñura! Betorkigu zure Erreñua!

Junak jun. Paseak pasa. Aztutzekoak aztu. Atzean utziak utzi. Gaizki esanak eta izanak barka. Atzendu ejitoaroko tipula baratzuriak.

Ez iñork parisaiki «seme zarra» rena egin maxio-ka; ez iñork orbangetzat jo bere burua ta oker ibilli izanari okerrak bekaizti oroitaraz. Dagigula kontu, al bes-tean, naizta gezur izan, «San Manuel Bueno, Mártir» ena: «bandoleru guziak, alegia, dirala on».

Orra Pio XII ak, il onetxen 13 an: «lurbira zear indibidu guziek eta bakoitzek merezi digute begirune, eraspen eta maitazarre». Aita Jainkoaren seme, denok. Israel gera. Israel osoaren itzuleran goaz. Euskoterri osoaren itzulera gera! «Erri galdua» ren itzulera!

Itxaropena zagula, bai, fedearen ama! Ta fedea, damesgun Aberriarena! *Vasconia major!*

Uste baño len mamituko itxaropena, bideratuko miraria: goizeroko mana, laño babespea, basamortuko iturriak. Sinai! Sinai, aurrez aurre! Sinaiko amar legeak gugan! Agustiñen irukoa gugan! Betiko bizitza! Benetako Bizitza! Bizkai guduaren ezilkor ereñoa! Damesgun Aberria! Euskadi!

«Erri galdua» ren zorioneko itzulera! Uste baño len aor, bidera, Itxaro miraria: Zu, Jesus Anai, Aita Ona, Kristo berbera, bidera irtenda orra nun zatozkigun. Eta, zortzi Zoriontasunen Mendiko arpegieraz eta abotsez, etorkizun ederrenerako ongietorria damaiguzu:

-«Agur, yaunak...

*Denok Yinkoak eiñak gire... »*

Ta danok otorontzera eseri arazten gaituzu: oñaz eta ganboar, zuri ta gorri, liberal eta integriste, Unamgno ta Azkue, euskera zale ta erdera zale, guda-ri ta erreketete... gizaldietako Euskal Irritsak jan dezan eta Bizi dedin.

Baña, maiera eseri arren, zure otorontzetik eztugu jaterik izango, Jesus, baldin ezpeditugu irakurtzen eta kunplitzen areto buruko itzok, Sinaikoen lege ordekuok:

*«Bearretan batasun;  
ezpaitan askatasun;  
zernaitan maitasun».*

1955. Montevideo.

# ABENDATS

«No, mi buen amigo, no! Muchas de estas ocurrencias de mi espíritu que te confío ni yo sé lo que quieren decir, o, por lo menos, soy yo quien no las sé. Hay alguien dentro de mí que me las dicta, que me las dice. Le obedezco y no me adentro a verle la cara ni a preguntarle por su nombre. Solo sé que si le viese la cara y si me dijese su nombre, me moriría yo para que viviese él».

(Unamuno. II, 70. Vida de Don Quijote y Sancho).

*Abendats.*

*Euskoabendaren arnats.*

*Gizaldiaren muñorik muñoz  
gure iraupenaren alatz.*

*Eusko bular bakoitzeko su ta laratz.*

*Arnats, alatz eta laratz. Abendats.*

*Ikuseziña aizen arren*

*Aitoren*

*belaunekuok amak aurra lez somatzen*

*augu sabelaren sabel,  
barren barren,  
zain ta mami tauparazten.*

*Uka nai autenek ere  
odolean aramate.  
Gorrota auteken arren, etzegok  
iri egiterik alde.*

*Joran urrunak baño arago  
ta muin barrunak baño bertago,  
gurekin augu, noranaibidez,  
geu geran baño geurekinago:  
eusko gogoaren gogo!  
Unamunogan irritsa,  
Uzkudunetan bortitza,  
Xabiergan asekaitza,  
Loyolagan etsikaitza,  
ik garabilzkik t'ernaltzen gaituk  
gizon ta eme,  
euskotar seme  
bakoitza.*

*Gizaldiz gizaldi zalko,*

*eusko lortze bakoitzeko*

*Abendats,*

*izadiaren sortze garbitik*

*atorkun azi aberats:*

*Bizkai menditan baño re geure*

*erraietan augu meatz.*

*Aitonen aitonen baratz;*

*amonen amonen ardatz.*

*Mariagora mariabera,*

*betirako ipar orratz.*

*Orratz, baratz, meatz, meatz.*

*Abendats.*

*Kanpotarrek*

*etzekitek*

*ire berri.*

*-«Euskoterri*

*nork eusten ote edo zerk?»*

*laborriz galdetzen ditek.*

*«Abendatsek! Abendatsek!»*

*Orreagatik Oriamendi ta Artxandaraño*

*gudurik gudu*

*mundua mundu  
dediño*

*Basojaunaren irrintzi bera zebillek:  
«Abendatsek! Abendatsek!»  
Ez jakin ori Rolandek!...  
Espiritu uts aiz, ez soñik,  
Ez noizdanik, ez jauregi, ez izenik...  
Izkutuago ta illezkorrago,  
eztare etsaiek i iltzerik,  
jazarka ala azi baizik.*

*Auñamendiko errege,  
errege bezain iñude!  
I bizi aizen bitarte,  
biziko zaiguk enda re!  
Au iltzekotan, lendanik  
eu il bearko induteke!*

*Abendats,  
Ats, Ats, Ats:  
nork baña il tiroz egurats?*

*Aberri zuri gorri berdea*



*emazte duk, ire guna  
arduru beti etzuna*

*ta azkenik gabe belaunik belaun  
damaizkik seme trebeak,  
batzuk jun ala besteak...*

*ta Sortaldetik Sarkalderako  
ostadarrean Bakaldun,  
ire erreñuak ezin etzanik ezagun.*

*Mendez mendeko maratonean  
Olinpiade txapeldun  
bakar bait ator ta oa. Bakar. Bak-aldun.*

*Abendats.*

*Eusko abendaren arnats.  
Arnats, alatz, ardatz, laratz,  
baratz, meatz, Ats. Ats. Ats.  
Abendats. Abendats.*

# ZILLAR EZTAIAK

Liburu au irarri: 1958 - 1977 - ...an.

Lizardi il: 1933 - III - 12 an.

Lizardi: Jaungoikoak nai izan dik, liburu au, bi urtez itxoin ondoren, aurtengo ire zillar eztaietan argitaratzea. Ez ote eztaiotako gorazarre dakikantzat? Ala dakikala, bai, o bai! naizta ire diñezko ez izan. Nik onako anaiatze edo enseiu xume onentzat ezin opa sari unkigarriagorik. Nolanaire, bere tolesgabea, argiro ta maitaro erakusten baitagokik, ez agokula ez ilda gure biotzetan, baizik ondo bizirik Abendatsen baitan.

Bein ta betikoz, anaikiro bada, Agur iri

Iñurritzak